Danieraren kasuan, erabat eskuzko itzulpena egin dute eta kudeaketarako, software baten laguntzaz baliatu dira (Petersen, 2011; Andersen *et al.*, 2007). HealthTerm terminologia kudeatzeko sistemaren itzulpen-modulua erabili dute, 4-5 urrats erabiltzen dituen prozesu bat jarraituz[8]. Høy-k (2006)) itzulpenaren prozesu osoa azaltzen du eta kontuan hartzeko irizpideak ere zerrendatzen ditu. Lan horri esker, SNOMED CTren itzulpenetarako gidaliburua argitaratu zuen (Høy, 2010).

Berrikuspen honekin amaitzeko, SNOMED CTn, hizkuntza ezberdinetan egindako itzulpenen laburpena ikus dezakegu 2.1 taulan. Metodo automatikoak erabili dituztenen artean, parentesi artean adierazi ditugu hiztegien erabilera bakarrik automatizatu dituzten hizkuntzak.

Hizkuntza	**Eskuzkoa**	**Itzulpen Automatikoa**
Frantsesa	✓	✓
Txinera	✓	(✓)
Espainiera	✓	(✓)
Suediera	✓	(✓)
Daniera	✓	

2.1 taula – SNOMED CTren itzulpenen laburpena.

Schulz *et al.* (2013) lanean, SNOMED CTren 500 terminoren alemanierazko ordainak konparatu dituzte. 500 termino horien ordainak teknika ezberdinak erabiliz sortu dituzte: i) medikuntzaren domeinuko itzultzaile

[8]http://www.healthterm.com/translation-of-snomed-ct-into-danish/ (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

profesionalek sortatuko ordainak, ii) Google Translate[9] tresnak sortutako ordainak, eta, azkenik, iii) medikuntzako ikasleek sortutako ordainak. Ordain horiek bi adituk (medikuak) ebaluatu zituzten, zuzentasun linguistikoari eta edukiaren zuzentasunari erreparatuz. Konparaketa horren emaitzetan ikus dezakegunez, eskuz sortutako ordainak itzultzaile automatikoak sortutakoak baino hobeak dira, aurreikusten zuten bezala, baina profesionalen eta ikasleen arteko emaitzak berdinak izan dira zuzentasun linguistikoari dagokionez, eta ikasleen ordainak hobeak edukiaren zuzentasunari dagokionez. Lan horretan ondorioztatu zuten moduan, ordainak sortzeko adituak baino alternatiba merkeagoak bideragarriak dira, ikasleak eta itzulpen automatikoko tresnak, hain zuzen ere.

2.5 Laburpena eta ondorioak

Kapitulu honetan tesi-lana kokatu nahi izan dugu, osasun-zientzietako terminologiari eta sorkuntza automatikoari egindako gainbegiratuaren bidez. Gainera, gaur egunean eskuragarri dauden osasun-zientzietako baliabide lexikalak ere aztertu ditugu, eta, bukatzeko, beste herrialde batzuetan SNOMED CT euren hizkuntzetara itzultzeko egindako lanak berrikusi ditugu.

Baliabide lexikalen artean, SNOMED CT ontologia euskaratzeko erabakia hartu dugu. Izan ere, osasun-zientzietako espezialitate askotako terminologia biltzen du, estaldura oso zabala izanik. Gainera, kontzeptuen hartean erlazioak definituta ditu: harreman hierarkikoak, alde batetik (IS-A erlazioak), eta informazio semantikoa gehitzen dutenak, bestetik (*causative-agent* edo *finding site* modukoak). Horrek testuak prozesatzeko garaian abantailak ematen dizkigu, testuan esplizitu agertzen ez den informazioa SNOMED CTtik bertatik jaso daitekeelako, besteak beste. SNOMED CT osasungintza klinikoko terminologia eleaniztun zabalduena dela esan daiteke, eta estandar terminologikotzat dute herrialde askotan. Gaur egunean, 50 herrialde baino gehiagotan erabiltzen da, eta behar ezberdinei erantzuten dioten inplementazioak ezagutzen zaizkio. Hori guztia gutxi balitz, beste sailkapen zein ontologiekin lotura estuak ditu, eta UMLSren metatesauroaren parte da.

Tesi-lan honetan, garatuko ditugun metodoetan, terminoentzako sortuko ditugu ordainak. Termino bat oinarri harturik, horren euskarazko ordain hautagaia proposatuko dugu automatikoki, eta adituen balidazioa egitera-

[9] http://translate.google.com (2017ko maiatzaren 15ean atzitua).

koan, kontzeptu-ikuspegia bermatuko dugu.

Euskarazko osasun-zientzietako corpus paralelo nahikoa ez izatean, terminologia automatikoki sortzeko metodo sortzaileak proposatuko ditugu. Izan ere, euskara normalizazio-prozesuan dagoen hizkuntza izanik, terminologia--falta nabaria dago gaur egunean, eta osasun-zientzien alorra ez da salbuespen bat. Gainera, motibazioa SNOMED CTren terminologia euskaratzea denez, baliteke testuetan zein hiztegietan oraindik jaso gabe dauden terminoak sortu behar izatea. Metodo ez-generazionalek ez dute sistemak ezagutzen ez duen terminoaren ordainik sortzea ahalbidetzen, eta, hortaz, erregeletan oinarritzen diren metodo sortzaileak izango dira garatuko ditugunak.

3

SNOMED CTren analisia

Kapitulu honetan tesi-lan hau horrenbeste baldintzatu duen SNOMED CTren sakoneko analisia aurkeztuko dugu. Aurrena, SNOMED CT kokatuko dugu 3.1 atalean. Bigarrenik, 3.2 atalean SNOMED CTren inguruko hainbat lan azalduko ditugu, eta 3.3 atalean SNOMED CTren bertsio zehatz baten analisia egingo dugu, 2015eko uztaileko ingelesezko bertsioarena hain zuzen ere, hau baita lan honen abiapuntua. Amaitzeko, tesi lan honen abiapuntu izan zen "SNOMED CT sare semantikoa euskaratzeko aplikazioa" Master Tesian (Perez-de-Viñaspre, 2013) egindako espainierazko eta ingelesezko SNOMED CTren bertsioen arteko konparaketaren laburpen bat aurkeztuko dugu 3.4 atalean. Izan ere, azterketa horretatik ateratako ondorioei esker aukeratu dugu ingelesezko SNOMED CT bertsioa abiapuntu euskarazko bertsioa sortzeko.

3.1 Sarrera

***S**ystematized **N**omenclature of **Med**icine – **C**linical **T**erms* edo SNOMED CT (IHTSDO, 2014), osasungintza klinikoko terminologia eleaniztun zabalduena dela esan daiteke. Terminologia klinikoko estandarrak erabiltzeak osasun-arretaren kalitatea hobetu dezake, osasun-txosten elektronikoetako edukia modu trinkoan adierazteko aukera ematen duelako[1]. Nolabait esateko, hizkuntza eta sistema desberdinen arteko txosten klinikoen adierazpen eta in-

[1]http://www.snomed.org/snomed-ct/why-should-i-get-snomed-ct (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

terpretazio automatikoa eta anbiguotasunik gabea ahalbidetuko duen hiztegi normalizatua da, hiztegi-sarreren arteko harremanak zehaztuta daudelarik.

SNOMED CTk osasun-txosten elektronikoen muineko terminologia eskaintzen du, eta 296.000 kontzeptu aktibo baino gehiago ditu modu hierarkikoan antolatuta. Humphreys *et al.* (1997) lanean erakusten duten moduan, SNOMED CTk estaldura onargarria eskaintzen du pazienteen baldintzak jasotzeko. Kontzeptuak logika deskribatzailearen axioma bidez deskribatzen dira, eta esanahi berdineko terminoak multzokatzeko erabiltzen dira. Terminoez ari garela, *terminologia* horrela definitzen du Chute-k (2000): kontzeptu bati loturiko hizkuntza-etiketak. Aurretik esan dugun moduan, SNOMED CTren kontzeptu bakoitzak etiketa edo *deskribapen* bat edo gehiago ditu, orokorrean *termino*tzat hartzen direnak.



3.1 irudia – SNOMED CTko *95575002 - Obstruction of pelviureteric junction (disorder)* kontzeptuaren deskribapen motak. Irudia SNOMED CTren nabigatzailetik atera dugu (http://browser.ihtsdotools.org (2017ko maiatzaren 9an atzitua)).

Bi deskribapen mota bereizten dira SNOMED CTn: *Fully Specified Name* (FSN) izendaturikoa eta sinonimo deiturikoa (*Synonym*). FSNak kontzep-

tuak identifikatzeko erabiltzen diren deskribapenak dira eta kontzeptuaren kategoria semantikoa adierazten duen etiketa (*semantic tag*) izaten dute parentesi artean deskribapenaren bukaeran. Kategoria semantiko horri esker, kontzeptuaren hierarkia ere ezagut dezakegu. Sinonimoak berriz, kontzeptua hizkuntza edo dialekto zehatz batean adierazteko erabiltzen dira. Sinonimoen artean ere bi mota bereizten dira: termino hobetsiak eta sinonimo onargarriak. Termino hobetsiak (*Preferred Term* edo PT), hizkuntza edo dialekto zehatz batean sinonimoen artean hobetsiak izateko aukeratuak dira, eta kontzeptu bakoitzeko eta hizkuntza edo dialekto bakoitzeko bakarra egon daiteke.

SNOMED CTren kontzeptu baten eta honen deskribapenen adibide bat ikus dezakegu 3.1 irudian. Bertan, *"95575002 - Obstruction of pelviureteric junction (disorder)"* kontzeptuaren deskribapenak ikus ditzakegu. FSNak lehenengo zutabean "F" etiketa dauka, termino hobetsiak "S★" etiketa lehenengo zutabean, eta *"preferred"* hitza bigarrenean, eta gainerako deskribapenek (sinonimo onargarriek), "S✓" etiketa daukate lehenengo zutabean eta *"acceptable"* hitza bigarrenean.

Aipatutako Chute-ren (2000) lanean, *terminologia kliniko*aren honako definizioa ematen da:

> *"Standardized terms and their synonyms which record patient findings, circumstances, events, and interventions with sufficient detail to support clinical care, decision support, outcomes research, and quality improvement; and can be efficiently mapped to broader classifications for administrative, regulatory, oversight, and fiscal requirements."*

SNOMED CTren lehenengo bertsioa 2002ko urtarrilean kaleratu zenetik[2], 19 herrialdek euren osasun-txosten elektronikoetan erabiltzeko erreferentziazko terminologia izateko aukeratu dute.

[2]http://www.snomed.org/snomed-ct/what-is-snomed-ct/history-of-snomed-ct (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

3.2 SNOMED CTren inguruko azterketa bibliografikoa

"Data Analytics with SNOMED CT - Case Studies" txostenean (IHTDSO SNOMED CT, 2015) jasota datorren moduan, SNOMED CT erabilgarria da osasun-txosten elektronikoetatik informazioa jasotzeko eta ondorioz, datuen analisia egin ahal izateko, hala nola ikerketa klinikorako, txosten publikoak garatzeko edo medikuntza aurresalean (*predictive medicine*) erabiltzeko.

Hainbat metodo erabili izan dira medikuntzaren domeinuko ontologiak garatzeko, mantentzeko, parekatzeko eta ebaluatzeko. Yu-k (2006) medikuntzako ontologiak honakoetan erabilgarriak direla azaltzen du: i) terminologiaren kudeaketarako, ii) informazioaren integraziorako, elkarrekintzarako eta partekatzeko, eta iii) ezagutzaren berrerabilpenerako eta erabakiak hartzeko. Gure kasuan, SNOMED CTren euskarazko bertsioa osasun-zientzietako terminologia adosteko erabili nahiko genuke, gure iritziz hori baita lehenengo urratsa datuen analisirako eta erabakiak hartzeko, erremintak garatu aurretik.

Lan asko argitaratu dira terminologia kudeatzeko sistemak ikuspegi teorikotik aztertu dituztenak. Adibidez, Bakhshi-Raiez *et al.* (2008) lanean, medikuntzako terminologia mantentzeko estandarizazio-egitura bat definitu dute, medikuntzako baliabide terminologiko guztiei aplikagarria dena, baita SNOMED CTri berari ere. Campbell *et al.* (2014) lanean, aldiz, SNOMED CTren terminoen egokitasuna aztertzen dute, patologisten azterketetan ohikoak diren ehunen morfologiak eta ehunen arkitektura nabarienak adierazteko garaian. Horrela, SNOMED CTren adierazgarritasunean hutsuneak identifikatu dituzte.

SNOMED CTren alde teknikoari zein ez-teknikoari (abantailak eta erronkak, adibidez) buruzko deskribapenak ere aurkeztu izan dira. Alde teknikoari dagokienez, Lee *et al.*-ek (2011), SNOMED CTren bertsioak aztertu dituzte. Horretarako 5.182 kontzeptu aztertu dituzte, eta % 41,2an (2.135 kontzeptutan) lau motako aldaketak identifikatu dituzte: i) FSNaren edo termino hobetsiaren forma-aldaketa, ii) kontzeptuaren egoera-aldaketa (aktibo/ez-aktibo), iii) deskribapen-logikaren aldaketa eta iv) hierarkian duen posizioaren aldaketa. SNOMED CTren erabilerari dagokionez, Silva *et al.* (2011) lanean ondorioztatu dute ordenagailu bidezko tomografiak deskribatzeko SNOMED CTren errepresentazio maila egokia dela, eta Maheronnaghsh *et al.* (2011) lanean, lunbagoaren inguruko erabakiak hartzeko laguntza-sistema batean

egindako azterketan, ondorio berera iritsi dira. Elhanan *et al.* (2011) lanean, aldiz, SNOMED CTren alde ez-teknikoari heltzen diote. Horretarako, SNOMED CTren erabiltzaile zuzenei galdeketa bat egin diete, honen estaldurari, kontzeptuen zehaztasunari eta kalitateari buruz. Erabiltzaileen % 42k SNOMED CTren estaldura % 85 baino altuagoa dela deritzo, eta % 60 honen kalitatearekin pozik agertu da. Horretaz gain, erabiltzaileek SNOMED CTren sendotasuna hobetzeko nahia erakutsi dute, baita estalduraren hedapena egiteko nahia ere.

Terminologia-sistemen analisiari esker, SNOMED CTn inkonsistentziak eta akatsak aurkitu izan dituzte hainbat lanetan. Adibidez, Jiang eta Chute (2009) lanean, SNOMED CTren osotasun semantikoa aztertzeko, kontzeptuen analisi formalean oinarritzen den eredu bat erabili dute. Mikroyannidi *et al.* (2012) lanean, aldiz, erregulartasun eta irregulartasun sintaktikoak aztertu dituzte, eta "diseinu-akats" batzuk eta deskribapen osatugabeak daudela ondorioztatu dute.

SNOMED CT sortzeko osasungintzako erreferentziazko bi terminologia-sistema elkartu zituzten: SNOMED RT eta *Clinical Terms*-en 3. bertsioa. Horretarako, 30 editore kliniko elkartu ziren eta, bi terminologia-sistemak aztertuta, adostasuna lortu zuten anatomia-ereduei, sinonimoen erabilerari eta termino hobetsiei dagokienez, besteak beste (Stearns *et al.*, 2001). Adibidez, SNOMED CTk entitate anatomikoak adierazteko "Egitura-Osoa-Zatia" hirukotea deritzon eredu-hurbilpena erabiltzen du, ingelesez *"Structure-Entire-Part"* edo SEP deritzona. Erabil dezagun *eye* (begia) entitatearen adibidea eredu-hurbilpen hori ulertzeko 3.2 irudian. Ikus dezakegunez, *structure of eye proper*, begia adierazteko erabiltzen den kontzeptu orokorrena da, *entire eye*k begi osoari egiten dio erreferentzia eta *eye part*ek, begiaren zati bati.



3.2 irudia – Begiaren "Egitura-Osoa-Zatia" hirukotearen adibidea.

3.3 Analisia

Atal honetan, SNOMED CTren 2015eko uztaileko nazioarteko argitalpenaren analisi kuantitatiboa aurkeztuko dugu. Bertsio hori da 5. eta 6. kapituluetan euskaratzeko abiapuntu gisa erabili duguna.

Gaur egun, SNOMED CT bi formatutan argitaratzen da: *Release Format 1* (RF1) eta *Release Format 2* (RF2). RF1 formatua, SNOMED CTren lehenengo argitalpenetik erabilitako formatua da (2002 urtetik aurrera). RF2 formatua, aldiz, 2012 urtetik aurrera erabiltzen den formatua da, eta SNOMED International-ek esaten duenaren arabera, RF1 erabat ordezkatzera helduko da. RF2 SNOMED CTren erabiltzaileen eskaerengatik sortu da. Izan ere, RF1 formatuan hainbat ahultasun aurkitu izan dira egituraketari dagokionez, eta honi erantzuteko, RF2k sendotasuna eta trinkotasuna eman dio. Adierazpide logikoan urratsak emateko ere erabili da formatu-aldaketa, ontologiekin lan egiteko aukera zabala emanaz.

"SNOMED CT The Release Format 2 Value Proposition" (IHTDSO SNOMED CT, 2013) lanean azaltzen duten moduan, gaur egun RF1 fitxategiak RF2ko datuetatik erauziak dira eraldaketarako baliabideak erabiliz. Zoritxarrez, eraldaketaren ondorioz, RF2 formatuan jasotzen den hainbat informazio galtzea ekidinezina da. Edonola ere, aurretik aipatu moduan, RF1 formatua desagertze-bidean dagoen formatua da.

Hurrengo hiru azpiataletan, SNOMED CTren analisi kuantitatiboan lortutako emaitzak aurkeztuko ditugu, eta honako datuei erreparatuko diegu:

1. *Egitura hierarkikoa*: hierarkia bakoitzean (eta kategoria semantiko bakoitzean) dagoen kontzeptuen populazioa neurtu dugu.

2. *Aberastasun terminologikoa*: atal honetan kontzeptu bakoitzari lotutako sinonimo kopurua neurtu dugu.

3. *Terminoen deskribagarritasuna*: termino edo deskribapen bakoitzaren token kopurua aztertu dugu, horien deskribagarritasunaren azaleko neurri gisa.

3.3.1 Egitura hierarkikoa

SNOMED CT kontzeptu-sistema generiko bat erabiliz antolatuta dago. Hau da, kontzeptuak orokortze-erlazioen bidez lotuta daude (IS-A erlazioak), eta

horrela menpeko kontzeptua gaineko kontzeptutik ezberdintzen duena ezaugarri bereziren bat da. Modu horretan, kontzeptu orokorrenak goiko mailetan kokatzen dira, eta kontzeptu espezifikoenak beheko mailetan. Erlazio horiei esker, SNOMED CTri egitura hierarkikoa ematen zaio. Adibidez, *myocardial infarction* (miokardio-infartu), *myocardial disease* (miokardio-gaixotasun) bat da (is-a erlazioa), *Clinical finding* (aurkikuntza kliniko) hierarkiaren baitan.

Hemeretzi goi-mailako hierarkia daude SNOMED CTn, eta horietan kontzeptu guztiak kokatuta daude (3.1 taula). Hierarkia horiek osasun-zientzien domeinuko hainbat arlo jasotzen dituzte, esaterako, aurkikuntza klinikoak, prozedurak (*Procedure*) eta gorputz-egiturak (*Body structure*). Hala ere, ez dira bakarrik osasun-zientzietako oso espezifikoak diren kontzeptuak bakarrik agertzen. SNOMED CTk gertaerak (*Event*), testuinguru soziala (*Social context*) edo ingurumena edo kokaleku geografikoa (*Environment or geographical location*) moduko hierarkiak ere jasotzen ditu, horietan barnebiltzen diren kontzeptuak osasun-txostenetan esanguratsuak direlako.

Aurretik azaldu dugun moduan, SNOMED CTren kontzeptu oro FSN (*Fully Specified Name*) bakar batekin deskribatuta dago. Deskribapen berezi horiek kontzeptu horren kategoria semantikoa adierazten duen etiketa semantiko (*semantic tag*) batez bukatzen dira (*myocaardial infarction (disorder)*). Etiketa semantiko hau erabiltzen da deskribapen berdina duten baina hierarkia ezberdina duten kontzeptuen artean anbiguotasuna ebazteko. Adibidez, *cyst (disorder)* FSNak pertsona batek kiste bat duenean pairatzen duen diagnostiko klinikoa adierazten du, *cyst (mophologic abnormality)* FSNak, berriz, kistea bera adierazten du.

Hierarkia bakoitzaren eta horien etiketa semantiko bakoitzaren populazioa ere erakusten dugu 3.1 taulan. Erroa den kontzeptua ere taulan sartu dugu *SNOMED CT Concept* hierarkiaren barruan, baina ez dugu analisirako kontuan hartu, kontzeptu bakarra baitago. Hirugarren zutabean ("Kontz." izendatutakoan), etiketa semantiko bakoitzean dagoen kontzeptu kopurua ematen dugu, eta horretarako kontzeptuen FSNak aztertu ditugu. Azkeneko zutabean ("Denera" izenekoan), hierarkia bakoitzak denera duen kontzeptu kopurua jaso dugu, kontzeptuak erlazionatzen dituen "is-a" erlazio motari jarraituz.

Hierarkia guztietan populatuena nahasmendu klinikoena da (*Clinical finding*), kontzeptu guztien ia herena hierarkia horretakoak baitira. Hierarkia horretan, behaketa edo ebaluazio klinikoetako emaitzak barnebiltzen dira eta bi multzotan bereizten dira: nahasmenduak (*disorders*) eta aurkikun-

Hierarkia	**Etiketa semantikoa**	**Kontz.**	**Denera**
Clinical finding	*disorder*	68.839	103.227
	finding	34.388	
Procedure	*procedure*	52.545	55.128
	regime/therapy	2.583	
Organism	*organism*	33.036	33.036
Body structure	*body structure*	25.045	30.871
	morphologic abnormality	4.695	
	cell	627	
	cell structure	504	
Substance	*substance*	25.828	25.828
Pharmaceutical / biologic product	*product*	16.931	16.930
Physical object	*physical object*	14.392	14.393
Qualifier value	*qualifier value*	9.388	9.388
Observable entity	*observable entity*	8.410	8.410
Social context	*occupation*	3.751	4.712
	person	425	
	ethnic group	270	
	religion/philosophy	203	
	social concept	23	
	life style	21	
	racial group	19	
Situation with explicit context	*situation*	4.159	4.159
Event	*event*	3.606	3.606
Environment or geographical location	*environment*	1.197	1.815
	geographic location	617	
	environment / location	1	
Specimen	*specimen*	1.620	1.620
SNOMED CT Model Component	*attribute*	1.136	1.547
	namespace concept	185	
	foundation metadata concept	183	
	core metadata concept	33	
	link assertion	8	
	metadata	1	
	linkage concept	1	
Staging and scales	*assessment scale*	1.110	1.341
	tumor staging	215	
	staging scale	16	
Special concept	*navigational concept*	640	649
	inactive concept	8	
	special concept	1	
Record artifact	*record artifact*	225	225
Physical force	*physical force*	171	171
SNOMED CT Concept	*SNOMED RT+CTV3*	1	1
Denera	-	317.057	317.057

3.1 taula – SNOMED CTren egitura hierarkikoa.

tzak (*findings*). Bi azpihierarkia horiek horren populatuak izanik, hemendik aurrera bi hierarkia berezitu gisa egingo diegu erreferentzia.

Gaur egunean, 19 hierarkietarako 42 etiketa semantiko daude. Etiketa semantiko horiek, batzuetan, hierarkiak baino zehaztasun handiagoa ematen dute. Adibidez, gorputz-egituren hierarkiak lau kategoria semantiko ditu: gorputz-egitura (*body structure*), anormaltasun morfologikoa (*morphologic abnormality*), zelula (*cell*) eta zelula-egitura (*cell structure*). Edonola ere, 11 hierarkietan etiketa semantikoak ez du inolako informazio gehigarririk ematen (bakarra dagoelako).

Taularen azterketari jarraiki, lau kasutan etiketa semantikoak kontzeptu bakar bat duela ikus dezakegu. Kontzeptu horiek, etiketa semantiko ezberdina duten hierarkiaren bi adar elkartzeko erabiltzen dira. Adibidez, "ingurunea / kokalekua" (*environment / location*) etiketa semantikoa, *Environment or geographical location (environment / location)* FSNa duen kontzeptuari dagokio, kasu honetan izen berdina duen hierarkiaren erro-kontzeptua dena. Kontzeptu horretatik, bi adar (ume) ateratzen dira: ingurunea (*environment*) eta kokapen geografikoa (*geographic location*).

Taula ondo aztertuta, inkoherentzia batzuk daudela ohartu gara. Produktu farmazeutiko / biologikoen (*Pharmaceutical / biologic product*) hierarkian, 16.931 kontzeptu daude bere etiketa semantiko bakarrean (*product*), eta 16.930 kontzeptu hierarkiaren populazioan. Kontrakoa gertatzen da objektu fisikoen (*Physical object*) hierarkian, non 14.392 kontzeptu dauden etiketa semantikoan eta 14.393 kontzeptu hierarkian. Salbuespen hori 440245005 identifikadorea duen kontzeptuari dagokio, *dressing medicated with leptospermum honey (product)* FSN duena. Ikusten dugunez, *product* etiketa semantikoa du bere FSNan, baina *"is-a"* erlazioei jarraituz, objektu fisikoen hierarkiakoa da[3].

3.3.2 Aberastasun terminologikoa

Aurretik aipatu bezala, SNOMED CTren helburuetako bat osasun-txostenetan erabiltzen diren kontzeptu kliniko ahalik eta gehien jasotzea da. *Starter Guide* dokumentuan (IHTSDO, 2014) esaten duten bezala, SNOMED CTk ulergarritasuna, erreproduzitzeko gaitasuna eta erabilgarritasuna ziurtatu behar ditu. Horrela, deskribapenek ulergarriak, onargarriak eta pro-

[3]http://browser.ihtsdotools.org/?perspective=full&conceptId1=440245005&edition=en-edition&release=v20170131 (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

fesionalentzat esanguratsuak izango dute. Horregatik, SNOMED CTrentzat deskribapenen artean ahalik eta sorta handiena jasotzea garrantzitsua da, eta kontzeptu bat deskribatzeko erabili daitezkeen sinonimo guztiak jaso beharko lituzke.

SNOMED CTren sinonimoen aldakortasunaren ikuspegi orokorra erakusten dugu 3.2 taulan. Lehenengo zutabean, kontzeptuen kopuruak erakusten ditugu, bigarren zutabean, kontzeptu horiei lotutako sinonimo kopurua, hirugarren zutabean, kontzeptuko sinonimo kopuruaren batezbestekoa eta azkeneko zutabean horien mediana erakusten ditugu. Batezbestekoak ematen dizkigun datuak osatzeko ematen dugu mediana, kontzeptuen erdiak baino gehiagok sinonimo bakarra duen ala gehiago duten erakusten baitigu. Gogoan izan behar dugu, FSNak SNOMED CTren kontzeptuak identifikatzeko baino ez direla erabiltzen, eta ez direla testuetan agertzen; hortaz, taulako zenbakietatik at utzi ditugu.

Hierarkia	**Kontzep.**	**Sinonim.**	**Batez.**	**Mediana**
Clinical disorder	68.839	114.830	1,67	1
Clinical finding	34.388	52.857	1,54	1
Procedure	55.128	87.104	1,58	1
Organism	33.036	57.582	1,74	2
Body structure	30.871	59.384	1,92	2
Substance	25.828	43.356	1,68	1
Pharmaceutical / biologic product	16.930	25.179	1,49	1
Physical object	14.393	17.838	1,24	1
Qualifier value	9.388	14.440	1,54	1
Observable entity	8.410	13.253	1,58	1
Social context	4.712	5.893	1,25	1
Situation with explicit context	4.159	6.486	1,56	1
Event	3.606	4.404	1,22	1
Environment or geographical location	1.815	2.305	1,27	1
Specimen	1.620	1.982	1,22	1
SNOMED CT Model Component	1.547	1.956	1,26	1
Staging and scales	1.341	2.421	1,81	2
Special concept	649	894	1,38	1
Record artifact	225	284	1,26	1
Physical force	171	272	1,59	1
SNOMED CT Concept	1	4	4,00	4
Total	317.057	512.724	1,62	1

3.2 taula – Kontzeptuen eta sinonimoen kopuruak SNOMED CTren hierarkietan.

Harritu gaitu SNOMED CTren kontzeptu bakoitzak batezbestean sinonimo bat eta biren artean izateak. Are gehiago, medianaren balioak ikusita, hierarkia gehienetan kontzeptuen erdiak behintzat sinonimo bakarra dauka. Gorputz-egituren hierarkia da batezbesteko altuena duena, bitik oso gertu (1,92) eta organismoen eta, estadifikazioen eta eskalen (*Staging and scales*) hierarkiekin batera 2ko mediana dauka.

Gorputz-egituren hierarkiaren kasuan, SNOMED CTk "Egitura-Osoa-Zatia" hirukote eredu-hurbilpena erabiltzen duela gogora ekarri behar dugu. Alegia, termino hobetsiek hirukotearen egitura jarraitu behar dute, eta ondorioz sinonimo gehiago jasotzen dira. Adibidez, *nose* (sudur) zati anatomikoarentzat, "Egitura" kontzeptuaren termino hobetsia *nasal structure* da, eta sinonimo onargarria *nose*, 3.3 irudian ikus dezakegun bezala. Euskaratzen ari garen SNOMED CTren bertsioan, "Osoa" kontzeptuaren termino hobetsia *entire nose* da, eta sinonimo onargarria *nose* ("egitura" kontzeptuarren berdina) da. Ikusten dugunez, kontzeptu horiek guztiek gutxienez bi sinonimo dituzte.

Term	Acceptability (US)
F ☆ Nasal structure (body structure)	Preferred
S ★ Nasal structure	Preferred
S ✔ Nose	Acceptable

3.3 irudia – SNOMED CTren *45206002 - Nasal structure (body structure)* kontzeptuaren deskribapen guztiak. Irudia SNOMED CTren nabigatzailetik atera dugu (http://browser.ihtsdotools.org (2017ko maiatzaren 9an atzitua)).

Organismoen hierarkiari dagokionez, FSNetan ohikoa da hierarkiaren adierazlea, nazioarteko forma taxonomikoa eta kategoriaren adierazlea (*Genus, Family, Phylom...*) agertzea. Adibidez, *Genus Branchiomyces (organism)* FSNarentzat, *Branchiomyces* termino hobetsia da eta *Genus Branchiomyces* sinonimo onargarria. Horrela, *Linnaean* klase taxonomikoetan ofizialki onartuta dauden organismoek egitura hori jarraitzen dute izendapenei dagokionez, eta ondorioz gutxienez bi sinonimo izaten dituzte.

3.3.3 Terminoen deskribagarritasuna

Baliteke konplexutasuna ezagutzeko, termino bakoitzaren hitz (edo token[4]) kopurua zenbatzea neurri ona ez izatea, baina modu errazean eta sinplean terminoaren izaera erakusten digu. Hau da, terminoen token kopurua neurtuz, SNOMED CTren terminoen konplexutasunaren ideia orokor bat izan dezakegu. Adibidez, ez da berdina *lung cyst* moduko termino motz baten konplexutasuna, edo *ruptured emphysematous bleb of lung* moduko termino luze batena.

Terminoen morfologiaren ikuspegitik, Mayerthaler-ek (1981) azpimarratzen duen moduan, kontzeptu konplexuagoek izen luzeagoak izaten dituzte. Adibidez, *cuvette oximeter* terminoak *oximeter* baino espezifikoagoa den instrumentu bati egiten dio erreferentzia.

Are gehiago, kasu batzuetan terminoen deskribagarritasunarekin lotuta egon daiteke. Gehienetan, terminoa zenbat eta luzeagoa izan, orduan eta espezifikoagoa izango da. Ezaugarri hori SNOMED CTren kontzeptu-sistemaren azalpenean ere aipatzen da. Edonola ere, sinonimoen arteko ezberdintasunak aurkituko ditugu kontzeptu bat deskribatzeko garaian. Adibidez, *apoptosis (morphologic abnormality)* kontzeptuak bi sinonimo ditu: *apoptosis* (grezieratik, narriadura esan nahi du[5]) termino hobetsia eta *gene-directed cell death* sinonimo onargarria. Ikus dezakegun moduan, termino hobetsia zehatzagoa da baina, sinonimo onargarriak informazio lexikal gehiago ematen du.

Token kopuruaren araberako sailkapena egin dugu 3.3 eta 3.4 tauletan, hierarkien arabera. Lehenengo taulak (3.3), 1 eta 6 token arteko kopuruak erakusten ditu, eta 3.4 taulak gainerakoak. Bertan, token kopuru bakoitzeko zenbat termino dauden erakusten dugu alde batetik, eta bestetik, 3.4 taulako azken hiru zutabeetan hierarkia bakoitzean denera dauden sinonimo kopurua, terminoek batezbestean zenbat token dituzten eta horien mediana. Ikus dezakegunez, hierarkia guztiak kontuan izanik, batezbestekoa zein mediana 4 token inguruan daude. Hierarkia populatuenetatik, batezbestekotik ateratzen direnak azpimarratu behar ditugu: organismoak (*Organism*) eta substantziak (*Substance*). Bi hierarkia horien sinonimoek batezbestean 2 token dituzte, horien zehaztasunaren eta laburtasunaren erakusle. Orokorrean, termino gehienak 1 eta 8 token artekoak dira, tarte horretan ia % 95 jaso-

[4]Hitzak zenbatzerako garaian, hitzak eta puntuazio-markak bereizi ditugu, horretarako tokenizatzaile bat erabiliz.

[5]https://en.wiktionary.org/wiki/apoptosis (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

Hierarkia	Token kopurua					
	1	**2**	**3**	**4**	**5**	**6**
Clinical disorder	3.863	21.009	25.028	20.732	16.252	10.346
Clinical finding	1.803	8.583	10.953	10.104	8.354	5.187
Procedure	1.996	9.893	15.401	17.049	14.553	10.177
Organism	9.091	32.392	6.346	3.582	1.672	1.453
Body structure	2.593	10.654	12.700	10.689	9.062	5.978
Substance	8.250	13.917	6.900	6.435	3.274	1.681
Pharmaceutical ...	2.616	2.363	4.987	4.537	3.235	2.379
Physical object	946	3.483	4.228	3.680	2.348	1.340
Qualifier value	4.536	4.555	2.760	1.159	717	344
Observable entity	459	2.406	3.394	2.739	1.871	1.059
Social context	904	2.051	1.179	725	466	256
Situation ...	11	401	1.243	1.709	1.272	851
Event	67	173	374	485	522	410
Environment ...	554	752	478	207	93	52
Specimen	9	250	572	339	163	167
... Model Component	240	522	687	156	252	31
Staging and scales	18	119	397	468	411	326
Special concept	19	131	220	140	72	122
Record artifact	2	64	53	34	26	8
Physical force	40	127	48	33	17	6
SNOMED CT Concept	0	0	1	0	0	0
Denera	38.017	113.845	97.949	85.002	64.632	42.173
Portzentajea	% 7,41	% 22,20	% 19,10	% 16,58	% 12,61	% 8,23

3.3 taula – Ingelesezko terminoen token kopuruaren araberako sailkapena (2 tauletan banatu dugu, hau da 1.a).

tzen direlarik. Datu bitxi gisa, bi deskribapen aurkitu ditugu aurkikuntzen hierarkian (*Clinical finding*) 52 token dituztenak.

Lehenengo taularekin jarraituz (3.3 taula), deskribapenen ia larudenak bi tokenez osatuta dagoela ikus dezakegu. Edonola ere, datuak aztertuz, patroi hori hierarkia guztiek jarraitzen ez dutela ikus dezakegu, nahasmenduak (*clinical disorder*), aurkikuntzak (*clinical finding*) eta gorputz-egiturak (*body structure*) kasu. Hierarkia horietan, hiru tokeneko sinonimoak dira gehienak, eta prozeduren hierarkian (*Procedure*) lau tokenetakoak. SNOMED CT osoan, bi tokeneko sinonimoak gehiengoa izatearen arrazoietako bat organismoen hierarkian aurkitzen dugu, hierarkia populatuenetako bat izanik, bertan desoreka oso handia baitago bi tokeneko eta gainontzeko token kopuruetako sinonimo kopuruen artean.

	Token kopurua					
Hierarkia	**7**	**8**	**9+**	**Denera**	**Batez.**	**Mediana**
Clinical disorder	6.748	4.148	6.704	114.830	4,37	4
Clinical finding	2.771	1.665	3.437	52.857	4,67	4
Procedure	6.776	4.198	7.061	87.104	4,90	4
Organism	651	668	1.727	57.582	2,66	2
Body structure	3.981	1.854	1.873	59.384	4,17	4
Substance	1.705	426	768	43.356	3,05	2
Pharmaceutical ...	1.764	1.083	2.215	25.179	4,58	4
Physical object	816	367	630	17.838	3,97	4
Qualifier value	167	71	131	14.440	2,44	2
Observable entity	586	348	391	13.253	4,01	4
Social context	151	68	93	5.893	3,03	2
Situation ...	453	270	276	6.486	4,79	4
Event	389	284	1.700	4.404	9,89	7
Environment ...	17	10	142	2.305	2,91	2
Specimen	170	98	214	1.982	4,81	4
... Model Component	21	13	34	1.956	3,08	3
Staging and scales	275	151	256	2.421	5,48	5
Special concept	41	50	99	894	4,83	4
Record artifact	6	3	88	284	6,67	4
Physical force	1	0	0	272	2,57	2
SNOMED CT Concept	0	0	3	4	16,50	14
Denera	27.489	15.775	27.842	512.724	4,13	4
Portzentajea	% 5,36	% 3,08	% 5,43	% 100		

3.4 taula – Ingelesezko terminoen token kopuruaren araberako sailkapena (2 tauletan banatu dugu, hau da 2.a).

3.4 Ingelesezko bertsioa aukeratzeko arrazoiak

Tesi-lan honekin hasi ginenean, orduko ingelesezko zein espainierazko SNOMED CTren bertsioak aztertu genituen, euskaratzeko abiapuntu onena aukeratzeko. Azterketa horretan, bi bertsio zehatzen konparaketa egin genuen, hierarkietako kontzeptu kopuruei dagokionez, termino hobetsien kopuruei dagokienez eta termino gabeko kontzeptuen kopuruari dagokionez (Perez-de-Viñaspre, 2013). Konparatutako bertsioak, honakoak dira: SNOMED CTren ingelesezko nazioarteko banaketa, 2012ko urtarrilaren 31koa; eta espainierazko banaketa, banaketa internazionalean oinarritua dena, 2012ko apirilaren 30ekoa.

Aurkeratutako espainierazko bertsioan kontzeptu asko aurkitu genituen inolako deskribapenik edo terminorik gabe, 3.5 taulan ikusten dugun mo-

etik. semantikoa	**Kop.**	**Portz.**	**etik. semantikoa**	**Kop.**	**Portz.**
procedure	11.398	% 16,17	*ethnic group*	83	% 22,68
disorder	10.537	% 11,31	*specimen*	69	% 4,75
finding	8.534	% 18,91	*morphologic abnormality*	54	% 1,06
situation	2.931	% 33,63	*administrative concept*	49	% 61,25
occupation	1.792	% 27,82	*assessment scale*	44	% 3,99
regime/therapy	785	% 22,05	*special concept*	29	% 96,67
substance	652	% 2,55	*staging scale*	25	% 60,98
product	484	% 1,99	*tumor staging*	13	% 4,96
qualifier value	483	% 4,81	*attribute*	10	% 0,87
observable entity	408	% 4,54	*religion/philosophy*	10	% 4,41
physical object	381	% 6,91	*navigational concept*	5	% 0,69
event	377	% 4,21	*cell*	3	% 0,47
person	230	% 34,74	*physical force*	3	% 1,69
body structure	157	% 0,58	*racial group*	2	% 9,52
organism	127	% 0,36	*cell structure*	1	% 0,19
environment	90	% 7,19	*social concept*	1	% 3,70
record artifact	84	% 26,42	etik. semantikorik gabe	1.013	-
			Denera	**40.864**	-

3.5 taula – Gaztelaniazko bertsioan galdutako kontzeptuak, etiketa semantikoen arabera sailkatuta.

duan. Taula horretan, hutsik dauden kontzeptuei dagozkien etiketa semantikoak (*semantic tag*) erakusten ditugu. Denera 34 etiketa ezberdinei dagozkien kontzeptuak dira galdu direnak. Kopuruaren arabera aztertuz gero, *procedure*, *disorder* eta *finding* etiketa semantikoak ditugu gabezia handienarekin (eta aldi berean populatuenak direnak). Ehunekoei begiratuz gero eta kopuru baxuak dituztenak baztertuz, kaltetuenak *situation*, *occupation* eta *regime/therapy* etiketa semantikoak direla esan dezakegu.

Gaineratu beharra dago, une horretan espainierazko bertsioa garapen fasean zegoela oraindik. Gaur egunean egoera asko aldatu bada ere, hartutako erabakia zuzena izan zelakoan gaude. Izan ere, espainierazko bertsioa ingelesezkoaren itzulpena da, eta itzulpen prozesuetan beti egoten dira galerak. Horregatik, ingelesezko bertsioa erreferentziazkoa izatea abiapuntu egokiena iruditzen zaigu, eta espainierazko bertsioa gure euskarazko bertsioa elikatzeko erabiliko dugu 5. kapituluan ikusiko dugun moduan.

3.5 Laburpena eta ondorioak

Kapitulu honetan SNOMED CTren ingelesezko bertsio zehatz baten analisi kuantitatiboa aurkeztu dugu. Analisi horren helburu nagusia SNOMED CTren ezaugarriak aztertzea izan da, honen euskaratzean lagungarria izango zaigun informazioa eskuratzeko.

Lehenik, SNOMED CTren egitura hierarkikoan sakondu dugu, definituta dauden 19 goi-mailako hierarkietako populazioen kopuruak eta horien baitan dauden etiketa semantiko bakoitzaren populazioaren kopuruak ezagutuz. Horrela, populatuenak aurkikuntza klinikoak (*clinical finding*), prozedurak (*procedure*), organismoak (*organism*) eta gorputz-egiturak (*body structure*) barnebiltzen dituzten hierarkiak direla ikusi dugu.

Bigarrenik, SNOMED CTren aberastasun terminologikoa aztertu dugu, kontzeptu bakoitzari lotuta dauden sinonimo kopuruak jasoaz. Zenbakiek erakutsi digutenaren arabera, ingelesezko SNOMED CTk aldakortasun gutxi du, hierarkia gehienetan sinonimo bakarreko kontzeptuak baitira nagusi (1,62 sinonimo batezbestean eta mediana 1).

Jarraian, terminoen deskribagarritasuna kuantifikatu dugu, horien token kopuruazenbatuz. Ikusi dugunaren arabera, bi tokeneko terminoak dira nagusi orokorrean, baina hiru eta lau tokeneko terminoak ere oso ugariak dira (hiruen artean ia % 58 osatzen dute), terminoak trinkoak direla erakutsiz.

Azkenik, tesi-lan honen hastapenetan egindako SNOMED CTren ingelesezko zein espainierazko bertsioen arteko konparaketako datu nabarmenenak ekarri ditugu gogora. Horrela, espainierazko bertsioak zituen gabeziak azaleratu ditugu, garai horretan oraindik garapenean zegoen bertsio bat izanik, hutsune nabariak baitzituen.

SNOMED CTren analisia eginda, SNOMED CT euskaratzeko bi erabaki nagusi hartu ditugu: jatorri-hizkuntza zein izango den eta zein hierarkiarekin hasiko dugun euskaratzea. Esan bezala, SNOMED CTren ingelesezko bertsioa hartuko dugu abiapuntutzat.

Hierarkiei dagokienez, hierarkia populatuenekin hastea erabaki dugu: aurkikuntza klinikoak (eta nahasmenduak, jakina), prozedurak eta gorputz-egiturak. Nahiz eta organismoen hierarkia gorputz-egiturena baino populatuagoa egon, hierarkia berezia da, eta ez dugu aukeratu. Aukeratutako hierarkia horiek erreferentziazko hierarkiak izango dira, eta egingo ditugun esperimentuak hierarkia horiekin ebaluatuko ditugu. Hala ere, garatutako sistemak hierarkia guztiak euskaratzeko erabiliko ditugu.

4

EuSnomeden diseinua

EuSnomed, SNOMED CT sare semantikoa euskaratzeko garatu dugun sistema da. Kapitulu honetan bere diseinuaren zertzelada batzuk aurkeztuko ditugu, sakontasunean sartu gabe. Sistema bera sakonki aurkeztu genuen *Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua* masterreko titulua lortzeko master bukaerako proiektuan (Perez-de-Viñaspre, 2013).

Kapitulu honek honako egitura jarraituko du: aurrenik, EuSnomed sistemaren deskribapen orokorra egingo dugu 4.1 atalean eta honen oinarrian dagoen algoritmoa aurkeztuko dugu 4.2 atalean. Jarraian, 4.3 atalean baliabideen biltegiratzea azalduko dugu eta amaitzeko, 4.4 atalean sistemaren klase-diagrama deskribatuko dugu.

4.1 Deskribapen orokorra

EuSnomed, SNOMED CTren eduki terminologikoa euskaratzeko sistema da (beste edozein hizkuntzatan lortzeko, modu errazean egin egokitu daiteke). Sistemaren oinarrian lau urratsetako algoritmo bat dago hurrengo atalean azalduko duguna. Algoritmo horrek jatorri-helburu hizkuntzetarako eskura dauden baliabide lexiko elebidunak berrerabiltzen ditu eta horien hutsuneak betetzeko baliabide berriak sortzen ditu.

Sistemak, exekuzioaren hasieran, alde batetik SNOMED CTren edukia jaso eta hierarkiaka banatu eta biltagiratzen du, eta bestetik, baliabide lexikal eleanitzak biltegiratzen ditu ItzulDB deituriko datu-basean. Biltegiratzearen ezaugarriak zein definitu dugun formatuaren deskribapena, 4.3 atalean

azalduko dugu.

Gogoan izan behar dugu SNOMED CT kontzeptuetan oinarritzen dela, eta guk lortu nahi ditugunak horiek errepresentatzen dituzten terminoen edota deskribapenen ordainak direla. EuSnomed sistemak, deskribapenak jaso eta ordainak lortuko ditu.

Ordainak modu inkrementalean lortuko ditugu, lortutako ordain berriak berrerabiliz. Horrela, aplikazioak deskribapenen token kopuruaren araberako ordena erabiliko du ordainak lortzeko, token bakarrekoekin hasi, eta termino luzeenekin bukatu arte. Token kopuru bakoitzarekin bukatzerakoan, baliabideak birkonpilatuko ditugu, sortutako ordain berriak hurrengo exekuzioetan berrerabil daitezen.

4.2 Algoritmoa

Atal honetan SNOMED CTren deskribapenetarako hizkuntza berri batean ordainak lortzeko helburuarekin definitu dugun algoritmoa deskribatzen dugu.

Algoritmoak kontzeptuen deskribapenak landuko ditu, ez kontzeptuak ezta horien arteko erlazioak ere. Esan bezala, modu inkrementalean egingo du lan, eta horrela, lortutako ordain berriak berrerabiliko dira.

Gure kasu zehatzean, espainierazko zein ingelesezko terminoak euskaratzeko erabiliko badugu ere, algoritmoak edozein hizkuntzatarako balio du, baliabide egokiak izanez gero.

Jatorri-termino bakoitzerako ordain bat edo hainbat sortzen ditu algoritmoak, erabilitako baliabideen arabera. Beti ere, hautagai kopuru minimoa lortzen ahalegintzen da.

Algoritmoak (ikusi 4.1 algoritmoa) lau urrats nagusi ditu oinarrian (urrats hauek 2-5, 6-11, 13-16 eta 17-21 lerro multzoetan banatuta daude) eta algoritmoaren exekuzio bakoitzean sortutako baliabide berriak ItzulDB deituriko datu-basean gordetzen ditugu.

Jarraian, algoritmoaren sasi-kodea aurkezten dugu 4.1 algoritmoan, eta 4.1 irudian honen errepresentazio grafikoa.

4.1 algoritmoa Terminoetatik ordainak lortzeko algoritmoa.

Sarrera: Terminoa
$TERM \rightarrow$ Jatorri-terminoa (sarrera)
$ItzulDB \rightarrow$ Termino-ordain pareen DBa
$NeoTerm \rightarrow$ Termino neoklasikoen sortzailea
$KabiTerm \rightarrow$ Termino habiaratuen sortzailea
$MatxinMed \rightarrow$ Medikuntzara egokitutako Matxin itzultzaile automatikoa
Irteera: Terminoaren ordaina(k)
$ORDAINAK \rightarrow$ Lortutako ordainen zerrenda

hasiera
baldin $TERM \in ItzulDB$ **orduan**
  $ORDAINAK \leftarrow ItzulDBko\ ordaina(k)$
  itzuli $ORDAINAK$
amaiera baldin
baldin $TERM$ termino sinplea bada **orduan**
  $ORDAINAK \leftarrow NeoTerm(TERM)$
  baldin $ORDAINAK$ ez hutsa **orduan**
    $ORDAINAK\ ItzulDB$n gorde
    itzuli $ORDAINAK$
  amaiera baldin
bestela
  $ORDAINAK \leftarrow KabiTerm(TERM)$
  baldin $ORDAINAK$ ez hutsa **orduan**
    $ORDAINAK\ ItzulDB$n gorde
    itzuli $ORDAINAK$
  bestela
    $ORDAINAK \leftarrow$ MatxinMed($TERM$) ▷ Beti sortuko du ordaina◁
    $ORDAINAK\ ItzulDB$n gorde
    itzuli $ORDAINAK$
  amaiera baldin
amaiera baldin
amaiera



4.1 irudia – Algoritmoaren eskema.

Honakoak dira algoritmoaren lau urratsak:

1. **Baliabide lexikaletatik jasotako terminoak**: osasun-zientzien domeinuko hainbat hiztegi elebidunetatik zein eleanitzetatik erauzitako pareak erabiliko ditugu.

   Gure beharretarako, ingelesa-euskara zein espainiera-euskara hiztegi eleanitzak erabiliko ditugu, hala nola, Euskalterm, ZT Hiztegia, eta abar. Termino-ordain pareak ItzulDB datu-basetik jasoko ditugu. Algoritmoa lehen aldiz exekutatu aurretik, baliabide lexikaletako informazioa ItzulDB datu-basean gordeko dugu.

   Adibidez, 4.2 irudian urrats honen adibide bat ikus dezakegu. *Deoxyribonucleic acid* ingelesezko jatorri-terminoarentzat bi ordain jasotzen ditugu hiztegietatik, “azido desoxirribonukleiko” eta “DNA”. Ikus dezakegunez, ZT Hiztegian eta Euskaltermen agertzen dira bi ordainak. Jatorria jasotzeaz gain, datu gehiago sortu eta gordetzen ditugu pare-

katzean, konfiantza maila, kasua, eta abar. Hurrengo atalean aztertuko dugu informazio hori guztia (4.3 atala).

Jatorri-terminoa: *Deoxyribonucleic acid*
Algoritmoaren urratsak: 1-5 (4.1 algoritmoan)
Ordainak: azido desoxirribonukleiko: (ZT Hiztegia, Euskalterm)
DNA: (ZT Hiztegia, Euskalterm)

4.2 irudia – Baliabide lexikalek emandako ordainen adibidea.

2. **Termino neoklasikoak**: urrats honetan termino neoklasikoen afixu semantikoetaz baliatzen gara ordainak sortzeko. Osasun-zientzien alorreko aurrizki, atzizki zein erroen hiztegi elebidun bat baliatzen dugu sorkuntza egiteko. Afixuen hiztegiaz gain, erreferentzia-hizkuntzaren arau ortografiko zein morfofonologikoak deskribatzen dituzten sorkuntza-erregelak ere erabiltzen ditugu ordainak sortzeko, eta hiztegian afixua ez dagoen kasuetarako, transliterazio-erregelak aplikatzen ditugu.

   Urrats honetarako aparteko programa bat sortuko dugu, NeoTerm, zeinak Egoera Finituko Transduktoreak erabiltzen dituen termino neoklasikoen ordainak sortzeko.

   4.3 irudian urrats honen adibide bat erakusten dugu. *Photodermatitis* ingelesezko jatorri-terminoaren euskaratze-prozesua urratsez urrats erakusten dugu. Aurrena, afixu desberdinak identifikatuko ditugu eta beraien ordainak lortuko ditugu. Bukatzeko afixuak elkartuko ditugu erreferentzia-hizkuntzaren ortografia zein morfofonologia arauak betetzen dituztelarik.

Jatorri-terminoa: *Photodermatitis*
Algoritmoaren urratsak: 6-10 (4.1 algoritmoan)
Sorkuntza-prozesua:
Identifikatutako afixuak: photo+dermat+itis
Itzulitako afixuak: foto+dermat+itis
Sortutako ordaina: Fotodermatitis

4.3 irudia – Termino neoklasikoen sorkuntza-erregelekin lortutako ordainen adibidea.

3. **Termino habiaratuak**: termino konplexuetarako (hitz batez baino gehiagoz osatutako terminoak) termino habiaratuetan oinarritutako sorkuntza-erregelak erabiliko ditugu.

   Termino habiaratuak termino baten barruan dauden beste termino batzuk dira. Adibidez, *fracture of elbow* terminoak, bi termino habiaratu ditu: *fracture* eta *elbow*. Kasu honetan, *fracture* terminoa gaixotasun bat da (gaixotasunen hierarkian dago SNOMED CTn) eta *elbow* gorputz egitura bat da. Informazio horretaz baliatuko gara sorkuntza-erregelak idazteko.

   Aparteko programa bat sortuko dugu urrats honetarako ere, KabiTerm, Egoera Finituko Transduktoreak erabiltzen dituena, besteak beste.

   Aurreko adibidearekin jarraituz, 4.4 irudian termino horren euskaratzea erakusten dugu urratsez urrats.

Jatorri-terminoa: *Fracture of elbow*
Algoritmoaren urratsak: 13-16 (4.1 algoritmoan)
Sorkuntza-prozesua:
Identifikatuta egitura: GAIXOTASUN + of + GORPUTZ_EGITURA
Egitura baliokidea: GORPUTZ_EGITURA+ren + GAIXOTASUN
Sortutako ordaina: Ukondoaren haustura

4.4 irudia – Termino habiaratuen sorkuntza-erregelekin lortutako ordainen adibidea.

4. **Itzultzaile automatikoak sortutako termino konplexuak**: azkenekoz, aurreko urratsetan ordainak lortu ez ditugun terminoetarako itzultzaile automatiko bat egokituko dugu.

   Tesi honen garapenerako, Matxin erabilera orokorreko itzultzaile automatikoa erabiliko dugu. Medikuntzaren domeinura egokituko dugu eta MatxinMed deituko diogu egokitzapen honi. MatxinMed gainerako urratsekin sortuko ditugun termino-ordain pare berriekin elikatuko dugu, osasun-zientzien domeinura egokitzeko.

Horrenbestez, EuSnomed sistemaren oinarria den algoritmoa deskribatu dugu. Jarraian, lexikoaren biltegiratzeaz eta sistemaren klase-diagramaren inguruan arituko gara hurrengo atalean.

Jatorri-terminoa: *Lymphoma of lower esophagus*
Algoritmoaren urratsak: 18-20 (4.1 algoritmoan)
Sortutako ordainak: Beheko esofagoko linfoma

4.5 irudia – MatxinMeden bidez lortutako ordainen adibidea.

4.3 Biltegiratzea: TBX

XML (*e**X**tensible **M**arkup **L**anguage*) datuak modu egituratuan antolatzeko aukera ematen duen etiketa-lengoaia bat da. Datuak egituratzeaz gain, horiei esanahia ere emateko aukera eskaintzen du, elementu bakoitzaren etiketaren bidez. Horrela, elementu bakoitzaren egitura moldatu daiteke elementu horrekin erlazionatutako informaziora egokituz. Azken urteetan, estandar asko definitu dira terminologiaren errepresentaziorako, eta XML lengoaiak berebiziko garrantzia izan du horien artean, hala nola, ***X**ML representation of **L**exicons and **T**erminologies* (XLT) (SALT project, 2000), ***L**exical **M**arkup **F**ramework* (LMF) (ISO-24613:2008) (ISO, 2008), ***D**ictionary **M**arkup **L**anguage* (DML) (Mangeot, 2002) edo ***T**erm**B**ase e**X**change* (TBX) (ISO-30042: 2008) (LISA, 2008 eta Melby, 2012).

Gure lanean, TBX estandarrean oinarritu gara, terminologia kudeatzeko zein elkartrukerako abantailak eskaintzen baititu, eta jadanik beste hainbat baliabidetan integratuta baitago (ZT Hiztegia, adibidez).

TBX, XMLen oinarritutako estandar ireki bat da informazio terminologikoa egituratzeko eta kudeatzeko erabiltzen dena. Datu terminologikoak analizatzeko edo modu deskribatzailean adierazteko aukera ematen du, besteak beste, nahiz eta TBXren eginkizun nagusia datu terminologikoak elkartrukatzea izan. TBXk etiketatze-eredu unibertsala eskaintzen duenez, enpresa eta erakunde ezberdinek TBX euren barne datu terminologikoak kudeatzeko erabiltzeaz gain, elkarren arteko truke eta banaketarako ere erabiltzen dute.

TBXk datu terminologikoak datu-kategorien bitartez egituratzen ditu. Datu-base terminologikoetan datu-kategoriak kudeatzeko TBXk bi modulu ezberdin eskaintzen ditu, biak XMLz zehaztuta. Lehenengoak erabiltzaileari oinarrizko egitura zehazten ahalbidetzen dion bitartean, bigarrenak datu-kategorien gaineko murrizketak zehazteko eta identifikatzeko formalismoa eskaintzen du. Lehenetsitako datu-kategoria multzoa eskaintzen du TBX-k, era honetan erabiltzaileak banatzaileei kontsultatu gabe datuak interpretatzeko aukera dauka. Dena dela, TBX formatua malgua da eta erabiltzaile talde

bakoitzak, bere eskakizunak kontuan hartuta, datu-kategoria propioak defini ditzake, haien beharretara egokitutako ***T**erminological **M**arkup **L**anguage*a (TML) definituz.

Gure datu terminologikoak egituratzeko Terminologia Zerbitzurako Online Sistemarako (TZOS) (Arregi *et al.*, 2010) egokitutako TMLaren interpretazio propioa egin dugu gure datu terminologikoak egituratzeko. TZOSek honakoak eskaintzen ditu: i) terminoak jasotzeko ingurunea, ii) jasotako informazioa gordetzeko eta prozesatzeko baliabideak eta iii) kontsultetarako eta elkarrekintzarako interfazea. Hau da, domeinu ezberdinetako terminoak lantzeko eta zabaltzeko zerbitzua eskaintzen du.

Hortaz, jatorrizko formatua ez da TBX hutsa izan, baizik eta TZOS sistemarako egokitutako formatua. Biltegiratu beharreko informazioa desberdina izanik, SNOMED CTren errepresentaziorako formatuaren egokitzapen bat egin dugu eta ItzulDBrako beste bat. Horrela, bi datu-base ditugu XMLz: SNOMED CTrena eta termino-ordain pareena (*ItzulDB*). Jarraian, bi datu-baseen formatuen egokitzapenak azalduko ditugu.

4.3.1 SNOMED CTrako TBX formatua

Atal honetan, TBX formatuan bertan adierazi eta gorde beharreko informazioa identifikatu eta kodetzeko hartutako irizpideen berri emango dugu.

Aurretik esan bezala, SNOMED CTren eduki terminologikoa gordetzeko formatua da hemen aurkezten duguna, eta ordain berriak lortu ahala, SNOMED CTren datu-base honetan gordeko ditugu ere. Kasu honetan, ingelesezko zein espainierazko SNOMED CTren bertsioetako eduki terminologikoa gorde dugu, baita lortzen ditugun euskarazko ordainak ere.

Hurrengo lerroetan XML dokumentuaren gorputzaren datu-kategoriak eta beharrezko informazioa kategoria horietan nola kodetzen dugun deskribatuko dugu.

Kontzeptu maila

Kontzeptu mailan, kontzeptuen informazioa eta dagozkien termino zein ordainak sailkatzen ditugu. Kontzeptua goiko elementua da, `termEntry` elementu moduan adierazten duguna eta kontzeptua identifikatzeko SNOMED CTren identifikadorea erabiltzen dugu. 4.6 irudian erakusten dugun adibidean, kontzeptuaren identifikadorea c292044008 da.



4.6 irudia – Kontzeptu baten zuhaitz-egitura.

Jarraian kontzeptu mailan erabiliko ditugun datu-kategoriak azalduko ditugu elementuen arabera sailkatuta. Azalpena ongi jarraitzeko, 4.6 irudiari begiratzea gomendatzen dugu. Datu-kategoriak XMLko elementuen `type` atributu gisa erabiltzen dira.

- `descrip` elementuaren datu-kategoriak `termEntry` barnean:
  - *subjectField*: SNOMED CTren kontzeptuaren hierarkia eta kategoria semantikoa (*semantic tag*) adierazteko erabiliko dugu. Hierarkia horiek adierazteko kode-baliokidetza batzuk definitu ditugu. 4.6 irudiko balioak (010 eta 011) aurkikuntzen eta gaixotasunen (*Clinical Finding/disorder*) hierarkiari eta gaixotasunen (*"disorder"*) kategoria semantikoari dagozkie.
  - *definition*: kontzeptua bera deskribatu eta ulergarri egiten duen adierazpena gordetzeko erabiliko dugu, antzeko kontzeptuetatik bereizteko balioko duena. Horretarako, SNOMED CTren *Fully Specified Name* (FSN) erabiliko dugu, gure kasuan ingeleseko bertsioarena, jatorrizko eta erreferentziazko hizkuntza hori baita. Adibidean, *Aspirin adverse reaction (disorder)*.

- `transacGrp` (transakzioaren informazioa) elementuaren azpi-elementua (hau ez da irudian agertzen):
  - `date`: kontzeptuan azken aldiz aldaketak egindako data gordeko du.

Azkenik, hizkuntza bakoitzaren termino desberdinak gordetzeko elementuak izango ditugu `langSet` elementu moduan definiturik. Elementu honen *lang* atributuaren bitartez terminoen hizkuntza definituko da: euskara, ingelesa edo espainiera. Elementu horien edukia hurrengo atalean aztertuko dugu (4.3.1 atala).

Termino maila: jatorri-terminoak

Aurretik azaldu bezala, terminoak hizkuntzaren arabera multzokatuko ditugu, `langSet` elementuaren bitartez. SNOMED CTren itzulpenerako bi motatako terminoak bereiziko ditugu: alde batetik jatorri-terminoak, gure kasuan SNOMED CTtik zuzenean ekarritako ingelesezko eta espainierazko terminoak; eta bestetik, euskarazko ordainak. Termino mota bakoitzerako informazio desberdina beharko dugunez, bereizirik azalduko ditugu hurrengo ataletan.

Esan bezala, jatorri-terminoak SNOMED CTtik zuzenean inportaturiko ingelesezko zein espainierazko terminoak dira. Termino horiek aldaketarik izango ez dutenez, gordeko dugun informazioa SNOMED CTrekin zuzenki lotuta dago.

Termino bakoitza `ntig` (*nesting term information group*) elementuaren bitartez gordeko da eta identifikadoretzat hizkuntzaren ISO 639-1 gakoa ("en" ingeleserako edo "es" espainierarako) eta SNOMED CT deskribapenaren identifikadorea erabiliko ditugu elkarrekin bilduta. 4.7 irudiko adibidean, terminoaren identifikadorea en432156011 da.

Termino bakoitzaren informazioa gordetzeko, hurrengo elementu eta datu-kategoriak erabiliko ditugu (jarraitu azalpena 4.7 irudiarekin):

- `termGrp` elementuan multzokatuta:
  - `term`: terminoa bera gordetzeko elementua izango da. 4.7 irudiko adibidearen kasuan *aspirin adverse reaction* da elementu honen edukia.



4.7 irudia – Jatorri-termino baten zuhaitz-egitura.

- `termNote` elementuaren datu-kategoria:
  - *administrativeStatus*: terminoak SNOMED CTn daukan onarpen-maila adieraziko da. Hau da, hobetsitako terminoa edo onartutakoa den, edo adituek baztertu duten adieraziko da. Adibidearen kasuan (4.7 irudia), hobetsitako terminoa denez (*Preferred Term*), "preferredTerm-admn-sts" izango da datu-kategoria honen balioa.
  - *usageNote*: terminoaren letra larri/xehe aldakortasuna adieraziko du. Hiru aukera posible jasotzen ditu: *InitialInsensitive* lehen letra aldagarria denean, *Insensitive* letra guztiak aldagarriak direnean eta *Sensitive* letra guztiak aldaezinak direnean.

- `admin` elementuaren datu-kategoriak:
  - *sortKey*: Terminoaren balio normalizatua agertuko da, hau da, terminoaren forma letra xehez eta alfanumerikoak ez diren karaktereak kenduta (hala nola gidoiak eta komak). Espainieraren kasuan diakritikoak ere kentzen zaizkio. 4.7 irudiko adibidean *aspirin adverse reaction* da elementu honen balioa.

Termino maila: ordainak

Atal honetan, SNOMED CTren euskarazko bertsioaren sortze-bidean lortuko ditugun euskal ordainak adierazteko erabiliko dugun informazioaren egituratzea azalduko dugu. Esan bezala, beste edozein hizkuntzetarako ere balio dezake egituratze honek.



4.8 irudia – Euskal ordain baten zuhaitz-egitura.

Jatorrizko terminoetan gordeko den informazioaz gain, beste hainbat datu ere beharko ditugu ordainetan. Dagoeneko azaldutako elementu eta datu-kategoriei honakoak gehitu dizkiegu (erabili bedi 4.8 irudiko egitura azalpenak hobeto ulertzeko):

- `termGrp` elementuan multzokatuta:
  - `termNote` elementuaren *partOfSpeech* datu-kategoria: ordainaren

kategoria gramatikala gordeko da hemen, hala nola izena, adjektiboa edo aditza den.

- `admin` elementuaren datu-kategoria gehigarriak:
  - *entrySource*: ordaina lortzeko erabili den modua adieraziko duen kodea da. 4.8 irudian "termino habiaratuen sorkuntza-erregelei" egiten die erreferentzia (102 kodea).
  - *conceptOrigin*: ordaina sortzeko erabili den terminoaren identifikadorea gordeko da hemen. Identifikadore hori jatorri-terminoaren `ntig` elementuaren identifikadorea da. Adibidean, 4.7 irudiko ingelesezko jatorri-terminoari egiten dio erreferentzia (en432156011). Jatorri-termino bat baino gehiago egon den kasuetan, horiek guztiak jasotzen dira.
  - *originatingDatabase*: termino habiaratuen sorkuntza-erregelen bitartez sortzen denean terminoa, datu-kategoria honetan erabilitako erregelaren kodea gordeko da.
- `descrip` elementuaren datu-kategoria:
  - *reliabilityCode*: sortutako ordain bakoitzari konfiantza maila bat esleituko diogu. Zenbaki hori jatorriaren araberakoa izango da, eta zenbat eta baliabide gehiagotatik sortu, konfiantza maila orduan eta altuagoa izango da. Adibidez, Euskaltermi eta ZT Hiztegiari konfiantza maila altuena emango diegu, erreferentziazko baliabide lexikalak baitira horiek, eta automatikoki sortutako terminoei konfiantza maila baxuagoa.

A eranskinean, atal honetan irudien bidez erakutsitako adibideen XML kodea erakusten dugu.

4.3.2 Itzulpen-pareen datu-baserako TBX formatua

Termino-ordain pareen datu-basea (ItzulDB) egituratzeko, deskribatu berri dugun TBX formatuaren bertsio sinpleagoa erabiliko dugu. Parekatzea jatorri-hizkuntzaren termino bakoitzerako egingo dugu, adibidez, ingeleseko termino bat eta berari dagozkion ordainak biltegiratu ditugu ItzulDBn. Hala ere, ez ditugu jatorri-hizkuntzako sinonimoak multzokatu, bilaketek gako bakarra izateko, eta horrela, bilaketa azkarragoa eta sinpleagoa izan dadin.



4.9 irudia – Euskal ordain baten zuhaitz-egitura.

Parekatze bakoitza `termEntry` elementu baten barruan gordeko da. Identifikadorea *p* letraz hasiko da eta jarraian zenbaki bat izango du, parekatze bakoitzerako inkrementatuko dena (p26435, adibidez). 4.9 irudian ItzulDBko

parekatze baten adibidea ikus daiteke.

Terminoak adierazteko aldiz, `langSet` elementuaren barruko `tig` (*term information group*) elementuak erabiliko ditugu. `tig` elementuak `ntig` elementuen antzekoak izango dira, baina sinpleagoak. `tig` elementuak identifikatzeko parekatzeen estrategia berdina erabiliko dugu, baina t letra erabiliz hasieran (t13, adibidez).

Jatorri-terminoen kasuan, terminoa eta bere termino normalizatua gordeko ditugu, `term` elementua eta *sortKey* datu-kategoria erabiliaz. Ordainetan aldiz, informazio gehigarria gordeko dugu, hala nola, *partOfSpeech* datu-kategoriaren bitartez kategoria gramatikala, *entrySource*ren bitartez iturburua(k), *usageNote* erabiliz letra larri/xehe aldakortasuna eta *reliabilityCode*rekin ordain horren konfiantza maila.

4.4 Klase-diagrama

Atal honetan sistema garatzeko diseinatu dugun klase-diagrama azalduko dugu laburki.

EuSnomed sistemak aurreko ataletan azaldutako XML dokumentuetatik jasoko du informazioa eta horietan egiten ditu emaitzen idazketak. Hori horrela izanik, klase-diagrama TBX dokumentuen objektuetan oinarritu dugu. Objektuen bitartez XML dokumentu horietako informazioa jaso eta moldatuko dugu.

Klase-diagramaren diseinua 4.10 irudian ikus daiteke. Bertan ItzulDB kudeatzeko klaseak eskemaren goiko ezker aldean kokatu ditugu, eta gainontzekoak SNOMED CT kudeatzeko klaseak dira.

Klase bakoitzaren funtzio nagusia azalduko dugu jarraian:

- `ItzulDB`: ItzulDB bera kudeatzeko klasea da. Besteak beste, hiztegi bakoitzaren formatua kontuan hartuta, parekatzeak erauziko ditu ItzulDB beraiekin hasieratzeko.

- `ItzulDBOrdain`: ItzulDBren ordainen informazioa prestatzeko klasea da. TBX formatura pasa aurretik erabiliko da.

- `ItzulDBTBX`: ItzulDBren XML dokumentua kudeatzeko klasea da. Parekatze baten bilaketa, parekatze berria gehitzea edota ItzulDB objektutik jasotako informaziotik XML dokumentua sortzea izango dira klase honen ataza nagusiak.



4.10 irudia – Aplikazioaren diseinurako klase-diagrama definitiboa.

- `TBX`: Klase honek `ntig` edo `tig` elementu bat kapsulatuko du. Bi elementu horiek, identifikadorearen kokapena eta termino normalizatuarena izango dute komunean kasu guztietan (ItzulDB zein SNOMED CT eta termino zein ordain). Hortaz, klase honek bi datu horiek lortzeko metodoak eskainiko ditu.

- `TerminoTBXSnomed`: SNOMED CTren jatorri-terminoen gaineko informazioa eskuratzeaz arduratuko da.

- `OrdainTBX`: TBX formatuan ordainek duten informazio komuna atzituko du, iturburua, konfiantza maila edo jatorri-terminoaren identifikadorea, besteak beste.

- `OrdainTBXSnomed`: SNOMED CTren ordainen gaineko informazioa eskuratzeaz arduratuko da.

- `OrdainTBXItzulDB`: ItzulDBren ordainen gaineko informazioa eskuratzeaz arduratuko da.

- `KontzeptuTBX`: SNOMED CTren kontzeptuei loturiko informazioa eskuratzeaz gain, ordain berriak TBX dokumentuan txertatzeaz arduratuko da klase hau.

- `SnomedTBX`: SNOMED CTren XML dokumentuak kudeatuko ditu. Besteak beste, fitxategiak sortu eta gorde. Kontzeptuak, terminoak eta ordainak kudeatzeko klaseetara lotura egitea ahalbidetuko duen klasea ere bada.

- `Snomed`: SNOMED CTren kudeaketaz arduratuko da, XML dokumentua ikusezina eginez, eta horrela kodetzea erraztuaz. Horretaz gain, bi eginkizun nagusi izango ditu: SNOMED CTren jatorrizko fitxategietatik eduki terminologikoa eta egitura hierarkikoa erauzteko objektuei deitzea eta GNS10 eta SNOMED CTren arteko mapaketa egitea.

- `RelationshipList`: SNOMED CTren erlazioen fitxategitik erlazioak jaso, eta kontzeptuak modu hierarkikoan sailkatuko ditu erlazio horren arabera.

- `Relationship`: erlazio bakoitzaren informazioa kapsulatuko du.

- `ConceptList`: SNOMED CTren kontzeptuen fitxategitik informazioa jasoko du. Kontzeptuen harremanen inguruko informazioa kudeatzeaz ere arduratuko da.
- `Concept`: kontzeptu bakoitzaren informazioa kapsulatzen du eta erlazio zein deskribapenekin loturak kudeatuko ditu.
- `DescriptionList`: SNOMED CTren deskribapenen fitxategitik deskribapenen informazioa jasoko du eta kontzeptuen informazioa osatzeaz arduratuko da. Adibidez, *Fully Specified Name*-ak identifikatu eta dagokion kontzeptuari gehituko dio.
- `Description`: deskribapen bakoitzaren informazioa kapsulatuko du.

4.5 Laburpena eta ondorioak

Kapitulu honetan, garatu dugun EuSnomed sistema aurkeztu dugu. Sistema horrek SNOMED CT medikuntzako sare semantikoa euskaratzea du helburu, nahiz eta modu errazean egokitu daitekeen beste hizkuntza batzuetarako.

SNOMED CTren deskribapenak euskaratzeko, lau urratsetako algoritmoa diseinatu dugu. Lehenengo urratsak baliabide lexikal espezializatu eta elebidun/eleanitzak erabiltzen ditu ordainak lortzeko. Bigarrenak, termino neoklasikoak euskaratzen ditu, afixuen baliokideen eta transliterazioaren bidez. Hirugarren urratsak, termino konplexuen egitura habiaratuan oinarritzen da (termino bat beste baten barruan) ordainak sortzeko patroiak definitzeko. Azkenik, laugarren urratsean, itzultzaile automatiko orokor bat egokitzen da termino konplexuen ordainak lortzeko.

EuSnomed sistemak, SNOMED CTren eduki terminologia erabiltzeaz gain, sortutako baliabideak (termino-ordain pareak) berrerabiliko ditu. Hori horrela izanik, baliabide guztiak biltegiratzeko XMLn oinarritzen den formalismo estandar bat egokitu dugu: TBX. Formalismo horren bitartez, euskaratze prozesuan beharrezkoa izango den informazio guztia modu egituratuan eta ulergarrian biltegiratuko dugu.

Bukatzeko, EuSnomed sistemaren klase-diagrama aurkeztu dugu. Klase-diagrama, biltegiratze-eskeman oinarritu dugu, bertatik jasoko baita euskaratze prozesuaz arduratzen den algoritmoak beharrezko informazioa.

5

Termino sinpleak: Baliabide lexikalak eta termino neoklasikoak

Kapitulu honetan termino sinpleak (hitz bakarreko terminoak) euskaratzeko erabilitako teknikak aurkeztuko ditugu. Alde batetik, SNOMED CTren terminoen ordainak eskura genituen baliabide lexikalak erabiliz (hiztegiak) bilatu ditugu. Beste aldetik, termino neoklasikoak euskaratzeko sistema bat garatu dugu, NeoTerm. Sistema horretarako, termino neoklasikoen afixuen lexikoi elebiduna eta transliterazio erregela multzoa sortu ditugu. Informazio hori transduktoreen teknologia erabiliz konbinatu dugu, eta, horiek baliatuz, termino neoklasikoen euskaratzea bideratu dugu, euskararen arau morfofonologikoak eta ortografikoak errespetatuz.

Jarraian, erabilgarri genituen baliabide lexikalak aurkeztuko ditugu 5.1 atalean; bigarrenik, termino neoklasikoen sorkuntzarako prestatutako sistema azalduko dugu 5.2 atalean; ostean, 5.3 eta 5.4 ataletan, sistemen ebaluazioaren diseinua eta izandako emaitzak aztertuko ditugu; eta bukatzeko, 5.5 atalean, atera ditugun ondorioak eta kapituluaren laburpena aurkeztuko ditugu.

5.1 Baliabide lexikalen eta SNOMED CTren arteko parekatzea

Atal honetan 4. kapituluan definitutako algoritmoaren lehen urratsa azalduko dugu sakonki, dagoeneko sortuta dauden baliabide lexikalen erabilera,

hain zuzen ere. Urrats horretarako erabilitako baliabideen aurkezpena egingo dugu 5.1.1 atalean. Jarraian, 5.1.2 atalean baliabide horien gainean egindako aurre-prozesaketari buruz arituko gara. Bukatzeko, parekatze prozesua azalduko dugu 5.1.3 atalean.

Balibaide lexikalak ustiatzeko motibazio nagusia termino sinpleen euskaratzea izan bada ere, termino konplexu batzuk ere euskaratu ditugu urrats honetan, hiztegietan agertzen direnak, alegia.

5.1.1 Aurrekariak

Terminoak sortzeko algoritmoaren lehen urratserako, osasun-zientziaren domeinuan eskura ditugun euskarazko baliabide lexikal elebidunak bildu ditugu. Hurrengo lerroetan baliabide horiek zerrendatu ditugu:

- **Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoa (ZT Hiztegia)** (Elhuyar, 2009): izenak dioen bezala, zientzia eta teknologiaren hiztegi bat da hau, Elhuyar Fundazioak garatua. Hiztegiaren izateko arrazoia zientzia eta teknologiari buruzko erreferentzia-informazio fidagarri, landu eta eguneratua eskaintzea da, modu zehatz, argi eta ulergarrian, eta erabiltzaile-multzo zabala gogoan hartuta. Besteak beste, medikuntzako, biokimikako, biologiako, anatomiako eta psikiatriako alorrak aurki daitezke. Euskara, espainiera, ingelesa eta frantsesa barnebiltzen ditu hiztegiak.

- **Euskalterm** (UZEI, 2004): Euskarazko Terminologia Banku Publikoa da, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duena. UZEIk Euskalterm 1986an sortu zuen ordura arte zituen hiztegi terminologikoak bateratuz. Hiztegi berriak integratuz doa orduz geroztik eta Hiztegi Batuko arau berriekin ere eguneratzen du bankua. Euskara, espainiera, ingelesa eta frantsesaz gain, latineko zein alemanierako sarrera batzuk ere baditu.

- **Giza Anatomiako Atlasa** (UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua, 2014): giza anatomiako erreferentziazko *"Master" Atlas de Anatomia* testuliburuaren euskarazko itzulpena da. UPV/EHUk Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz argitaratu zuen 2014an eta bertan giza gorputza bere osotasunean azaltzen da.

- **Erizaintzako Hiztegia** (EHUko Euskara Zerbitzua eta Donostiako Erizaintza Eskola, 2005): EHUko Euskara Zerbitzuak eta Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskolak argitaraturiko hiztegi honetan,

erizaintzan erabiltzen diren hainbat termino aurki daitezke. Bertan euskarazko definizioekin osatutako hiztegiaz gain, espainiera-euskara, ingelesa-euskara eta frantsesa-euskara hiztegi elebidunak daude.

- **Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren 10. bertsioa (GNS10)** (World Health Organization *et al.*, 1996): Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena gaixotasunak sailkatzeko irizpideak eskaintzen dituen Munduko Osasun Erakundeak sortutako nazioarteko sailkapena da. Irizpide horien bitartez, gaixotasunei kode estandar bat edo gehiago esleitzeko aukera ematen zaie, hizkuntza eta herrialde guztietan berdina izango dena. GNS10ek ***I**nternational Statistical **C**lassification of **D**iseases and Related Health Problems* jatorrizko ingelesezko izena dauka eta 10. bertsioa da (ICD10) gaur egun indarrean dagoena. ***W**orld **H**ealth **O**rganization* (WHO) erakundeak banatu zuen azken berrikuspena 1992 urtean. Euskal Herrian UZEIk euskaratu zuen eta 1996an argitaratu zuen Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiak.

- **Administrazio Sanitarioko Oinarrizko Hiztegia** (Osakidetza, Euskadiko Osasun Saila eta UZEI, 1999): hiztegi txiki honek administrazio sanitarioan erabiltzen diren terminoak barnebiltzen ditu espainiera-euskara hizkuntza parerako. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak, UZEI eta Osakidetzarekin batera argitaratu zuen 1999 urtean.

- **Elhuyar Hiztegia** (Elhuyar, 2007a, b): erreferentziazko hiztegi orokor eleanitza da Elhuyar Hiztegia. Euskara-espainiera, euskara-ingelesa zein euskara-frantsesa hizkuntza pareak eskaintzen ditu. Ez du terminologia espezializatua barnebiltzen.

Atal honetan aurkeztutako baliabide lexikalen laburpena erakusten dugu 5.1 taulan, hiztegi espezializatuak diren eta eskaintzen diren hizkuntza-pareak erakutsiz.

Ikus dezakegunez, euskararen eta ingelesaren, espainieraren eta frantsesaren arteko parekatzeak ditugu hiztegietan eskuragarri. Gaur egunean, SNOMED CT ingelesez zein espainieraz eskuragarri dago beste hizkuntzen artean, baina frantsesezko bertsioa ez dago bukatuta. Hori horrela izanik, ingelesa-euskara eta espainiera-euskara pareetako baliabideak erabiliko ditugu.

Baliabide lexikala	Espe.	en-eu	es-eu	fr-eu
ZT Hiztegia	✗	✗	✗	✗
Euskalterm	✗	✗	✗	✗
Giza Anatomiako Atlasa	✗	✗	✗	✗
Erizaintzako Hiztegia	✗	✗	✗	✗
GNS10	✗	✗	✗	✗
Administrazio Sanitarioko Hiztegia	✗	✗		
Elhuyar		✗	✗	✗

5.1 taula – Baliabide lexikoen laburpena. "Espe." zutabean hiztegi espezializatua den adierazten dugu.

Aipatutako baliabideez gain, SNOMED CTren banaketa ofizialaz arduratzen den SNOMED International erakundeak[1], SNOMED CTren eta GSN10-aren arteko mapaketa banatzen du (IHTSDO, 2012). Mapaketa erdi-automatiko hori *World Health Organization* erakundeak (WHO, GNSren sortzailea) eta SNOMED International erakundeak balioztatua izan da. Mapaketaren helburua SNOMED CTren kontzeptu bakoitzari GNS10en espazio semantikoan tokirik aproposena esleitzea da, GNS10 kode bat esleituz. Horrela, SNOMED CTren kontzeptuaren eta GNS10en kodearen/kodeen arteko estekа sortzen da. GNS10en euskarazko bertsioa izatean, mapaketa horri esker, bertan agertzen diren kontzeptuen euskarazko ordain zuzenak lor ditzakegu.

GNS10 sailkapenak eta SNOMED CTk oso egitura ezberdina daukate. Azken finean, bata gaixotasunen sailkapena izatera mugatzen den bitartean, besteak ontologia batek eman dezakeen sakontasuna barnebiltzen du, osasun-zientzien arloko kontzeptu ezberdinak era hierarkikoan sailkatuz. Garrantzitsua da mapaketaren norantza aipatzea: SNOMED CTren kontzeptuen GNS10 kode baliokideak ematen ditu.

Denera 19.293 SNOMED CT kontzeptu daude parekatuta eta bakoitzerako gehienez 19 GNS10 kode esleitu dira. Hala ere, kasu gehienetan SNOMED CT kontzeptu bakoitzari GNS10 kode bat, bi edo hiru esleitu zaizkio. Mapaketan parte hartzen duten kontzeptuetarako denera 27.167 parekatze definitu dira. Kontzeptu gehienak nahasmenduak dira (23.393 parekatze), baina aurkikuntzak (3.171), gertaerak (184) eta egoerak (413) ere agertzen dira. Azalpena ulergarriago egiteko, hemendik aurrera, mapaketa hitza mapake-

[1]Orain gutxi arte, International Health Terminology Standards Development Organisation (IHTSDO) zeritzon.

ta osoari erreferentzia egiteko erabiliko dugu, eta parekatze hitza kontzeptu bakoitzarena adierazteko.

5.1.2 Aurre-prozesaketa

Hiztegiak, erabili ahal izateko, prestatu edo aurre-prozesatu behar izan ditugu. Adibidez, gure lanetarako testu hutsean (formatu, kolore eta marka berezirik gabe) behar ditugu hiztegiak.

Erizaintzako Hiztegiaren eta Administrazio Sanitarioko Oinarrizko Hiztegiaren kasuan PDF formatuan bakarrik daude eskuragarri, eta, bi zutabetan egituratuta egonik, horien testu formaturako (.txt) itzulpena ez da bat-batekoa izan. Formatu aldaketa horretarako jatorrizko formatua zatikatu egin dugu, eta ostean *Calibre* izeneko aplikazioak eskaintzen duen formatuen aldaketarako tresna erabili dugu. Tresna horrek adierazpen erregularren erabilera ahalbidetzen duenez, hiztegiak testu hutsezko formatura itzultzea posible egin digu.

Dena dela, nahiz eta hiztegi guztiek testu hutsezko formatua izan, hiztegien egitura bata bestetik oso ezberdina da. Hala, hiztegi batzuk termino sarrera bakoitza letra larriz idazten dute, honek berezkoa izan ala ez. Beste batzuk aldiz, letra larriak berezkoak direnean bakarrik erabiltzen dituzte, entitateak edota laburdurak adierazteko, adibidez. Irizpide ezberdin horiek ItzulDB (baliabide lexikal eleanitzak biltegiratzen dituen datu-basea) aberastea zaildu egiten dute, termino berdinaren bi idazketa ezberdin genituelako kasu askotan. Horri aurre egiteko, ItzulDBn terminoak minuskulaz datu-baseratu ditugu. Nahiz eta horrela entitateen berezitasunak galtzen ditugun, erredundantzia ekiditen dugu eta bide batez, baliabideen optimizazioa ere lortzen dugu.

Honetaz gain, euskarazko GNS10aren kasuan terminoak mugagabean agertu beharrean, mugatuan aurkitu ditugu. Kasu horietarako, zaila egin zaigu *a* itsatsia duten terminoak diren erabakitzea. Hortaz, gainerako hiztegiekin alderatu ditugu euskarazko ordainak, eta mugatuaren *a* gabe agertzen badira, forma mugagabea eman diegu; gainerako kasuetan, *a* itsatsia duela suposatu dugu eta bere horretan utzi ditugu.

GNS10aren ingelesezko bertsioari dagokionean, euskarazko bertsioarekin batera eskuragarri dagoenari hainbat termino falta zaizkio. Sarean eskuragarri dauden beste GNS10 fitxategiak aztertu ditugu eta bere terminoen egitura ez dator guk dugun GNS10aren terminoen egiturarekin bat. Terminoen osaeran aurkitu ditugu arazo handienak, terminoak adierazteko beste

formatu edo modu bat erabiltzen baitute. Aurretik aipatu dugun SNOMED CT eta GNS10aren arteko mapaketan, ingelesezko GNS10aren ingelesezko terminoak ere agertzen direnez, eta horien egitura gure ingelesezko GNS10 bertsioaren oso antzekoa denez, berauek erabili ditugu ingelesezko GNS10 elikatzeko. Horrela, ia 500 parekatze gehiago erabilgarri izan ditugu ItzulDB elikatzeko.

Gainerakoan, hainbat ataza txiki zein garrantzitsu egin ditugu hiztegietan, beharrezko informazioa modu egokian jaso ahal izateko:

- Interesatzen zaizkigun alorrak bakarrik erabili ditugu (ZT Hiztegian eta Euskaltermen, adibidez). Besteak beste, medikuntza, biokimika, anatomia, biologia, arnas aparatua, psikologia, eta abar.

- Metadatuak kendu ditugu fitxategi zein termino mailan. Hau da, espainierazko generoari buruzko informazioa, euskarazko deklinabide marka batzuk, eta tankera horretako informazioa kendu dugu. Adibidez, Elhuyar hiztegian *authority* ingelesezko terminoarentzat, euskarazko honako ordaina ematen du, besteak beste: agintari(ak). Kasu horretan, parentesi artean dagoen *ak* hori kendu dugu, "agintari" ordaina utzita.

- Bikoizketak ekidin ditugu eta sinonimoak erauzi ditugu. Hau da, hiztegien eduki guztia bateratu dugu, bikoiztutako sarrerak kenduta, eta hiztegiek emandako ordainak sinonimoetan gehituta. Adibidez, 5.2 taulan, *leprosy* terminoaren hiztegian aurkitu ditugun hiru ordainak ikus ditzakegu, ZT Hiztegian eta Erizaintzako Hiztegian agertzen direnak. Adibide horretan, hiru ordainak jasotzen ditugu *leprosy*ren ordain gisa, baina bikoiztu gabe.

Ordaina	**ZT Hiztegian**	**Erizaintzako Hiztegian**
legen beltz		✓
legen	✓	✓
legenar	✓	✓

5.2 taula – *Leprosy* terminoaren ordainak hiztegietan.

- Zegokion kasuetan kategoria gramatikala jaso dugu, nahiz eta hiztegi gutxi batzuek duten kategoria gramatikala modu sistematikoan adiera-

zita. Adibidez, Elhuyar Hiztegiak "n." erabiltzen du izenak etiketatzeko, "adj." adjektiboetarako (izenondo edo izenlagun bereizi gabe), eta abar.

Aurre-prozesaketaren ondorioz, 5.3 taulan erakusten ditugun ordain kopuruak dira ItzulDBn datu-baseratu ditugunak. Ikus dezakegunez, Euskalterm da terminoen ikuspegitik ordain gehien eskaintzen digun baliabidea. Nahiz eta Elhuyar Hiztegi orokorrak espainiera-euskara parerako dituen sarrerak beste guztien baturaren pare egon, Elhuyar Hiztegiak, orokorra izanik, ez ditu termino espezializatuak barnebiltzen, eta hortaz, osasun-zientzien domeinurako parekatze baliagarriak askoz gutxiago izango direla aurreikus dezakegu.

Baliabide lexikala	**Ingelesa**	**Espainiera**
ZT Hiztegia	9.621	13.568
Euskalterm	37.137	31.535
Giza Anatomiako Atlasa	5.644	6.042
Erizaintzako Hiztegia	5.348	6.183
GNS10	7.057	9.172
Administrazio Sanitarioko Hiztegia	-	1.799
Elhuyar	30.463	90.507
Ordainak denera	**96.138**	**158.806**

5.3 taula – Baliabide lexikoen tamaina.

5.1.3 Hiztegien parekatzea

Algoritmoaren urrats honetan, ingelesezko zein espainierazko baliabideak SNOMED CTren terminoekin parekatu ditugu. Hau da, SNOMED CTren bi bertsioak erabili ditugu kontzeptuen euskarazko ordainak lortzeko. Aurrena, hiztegi espezializatuak erabili ditugu euskarazko ordainak lortzeko, ZT Hiztegia, Euskalterm, eta abar. Ordainak lortu ez diren terminoetarako, Elhuyar Hiztegi orokorra erabili dugu. Izan ere, Elhuyar Hiztegiak sinonimo asko ematen ditu baina orokorregiak kasu askotan. Murriztapenari esker, bakarrik hutsuneak betetzeko erabiltzen dugu Elhuyar, eta gainsorkuntza hein batean kontrolatzen dugu. Adibidez, *scar* terminorako lau ordain jaso ditugu Euskaltermetik: zikatriz, orbain, arrasto eta inpresio; baina Elhuyarreko

ordain gehigarriak ez ditugu jaso: ebakiondo, marka eta aztarna. Ikusten dugunez, Elhuyar zuzenean gehituko bagenu, zazpi ordain izango genituzke *scar* terminorako.

Jarraian, hiztegien parekatze-prozesuan hartutako erabaki nagusiak zerrendatzen ditugu.

- Aurretik aipatu bezala, lortutako zein sortutako parekatze guztiak ItzulDBn gordetzen ditugu, SNOMED CTrekin parekatu ahal izateko informazio bateratu zein egituratuarekin. Horrela, ItzulDBn parekatzeak bilatzeko, SNOMED CTren terminoak ere letra xehez gorde ditugu. Izan ere, aurreko atalean azaldu bezala, hiztegietan letra larri eta xeheen arteko erabilera ez da koherentea, eta zenbaitetan arazoak sortzen dizkigu. Hau da, ItzulDBn termino zein ordainak letra xehez gorde ditugu. Hala ere, SNOMED CTren deskribapenek, letra larri eta xehen inguruko informazioa ematen digute, eta letra xehetara pasatzeko muga adierazita duten kasuetan, ez ditugu aldatu. Adibidez, *Down syndrome* terminoak, letra larri eta xeheak bere horretan mantendu behar direla adierazita duenez, bere horretan gelditu da. Hala ere, ItzulDBn denak letra xehez daudenez, kasu horietan, SNOMED CTko terminoa letra xehetara pasatzen dugu bilaketa egiteko.

- Kasu batzuetan parekatzea ez da bat-batekoa izan. Izan ere, SNOMED CTren hainbat termino pluralean agertzen dira, eta espainierazko kasuan genero femeninoan ere ager daitezke. Kasu horietan, SNOMED CTren terminoak ItzulDBn agertzen ez badira, eta terminoen forma pluralean edota femeninoan badago, bere forma kanonikora pasata (singularra eta maskulinoa) egin dugu parekatzea. Euskaraz normalean generoan bereizketarik egiten ez denez, jatorrizko terminoan genero aldaketek ez dute ordainengan eraginik izango; bai, ordea, numeroaren kasuan. Jatorrian pluralean dauden terminoen forma singularra bilatzean, ordainak singularrean jasotzen ditugu, eta hortaz, ordain horiek pluralera pasatzen ditugu, parekatzea ondo egon dadin. Adibidez, SNOMED CTn *meninges* terminoa agertzen da, pluralean (bai espainieraz, bai ingelesez), baina hiztegietan ditugun sarreretan *meninge* (espainieraz) edo *meninx* (ingelesez) agertzen dira, singularrean. Zuzeneko parekatzea posible ez den arren, SNOMED CTren terminoa singularrera pasata, parekatzea hiztegietan lortzen badugu, euskarazko ordainei forma plurala ematen diegu jatorrizkoarekin bat etor dadin.

- Parekatzearekin bukatzeko, kategoria gramatikala ere jaso behar dugu. Informazio hori, termino habiaratuen sorkuntzarako garrantzitsua da, aurrerago ikusiko dugun bezala. Hala ere, kasu gramatikala oso sarrera gutxietan dator esplizituki jasota. Kasu gramatikalik ez daukaten ordainetarako, terminoen izaeran izenak izatea denez ohikoena, izen kategoria eman diegu hobetsita. Salbuespena, kalifikatzaileen hierarkiarekin (*"Qualifier value"*) egin dugu, eta izenlagun edo izenondo kategoria esleitu diogu ordain bakoitzari, kasuan kasu. Adibidez, *fifth*, *chronic* edo *yellow* SNOMED CTren kalifikatzaileak dira. Ingelesez, zein espainieraz adjektibo kategoria identifikatzearekin nahikoa den arren, euskaraz ez zaigu nahikoa gure interesetarako. Izan ere, izenlagun edo izenondo izan, sintagma barruko hitzen hurrenkeran eragina dauka, eta hain zuzen ere, hurrengo kapituluan ikusiko dugun moduan, hori da termino habiaratuen sorkuntzan behar dugun informazioa. Ordain bat izenlagun edo izenondo den erabakitzeko, atzizkia hartu dugu kontuan. Hobetsitako kategoria izenondoa da, eta "-ko" edo "-(r)en" atzizkia duten kasuetan izenlagun kategoria ematen diegu, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren definizioari jarraiki[2].

Aurreko kapituluan aurkeztutako algoritmoak (4.2 atala) sarrera gisa termino bat jasotzen du eta horren ordainak ematen ditu irteeran. Lehen azpimarratu bezala, termino mailan lan egiten du. Hala ere, aurreko atalean aipatu dugun moduan (5.1.1 atala) SNOMED CT eta GNS10aren arteko mapaketa ere eskuragarri dugu, kontzeptu mailako parekatzea egiten duena. Mapaketa hori euskaratze-algoritmotik at dagoen arren, gure erabakia eskura ditugun baliabide guztiak erabiltzea denez, mapaketa hori ere erabili dugu algoritmoa exekutatu aurretik.

Mapaketak jatorritzat SNOMED CT kontzeptua eta helburutzat GNS10 kodeak hartzen ditu, baina horretaz gain, parekatze bakoitzerako hainbat informazio gehigarri eskaintzen du. Besteak beste, mapaketaren nomenklaturari jarraiki, *mapGroup*, *mapPriority* eta *mapRule* atributuak zehazten ditu. *MapGroup* parekatzeak multzokatzeko erabiltzen den atributua da, aurrerago ikusiko dugun bezala, multzo bakoitzean parekatze bat baino gehiago egon daiteke, erabakitzeko testuinguruaren beharra dagoelako. Beste batzuetan aldiz, bi parekatze independentek osatzen dute parekatze

[2]http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=izenlagun&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu&bila=bai (2017ko maiatzaren 15ean atzitua).

osoa. Adibidez, 5.4 taulan, SNOMED CTren *Insulin-resistant diabetes mellitus AND acanthosis nigricans (disorder)* kontzeptuaren parekatzea erakusten dugu. Ikus daitekeenez, kontzeptu hori GNS10eko bi kontzepturekin adierazten da *Insulin-dependent diabetes mellitus (with modifiers)* eta *Acanthosis nigricans*. Hala ere, kasu batzuetan SNOMED CTren kontzeptu bat GSN10

mapGroup	**GNS10 kodea**	**GNS10 Terminoa**
1	E10.9	*Insulin-dependent diabetes mellitus (with modifiers)*
2	L83	*Acanthosis nigricans*

5.4 taula – SNOMED CTren *Insulin-resistant diabetes mellitus AND acanthosis nigricans (disorder)* kontzeptuaren GNS10 parekatzea.

kode bakarrarekin parekatzen den arren, testuinguruaren arabera baldintzatua da. Horretarako *mapPriority* eta *mapRule* atributuak erabiltzen dira, besteak beste. *MapPriority* atributua parekatzeen arteko ordena zehazteko erabiltzen da, eta *mapRule* baldintza zehazteko. Adibidez, 5.5 taulan, testuingurua behar duen parekatze multzoa erakusten dugu. `IFA 7200002 | Alcoholism (disorder)` *mapRule*-aren bitartez, 7200002 kontzeptu identifikadorea duen *Alcoholism (disorder)* kontzeptuaren testuinguruan gertatzen bada, F10.2 kodearekin lotu behar duela adierazten da.

mapGroup	***mapPriority***	***mapRule***	**GNS10 kodea**	**GNS10 Terminoa**
1	1	`IFA 7200002 | Alcoholism (disorder)`	F10.2	*Mental and behavioural disorders due to use of alcohol (with modifiers)*
1	2	`IFA 231467000 | Absinthe addiction (disorder)`	F10.2	*Mental and behavioural disorders due to use of alcohol (with modifiers)*
1	3	`OTHERWISE TRUE`	F19.2	*Mental and behavioural disorders due to multiple drug use and use of other psychoactive substances (with modifiers)*

5.5 taula – SNOMED CTren *Psychoactive substance dependence (disorder)* kontzeptuaren GNS10 parekatzea.

Ikusi dugun moduan, parekatzeak ez dira kasu guztietan bat batekoak, baldintza eta testuinguru gabekoak. Hori guztia kontuan izanik, eta gure

atazaren helburuei jarraiki, garatuko dugun sistemarako baliokide gisa har daitezkeen parekatzeak bakarrik izan ditugu kontuan. Hau da, *mapGroup* bakarra dutenak eta baldintzarik ez duten parekatzeak. Irizpide horiei jarraiki, 15.099 parekatze ditugu erabilgarri, "zuzeneko" parekatze gisa kontsideratu daitezkeenak.

SNOMED CT eta baliabide lexikalen arteko parekatzearen emaitzak, baita GNS10ekin mapaketaren emaitzak ere, 5.4 atalean aurkeztuko ditugu.

5.2 Termino neoklasikoen sorkuntza

Atal honetan, EuSnomeden algoritmoaren bigarren urratsa azalduko dugu, termino neoklasikoen sorkuntza automatikoa, hain zuzen ere. Sorkuntza horretako, NeoTerm deituriko sistema garatu dugu, ingelesezko termino neoklasiko bat jasota, euskal ordainak sortzen dituena.

Termino neoklasikoak, jatorri grekoa edo latindarra duten morfemez osatuta dauden terminoak dira, adibidez hipogluzemia edo fotodermatitis.

Lehenik, 5.2.1 atalean ataza honen aurrekariak azalduko ditugu, artearen egoera eta erabilitako teknologiak azalduz hurrenez hurren. Ostean, NeoTerm sistema eta garatu ditugun hiru hurbilpenak aurkeztuko ditugu: oinarri-lerro sistema (5.2.2), transliterazioa barnebiltzen duen sistema (5.2.3) eta doitasunean arreta jartzen duen sistema (5.2.4).

5.2.1 Aurrekariak

Atal honetan termino neoklasikoen sorkuntza automatikoaren artearen egoera azalduko dugu. Horretarako, termino neoklasikoen inguruko azalpenak eta eztabaidak emango ditugu aurrena. Jarraian, beste hizkuntzetarako egindako lanak azalduko ditugu. Bukatzeko, gure sistemaren garapenean erabilitako egoera finituko transduktoreen inguruko azalpenak emango ditugu.

Termino neoklasikoak

Medikuntzaren alorrean idazten diren artikulu zientifiko gehienak ingelesez idazten dira, nahiz eta egileen ama hizkuntza beste bat izan (Giannoni, 2008 eta Gunnarsson, 2009). Panocová (2015) lanean adierazten den bezala, erdiaroan latina zen hizkuntza nagusia medikuntzan, eta XVII. eta XVIII. mendeetan, medikuntzak garapen handia izan zuen garaian, eragin hori oso na-

baria izan zen lan gehienak latinez idatzi baitziren. Ingelesa latinaren tokia hartzen joan den arren *lingua franca* gisa, medikuntzaren terminologia latinezko eta grezierazko elementuen agerpenez josita dago. Are gehiago, Banay-k (1948) dio medikuntzako terminologiaren hiru laurdenak jatorri grekoa duela.

Grezierako eta latineko elementu morfologikoez osatutako terminoei termino neoklasiko konposatuak deritze, eta oso errotuta daude medikuntzaren domeinuan. Termino neoklasikoei izendatze ezberdinak eman izan zaizkie: termino neoklasiko konposatuak, konposatu neoklasikoak, eta abar.

Sorkuntza-elementu neoklasikoak latinetik zein grezieratik datozen elementu morfologikoak dira (Elia *et al.*, 2015). Horiek, hitz tekniko-zientifiko zein hitz arruntak sortzeko erabiltzen dira, beste sorkuntza-elementu batzuekin konbinatuz, edota bestelako hitzekin konbinatuz.

McCray *et al.* (1988) lanean konposatu neoklasikoak bi morfema motetan sailkatzen dituzte: erroak eta amaierakoak. Horiekin batera, aurrizki (*non-*, adibidez *nononcogenic* terminoan) zein atzizki (*-al*, adibidez *nosocomial* terminoan) orokorrak ere erabili dituzte azterketan.

Literaturan ez dago koherentziarik izendatze horien gainean, eta erroei aurrizki ere deitzen diete. Gure lanean, aurrerago ikusiko dugun bezala, erroak eta aurrizkiak elkarrekin landuko ditugu, aurrizki terminoa erabiliz beraiek izendatzeko, zabalduagoa dagoelakoan. Amaierako morfemen kasuan, atzizki terminoaren barruan landuko ditugu.

McCray *et al.* (1988) lan horretan, konposatu neoklasikoen elementuak automatikoki identifikatzeko analisi morfologikorako aplikazioa garatu dute, konposatuak deskonposatu egiten dituena. Sistema horri esker, konposatu neoklasikoen esanahiaren eta elementuen esanahiaren arteko harremana aztertu dute.Wolff *et al.*-ek (1984) baieztatzen duenaren arabera, konposatu neoklasiko baten esanahia, bere zatien esanahien funtzioa da. Hala ere, Bauer-ek (1983) eta Dirckx-ek (1977) horren kontra egiten dute, eta elementuen eta konposatuaren arteko harremana ez dela hain gardena esaten dute.

McCray eta lagunen ondorioen arabera, Bauer-ekin eta Dirckx-ekin bat eginda, konposatu neoklasikoen esanahia ezin da zuzenean bere elementuetatik erauzi. Izan ere, konbinaketak ez du beti zuzenean esanahia deskribatzen, eta modu indeterminatuan funtzionatzen duela dio, horretarako arrazoi oso ezberdinak erakutsiz. Adibidez, *leuko-* (txuria) erroaren kasuan, esanahi ezberdina dauka konposatuaren arabera: *leukotherapy* edo *leukotomy* konposatuek leukozitoekin (odol zelula txuriak) zerikusia duten bitartean, *leukophatia* melaninaren galerarekin dauka zerikusia eta *leukoscope* koloreen

itsutasuna neurtzeko gailua da.

Indeterminazioaren beste adibide bat konposaketaren esanahian ikus dezakegu *-itis* atzikiarekin. *Laryngotracheobronchitis* terminoak "laringearen, trakearen eta bronkioen hantura" esan nahi duen bitartean (hiru erroen juntadura, atzizkiagatik eraldatuak), *phytophotodermatitis* terminoak "dermatitis fototoxikoa landare batzuei eta eguzkiari esposizioak eragindakoa" esan nahi du. Azken kasuan, analisiak ez du atzikiagatik eraldatutako erroen juntadura egitura betetzen.

Leuko-ren kasuan ikusi dugun moduan, *-itis*en kasuan ere, atzizkiaren esanahitik ezin da termino osoaren esanahia zuzenean ondorioztatu. Jatorrian, *-itis* atzizkia, gaixotasunak adjektibo bilakatzen zituen atzizkia bazen ere (grezieraz *nosos* gaixotasuna da), gaur egunean *-itis* atzizkiak hantura adierazten du, *carditis* bihotzaren hantura izanik, edo *hepatitis* gibelaren hantura.

Erabileraren bilakaeraren ondorioz, termino neoklasikoen deskribapena anbiguoa gertatzen da, eta ez dago termino neoklasikoen deskribapen formalik, Ananiadou (1994) lanean berresten den bezala.

Beste hizkuntzetarako sistemak

Termino neoklasikoen sorkuntza automatikoari buruz literaturan aurkitu ditugun lanak corpusetan oinarritutako lanak izan dira. Horretaz gain, corpus elebakar zein elebidunetan oinarrituta, terminoen identifikazioan edota lexikoien aberasketan ere erabili dira teknika antzekoak. Ikus ditzagun sistema horietako batzuk.

Grigonytė *et al.* (2016) lanean afixu neoklasikoen *suedifikazio* (suedierara bihurketa) patroiak aztertu dituzte. Aipatzen dutenaren arabera, suedierazko txosten klinikoetan termino neoklasikoak jatorrizko formarekin erabili izan dira denboran zehar, 1987an ortografia erreforma egin zuten arte. Ortografia erreforma horri esker, termino neoklasikoak *suedifikatu* zituzten, hainbat transliterazio-erregela aplikatuz, suedirako ortografia arauak errespeta ditzaten, hala nola, *ae* edo *oe*, *e* bilakatzen dira, edota *ph*, *f*. Afixu neoklasikoen erabileraren gaineko azterketa honetan, gaur egunean kasu gehienetan termino *suedifikatuak* erabiltzen direla ondorioztatu dute. Azterketa egiteko, txosten klinikoetan termino neoklasikoak identifikatzeko erregela batzuk definitu dituzte, afixuen zerrendetan oinarrituta.

Gooch eta Roudsari (2011) lanean, ingelesezko termino neoklasikoak identifikatzeko modulua garatu dute, erregeletan oinarritutakoa. Morfema neo-

klasikoen zerrenda osatu dute eta aurrizki, erro edota atzizki gisa sailkatu dituzte. Morfema horiek gorputz-egiturei, seinu klinikoei edota posizioari zein deskribapenari loturikoak dira. Termino kliniko bat definitzeko oso esanguratsuak diren atzizkien kasuan (*-itis* edo *-ostomy* bezalakoak), beste multzo bat egin dute. Morfemen multzoak adierazpen erregularren bidez konbinatu dituzte termino neoklasikoak identifikatzeko. Modulu hori, transduktore bat erabiliz inplementatu dute. Tamalez, lan horretan identifikaziora mugatu dira, eta ez dute termino neoklasikoen ordainak sortzeko inolako metodorik garatu.

Hurbilak diren hizkuntzetarako, Schulz *et al.* (2004) lanean kognatuak[3] lotzeko sistema aurkezten dute, portugesetik abiatuta espainierakoak lortzeko. Sistema horrek, erlaziorik ez duten domeinu bereko corpusak erabiltzen ditu eta azpi-hitzen baliokidetzak erabiliz, kognatuak antzematen dituzte. Prozesuan, azpi-hitzak eskuz sortu dituzte, transliterazio arau automatiko batzuen laguntzaz. Azpi-hitzak definitzeko garaian, ez dituzte irizpide linguistikoak kontuan hartu, semantikoei gehiago loturikoak baizik, baina ez dituzte zehaztapenak gehiegi azaltzen.

Hizkuntza hurbilentzako, corpus ez-paraleloetan oinarritzen diren lanak ere aurkitu ditugu, Koehn eta Knight (2002) adibidez. Bestalde, corpus ez-paraleloetan oinarritzen diren hauek, analizatzaile morfologikoen laguntza erabiltzen dute emaitza hobeak lortzeko (Hahn *et al.*, 2001; Namer eta Zweigenbaum, 2004).

Termino neoklasikoen kasuan, Lovis *et al.* (1995) lanean aipatzen den bezala, termino berriak dagoeneko definituta dauden unitate morfologikoak kateatuz sortzen dira, eta medikuntzaren domeinuan teknika hori da termino berriak sortzeko erabiltzen den teknika zabalduenetako bat.

Egoera finituko automatak eta transduktoreak

Hizkuntzaren prozesaketaren alorrean, egoera finituko makinak oso erabiliak izan dira, espezializazio askotan. Horren erakusle da, 12. ediziotik doan *Finite-State Methods and Natural Language Processing* kongresua.

Makina horien erabilera, ikuspegi linguistiko zein konputazionaletik bidezkotu daiteke (Mohri, 1997). Ikuspegi linguistikotik, egoera finituko makinek hizkuntzen azterketa enpirikotik erauzitako fenomeno gehienak modu errazean deskribatzea ahalbidetzen dute. Linguistentzat modu naturalean

[3]Kognatuak jatorri etimologiko berdina duten hitzak dira. Adibidez, italierazko *mangiare* eta frantsezko *manger*.

(Gross, 1987), eta gainera, bisualizazio tresnek gramatika aztertzen eta fintzen lagun dezakete. Ikuspegi konputazionaletik, aldiz, eraginkortasun arrazoiak dira nagusi.

Egoera finituko automatek lengoaia formalak definitzen dituzte, karaktere-kate zehatzak onartu edo baztertzeko gai direnak. Transduktoreak (***F**inite **S**tate **T**ransducers* edo FST-ak), aldiz, bi karaktere-kateen arteko harremana zehazteko gai dira. Hau da, transduktoreak, sarrerako karaktere-kate bat izanda, irteerako karaktere-kate bat sortzeko gai dira.

Morfologiari dagokionean, FSTak maiz erabili izan dira morfologia aberatsa duten hizkuntzen analizatzaileak garatzeko, adibidez, euskararako (Alegria *et al.*, 1996), arabierarako (Beesley, 1996), turkierarako (Oflazer, 1994) edo alemanierarako (Schmid *et al.*, 2004).

Transduktoreen sorkuntzarako hainbat liburutegi daude, Xerox Finite State Transducer edo XFST (Karttunen *et al.*, 1997), Nooj[4] edo AT&T-ren Finite State Machine edo FSM (Mohri *et al.*, 2006) bezalakoak. Guk Foma izenekoa erabili dugu (Hulden, 2009), egoera finituko automatak eta transduktoreak definitzeko balio duen software-tresna askea.

Hurrengo ataletan, termino neoklasikoen euskaratze automatikorako garatutako sistemaren hiru hurbilpenak aurkeztuko ditugu. Aurrenik, oinarri-lerro sistema (*baseline system*) aurkeztuko dugu, eta jarraian, oinarri-lerro sistema horri egin dizkiogun bi hurbilpen: transliteraziorako modulua eta estaldura fintzeko irizpideak.

5.2.2 NeoTerm: oinarri-lerroa

NeoTerm sistema, medikuntzako termino neoklasikoak euskaratzeko diseinatu dugun sistema da. Sistema hori beste hizkuntzetara modu errazean egokitu badaiteke ere, lan honetan ingelesetik abiatuta euskararen kasua bakarrik garatu dugu.

Euskarazko ordainak sortzeko, hiru urrats inplementatu ditugu:

1. Afixuen identifikazioa: jatorri-terminoaren (ingelesezkoak kasu honetan) afixu neoklasikoen identifikazioa, eta horien araberako zatitzea.

2. Afixuen baliokidetzak: jatorri-terminoan identifikatutako afixuen baliokidetzak lortzea helburu hizkuntzan (euskara, gure kasuan).

[4]http://www.nooj4nlp.net/NooJManual.pdf (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

3. Afixuen konposaketa: euskararen arau morfofonologikoak errespetatuz afixu baliokideen konposaketa sortzea.

Hurrengo irudian (5.1), *radionecrosis*[5] ingelesezko terminoaren euskaratze prozesua ikus dezakegu urratsez urrats. Lehenik, jatorri-terminoaren afixuak identifikatzen ditugu (*radio+necr+osis* edo *radio+necro+sis*). Ostean, afixu horien baliokideak lortzen ditugu lexikoietatik (radio+nekr+osi edo radio+nekro+si). Eta bukatzeko, afixuak konbinatzen ditugu euskal ordainak lortuz (erradionekrosi).

Jatorri-terminoa: *radionecrosis*
Identifikatutako afixuak: *radio+necr+osis*,*radio+necro+sis*
Afixu baliokideak: radio+nekr+osi, radio+nekro+si
Euskal ordaina: erradionekrosi

5.1 irudia – NeoTermen oinarri-sistemaren sorkuntza prozesua.

Aurreko atalean azaldu bezala, termino neoklasikoak grezieratik zein latinetik eratorritako afixuez osaturiko terminoak dira. Hori horrela izanik, jatorri-terminoaren afixuen identifikaziorako, ingelesezko medikuntzako afixuen bi zerrenda eskuratu ditugu 826 aurrizki eta 143 atzizki lortuz: Stedmanen medikuntza hiztegiko *"Medical Prefixes, Suffixes, and Combining Forms"* (Stedman, 2005) eta Wikipediaren *"List of medical roots, suffixes and prefixes"* (Wikipedia, 2013).

Ordainen sorkuntzarako zerrenda elebakar horietako afixuak banan-banan aztertu ditugu euskarazko baliokidetzak aurkitzeko. Horretarako, afixuen itzulpenak hiztegi espezializatuetako termino-ordain pareetatik ondorioztatu ditugu. Adibide gisa, 5.6 taulan *encephal-*[6] aurrizkiaren euskal baliokidea ondorioztatzeko prozesua erakusten dugu.

Ikus daitekeenez, hiztegiko sarrera guztietan ingelesezko *encephal-* aurrizkia, euskarazko ordainetan entzefal- aurrizki moduan agertzen da. Prozesu hori bera egin dugu zerrendetako 969 afixuekin (ikus http://ixa2.si.ehu.eus/neoterm/ web orria lortu ditugun afixuen baliokidetzak ikusteko).

[5]radionecrosis. (n.d.) Mosby's Medical Dictionary, 8. edizioa. (2009). http://medical-dictionary.thefreedictionary.com/radionecrosis (2017ko maiatzaren 15ean atzitua).

[6]encephal-. (n.d.) Mosby's Medical Dictionary, 8. edizioa. (2009). http://medical-dictionary.thefreedictionary.com/encephal- (2017ko maiatzaren 15ean atzitua).

Ingelesezko terminoak	Euskarazko ordainak
*an**encephal**ia*	an**entzefal**ia
*echo**encephal**ogram*	eko**entzefal**ograma
*electro**encephal**ograph*	elektro**entzefal**ografo
***encephal**itis*	**entzefal**itis
***encephal**omyelitis*	**entzefal**omielitis
***encephal**opathy*	**entzefal**opatia
*leuko**encephal**itis*	leuko**entzefal**itis
...	...

5.6 taula – *encephal-* aurrizkiaren euskal ordainak.

Hiztegiaren sorkuntza prozesu honetan, termino-ordain pareetan aurrizkien eta artizkien arteko bereizketa falta nabaritu dugu, eta sistemaren sinpletasunari begira, artizkiak aurrizki gisa kontsideratzea erabaki dugu. Izan ere, aurkitu ditugun alde guztiak euskararen ortografia arauek eragindako aldaerak izan dira, hitz hasierako *r* letraren agerpenak, adibidez. Horrela, hemendik aurrera aurrizki terminoa erabiltzen dugun aldiro, aurrizki zein artizkiei egingo diegu erreferentzia.

Sortutako hiztegi elebidunetik, bi lexikoi bereizi ditugu, bata aurrizkietarako (826 sarrera) eta bestea atzizkietarako (143 sarrera). Lexikoi horiek, aurrerago ikusiko dugun moduan, egoera finituko transduktoreak definitzeko erabili ditugu.

Lexikoiak definitzeko garaian, hainbat irizpide orokor definitu ditugu, ostean azalduko ditugun afixuen konposaketa-erregelak bete ahal izateko. Irizpide horiek ez dira modu automatikoan landu, aurrizki edo atzizki bakoitzaren izaeraren ezaugarriak adierazteko erabili baititugu.

Definitutako hiru irizpideak azaldu ditugu 5.7 taulan, adibide eta azalpenekin batera.

Aurrizkien lexikoiaren sarrera batzuk ikus ditzakegu 5.2 irudian. Sarreren ezkerreko aldean, ingelesezko aurrizkiak definitzen ditugun bitartean, eskuineko aldean euskarazko ordainak eman ditugu. Kasu honetan, gure lexikoietako sarrerei ez diegu jarraitze-klaserik esleitu, eta horrela, # karakterearekin bukaera elementua dela adierazten dugu.

en	eu	Azalpena
radio- *rhin-* *cineradiography*	rradio- rrin- zinerradiografia	*R* letra ingelesezko afixuen hasieran agertzen denean, *r* gogorra ahoskatu ohi da. Hortaz, euskararako *r* bikoitza erabiliko dugu. Termino hasiera denean, *r* bikoitza soil bilakatuko dugu ortografia arauei jarraituz.
bronch- *isch-* *thorac-* *bronchitis* *ischemia* *thoracic* *thoracotomy*	bronK- isK- torak- bronkitis iskemia toraziko torakotomia	Ingelesezko *ch* fonema, euskarazko *k*-ren baliokide fonologikoa da. Alabaina, *c*-ren ahoskerak aldaerak izaten ditu, jarraian datorkion letraren arabera: *e* edo *i*-rekin agertzen denean, euskaraz *z* erabiliko dugu eta gainerako kasuetan, *k*. Horrela, *K* letra larriz idatzi dugu *k* beti izan behar denean, eta *k* txikia hurrengo karaktereraren arabera aldatu behar dugunean.
bucc- *buccolabial* *buccinator*	buKZ- bukolabial bukzinatzaile	Ingelesezko terminoetan *cc* karaktereak agertzen direnean, hurrengo karakterearen arabera euskarazko *kz* ala *k* izango da, *ch* morfemarekin moduan. Hortaz, *KZ* letra larriz idatziko dugu, morfofonologia arauen arabera aukera dezagun.

5.7 taula – Afixuen baliokidetzen idazketarako irizpideak.

```
1 LEXICON Root
2 abdomin:abdomin #;
3 acanth:akant #;
4 acou:aku #;
5 aden:aden #;
6 adip:adip #;
7 adren:adren #;
```

5.2 irudia – Aurrizkien lexikoiaren sarrera batzuk.

Identifikazioa

Lexikoien "goiko aldearekin" (ingelesezko sarrerekin), 5.3 irudian ikus daitekeen transduktorea definitu dugu. Afixuen lexikoiak jasotzen ditugu aurrena (1-6 lerroak, `.u` aginduarekin, lexikoien ingelesezko sarrerak bakarrik jasotzen ditugu) eta orduan afixuak identifikatzen ditugu 7. lerroko erregelarekin: nahi adina aurrizki ("*" ikurrak 0 edo hainbat adierazten du) eta

derrigorrezko atzizki bakar bat. Ohikoa da -o- bokala, grezierako jatorria duten afixuak konektatzeko erabiltzea eta hortaz, gure erregelak -o- letra afixu gisa ere identifika dezake. Adibidez, 5.1 irudiko adibidean, ingelesezko *radionecrosis* terminoarentzat, 5.3 irudiko transduktorea aplikatu ondoren *radio+necr+osis* edo *radio+nekro+si* zatiak identifikatuak genituzke.

```
1 read lexc aurrizkiak.lex
2 define AURRDEN
3 define AURR AURRDEN.u ;
4 read lexc atzizkiak.lex
5 define ATZDEN
6 define ATZ ATZDEN.u ;
7 regex [[[AURR 0:+] (o 0:+)]* ATZ] ;
```

5.3 irudia – Afixuen identifikaziorako erregelak.

Atzizkia derrigorrezkoa egitea erabaki dugu, atzizkien baliokidetzak aurrizkienak baino konplexuagoak edo ezberdinak direla ikusi dugulako. Hau da, aurrizki gehienek transliterazio arauak jarraitzen dituzten bitartean (ingelesezko *ph*, euskarazko f bezalakoak), atzizkiek aldaera ezberdinak dituzte (ingelesezko *-itis*, euskaraz -itis mantentzen den bitartean, *-sis* atzizkia -si euskaratzen da). Hortaz, atzizkien euskaratzean prozesu konplexuagoek parte hartzen dutenez aurrizki batenean baino, aurrizki batek ezingo du gure transduktorean atzizki baten tokia bete.

Ikusi dugunez, afixuen identifikazioan zenbaitetan anbiguotasuna egoten da, eta hainbat aukera proposatzen ditu NeoTermek. Anbiguotasuna gutxitzeko, afixu gutxien (edo luzeenak) dituzten aukerak erabili ditugu baliokidetzen urratsera joan aurretik.

Ikus dezagun *photodermatitis* terminorako transduktoreak proposatzen dituen afixuen konbinazio ezberdinak:

- *photo+dermat+itis*: 3
- *photo+derm+at+itis*: 4
- *phot+o+dermat+itis*: 4
- *phot+o+derm+at+itis*: 5

Terminoa, 3, 4 edo 5 afixutan banatu daitekeela ikus dezakegu. Zehaztutako irizpideari jarraiki, lehenengo aukera izango da aukeratua afixuen baliokidetzak lortzeko eta euskal ordaina sortzeko.

Radionecrosis bezalako kasuetan anbiguotasuna ekiditeko zaila egin zaigun arren, kasu gehienetan honek ez du ordainen sorkuntzan gainsorkuntzarik eragiten. Izan ere, gehienetan ez da alderik egoten afixu antzekoen baliokideen artean *necr+osis* afixuen konbinaketak, *necro+sis* afixuen baliokideen konbinaketaren berdina baita: nekrosi.

Baliokidetza

Afixuen baliokidetzarako, hau da, ingelesezko afixuak euskarazkoekin ordezkatzeko, 5.4 irudian erakusten dugun transduktorea definitu dugu. Bertan, afixuen lexikoi osoa jasotzen dugu (1-4 lerroak) baita konposaketarako erregelak ere (5-7 lerroetan sinplifikatuta). Baliokidetzarako erregela (8. lerroa) horrela definitu dugu: hitz-hasierako ikurra (^ ikurra) espreski adierazi dugu, jarraian aurrizkia(k) (AURRBAL gisa adierazita) -o- konexio elementuaz konbinatuta agertzen dira (hautazkoa), eta bukatzeko atzizkia (ATZBAL) definitu dugu. Erregela guztiak, azkeneko adierazpen erregularraren bitartez konbinatzen ditugu (9. lerroa).

```
1 read lexc aurrizkiak.lex
2 define AURRBAL
3 read lexc atzizkiak.lex
4 define ATZBAL
5 define HASR r -> e r r || [.#.|^ ] _ ;
6 ...
7 define MORFO HASR .o. ...
8 define BAL (^) [[[AURRBAL +] (o:o +)]* ATZBAL] ;
9 regex BAL .o. MORFO ;
```

5.4 irudia – Afixuen baliokidetzarako erregelak.

Konposaketa

Afixuen konposaketarako, sortutako ordainek euskararen arau ortografikoak eta morfofonologikoak betetzeaz arduratzen diren 28 erregela definitu ditugu (Foman hauek ere). Arau ortografikoen artean v bezalako letren ordezkapenak aurkitzen ditugun bitartean, arau morfofonologikoetan hobikarien eraginez txistukarien sabaikaritzea aurkitzen dugu (euskaraz, entzefalitis esango genuke, eta ez *enzefalitis). Konposaketa erregelak B eranskinean ikus ditzakegu.

Erregela horiek definitzeko, alde batetik Euskaltzaindiaren ortografia arauak izan ditugu kontuan (Euskaltzaindia. Luis Mitxelena, 1968), eta bestetik

enpirikoki aztertutako aldaerak, denera 22 erregela definitu ditugu (B eranskinean laburbildu ditugu).

Aurreko adibideari jarraiki, afixuen konposaketak sortutako aldaeren artean daude gaurko erdaretan *r* letraz hasten diren hitzak. Hitz horiek euskaraz mailegatzean, bokalez hasten dira. Kasu gehienetan *e* letra erabiltzen da horretarako (erreinu, erradio, errezeta,...) nahiz eta kasu bakan batzuetan *a* letra ere erabili izan den (arropa, arrosa,...). Horrela, definitu dugun erregeletako batek, *r* letraz hasten den aurrizki bat aurkitzen duenean *e* letra gehituko dio.

Gure adibidearen erregela ikus dezakegu 5.4 irudiaren 5. lerroan. Bertan, *r* letra *err* letra segidarekin ordezkatzen da, baldin eta *r* letra hori hasieran dagoen (.#. edo ^ ikurren bidez adierazita). Hurrengo taulan (5.8 taula) erregela gehiago ikus ditzakegu.

	en	**eu**	**Adibidea**	**Erregela**
1	^ r	e r r	radionecrosis -> erradionekrosi	r -> err || [.#. | ^] _
2	^ s	e s	spermatocele -> espermatozele	s -> es || [.#.| ^] _ (+) Kon
3	s s	s	dyssomnia -> disomnia	s -> 0 || _ + s
4	n z	n t z	encephalitis -> entzefalitis	n -> n t || _ Txis + Bok
5	r s	r e s	hypersplenism -> hiperesplenismo	r + -> r e || _ Txis Kon
6	r r	r	hyperreflexia -> hiperreflexia	r r -> r || Kon + _
7	m p	n p	symphysis -> sinfisis	m -> n || _ + [b | p | t | f]
8	k	z	thoracic -> toraziko	
9	c c	k	buccolabial -> bukolabial	K Z -> k || _ + [Kon | a | o | u]
...	...	...	...	...

5.8 taula – Erregela morfofonologiko batzuk.

Azkenik, NeoTerm sistemaren hiru urratsak konbinatuta, euskarazko ortografia eta morfofonologia arauak errespetatzen dituzten euskal ordainak sortzen ditugu, 5.1 irudian ikusi dugun sorkuntza prozesua jarraituz.

Emaitzen atalean ikusiko dugun bezala, oinarri-lerro hurbilpen honek oso doitasun altua lortu badu ere, estaldurari dagokionean oso emaitza kaskarrak lortu ditugu. Hori horrela izanik, jarraian azalduko dugun hurbilpena garatu dugu estaldura hobetze aldera.

5.2.3 NeoTerm: transliterazio modulua

Hurbilpen honetan, bi ekarpen nagusi gehitu dizkiogu sistemari estaldura hobetzeko asmoz: hiztegien zabaltzea eta transliteraziorako modulua.

Lexikoiak edo hiztegiak zabaltzeko, McCarthy-ren *Suffix Prefix Dictionary* (McCarthy, 2016) hiztegia eta, garapenean sortutako zalantzazko kasuetan, *Mosby's Medical Dictionary* hiztegia erreferentzia hartuta hainbat aurrizki gehitu ditugu 5.2.2 atalean azaldutako zerrendetan. Modu horretan, aurreko lexikoiekin integratuta, 1.703 aurrizkitako eta 630 atzizkitako lexikoiak osatu ditugu. Bi lexikoiak eskuz sortu ditugu eta aditu batek errepasatu ditu, aurreko atalean azaldutako metodologia berdina jarraituta.

NeoTermen oinarri-lerroaren inplementazioan, medikuntzako termino neoklasiko erabat identifikatuak baino ezin genituen euskaratu. Bestela esanda, adibidez, sistema ez bada *path-* aurrizkia duten terminoak euskaratzeko kapaz, aurrizki hori lexikoian agertzen ez delako, *hypophosphatemia* bezalako terminoak ezin genituen euskaratu, nahiz eta *hypo-*, *phos-* eta *-emia* afixuak lexikoietan agertu. Transliterazioa erabiliz murriztapen hori gainditzea dugu helburu.

Gure lexikoietan agertzen diren aurrizkietatik % 93 transliterazio-erregelen bitartez euskara daitezke, hiztegietako baliokide berdina lortuz. Horrela, afixu bezala identifikatu gabeko zatiak transliteratzeko Fomako 40 erregela definitu ditugu. Erregela horiek sortzeko, oinarri-lerro sisteman definitutako euskararen morfofonologia arauak errespetatzeko erregelak transliteraziorako egokitu ditugu eta berri batzuk definitu ditugu ere. Berriak definitzeko, afixuen konposaketarako erabilitako metodologia berdina jarraitu dugu, eta erregela batzuk enpirikoki ondorioztatu ditugu, euskararen ortografia arauak betetzen dutela bermatuaz.

Adibidez, *v* letra, *b* letrarekin ordezkatzen dugu beti arau ortografikoei jarraituz, edo c letra *z*-rekin *e*, *i* edo *y* letra jarraian izanez gero, eta *k*-rekin gainontzekoetan, arau morfofonologikoek ezartzen duten moduan. Erregela horiek inplizituki hiztegietan askotan aurkitu ditugu, hala nola, *diverticulitis* terminoarekin eta haren euskal ordaina den dibertikulitis terminoarekin (ZT Hiztegia eta Erizaintza Hiztegia), *v* kontsonantea *b* bihurtzen da, eta *c* letra *k*, *u* bokala baitu jarraian. Erregela horietako batzuk erakusten ditugu adibideekin 5.9 taulan.

Hurbilpen honetan, afixuen identifikazioa bi urratsetan egiten dugu. Lehenengo urratsean identifikatzea lortzen ez bada, bigarren urratsean identifikatzen saiatuko da. Bigarren urratsean ere ezin bada identifikatu, terminoa

	en	eu	Adibidea	Erregela
1	^ y	i	yttrium -> itrio	y -> i || [.#.| ^] _ Kon
2	p h	f	pharyngostome -> faringostoma	p h -> f
3	r h	r r	rheostosis -> erreostosis	r h -> r r
4	c k	k	amsinckine -> antsiskina	c k -> K
5	r s	r t s	arsenic -> artseniko	r -> r t || _ Txis Bok
6	x s	s	isoxsuprine -> isosuprina	x -> 0 || _ s
7	c c	k z	occipital -> okzipital	c c -> k z || _ [e | i | y]
...	...	...	...	...

5.9 taula – Transliteraziorako hainbat erregela.

euskaratu gabe gelditzen da.

Aurreneko urratsa, oinarri-lerroaren identifikazio-erregela berdina da (5.5 irudiko 2. lerroa). Bigarren urratsean, identifikazio malguagoa definitu dugu, lexikoian aurkitzen ez diren zatiak ere identifikatuz. Horretako definituko dugun gutxieneko baldintza, terminoaren atzizkia lexikoian agertzea da (5.5 kodeko 3. lerroa). # ikurraren bitartez aurrizkien lexikoian agertzen ez diren zatiak markatuta uzten ditugu, itzulpenean aurrizki baliokidetza egin beharrean transliteraziorako erregelak erabil ditzan baliokideen transduktoreak.

```
1 ...
2 define IDEN1 [[[AURR 0:+] (o 0:+)]* ATZ] ;
3 define IDEN2 [(?+ 0:#+) [AURR 0:+]]* (?+ 0:#+) ATZ;
4 regex IDEN1 .P. IDEN2;
```

5.5 irudia – Afixuen identifikazioa lexikoitik kanpoko zatiekin.

Hurrengo irudian (5.6 irudia) *hypophosphatemia* terminoa NeoTermi esker nola euskaratzen dugun erakusten dugu urratsez urrats.

Jatorri-terminoa: *hypophosphatemia*
Identifikatutako afixuak: *hypo+phos+ph#+at+emia*
Afixu baliokideak: hipo+fos+f+at+emia
Euskal ordaina: hipofosfatemia

5.6 irudia – NeoTermen oinarri-sistemaren sorkuntza prozesua.

Lehenik, afixuak identifikatzen ditugu, identifikatu gabeko karaktere kopurua minimizatuz eta afixu kopuru minimoa aukeratuz (*hypo+phos+ph#+*

at+emia). Ostean, afixuen baliokideak jasotzen ditugu lexikoietatik eta identifikatu gabeko zatiak transliteratzen ditugu (hipo+fos+f+at+emia). Bukatzeko, afixuak konbinatzen ditugu (hipofosfatemia).

Anbiguotasuna mugatzeko irizpide berriak ere definitu behar izan ditugu, bigarren identifikaziorako erregelarako ez baita baliagarria aurretik definitutako irizpidea. Hurrengo adibidearen bidez ikusiko ditugu aurreko irizpidearen arazoak, eta proposatutako irtenbidea.

Diverticulitis terminoaren kasuan, *verticul* zatia ez da afixuen lexikoian agertzen. Ondorioz, bigarren urratsaren bidez identifikatu ditugu afixuak. Transduktoreak afixuen konbinaketa guztiak identifikatzen ditu, eta baita identifikatu gabeko zatien konbinaketak ere. Hurrengo zerrendan ikus daitekeen moduan, transduktoreak lexikoetan agertzen diren afixuak, identifikatu gabeko zatiekin konbinatuta ere proposatzen ditu. Identifikatutako zatien ondoren, zati kopurua eta identikatu gabeko zatiaren karaktere kopurua gehitu ditugu, aurrerago azalduko dugun moduan.

- *diverticul#+itis*: 2 + 10 = 12
- *divertic#+ul+itis*: 3 + 8 = 11
- *di+verticul#+itis*: 3 + 8 = 11
- *di+vertic#+ul+itis*: 4 + 6 = 10

Modu horretan, identifikatutako zati gutxien dituen aukera lehenengoa litzateke (*diverticul#+itis*), baina egokiagoa dirudi afixuen lexikoian agertzen diren zatiak bere aldetik euskaratzea, eta gainerako zatiak transliterazioaren bitartez. Hortaz, kontaketa berri bat gehitu diogu zatien kontaketari: identifikatu gabeko zatiaren karaktere kopurua. Datuen analisiak gidatuta, luzeran motzena den identifikatu gabeko zatia bilatzen dugu, eta aldi berean, lexikoietan agertzen diren afixu gutxien egotea ere bilatzen dugu (*di+vertic#+ul+itis*, kasu honetan).

Emaitzetan ikusiko dugun bezala (ikus 5.4 atala), NeoTermen hurbilpen honetan termino neoklasikoak identifikatzeko hartutako irizpide berriak estaldura asko hobetzen duen arren, positibo faltsu asko ere sortzen ditu. Horien kopurua murrizteko, hurrengo atalean azalduko dugun azken hurbilpena prestatu dugu, identifikaziorako irizpideak mugatuz.

5.2.4 NeoTerm: identifikazioa fintzeko irizpideak

Azken hurbilpenean, adituen gomendioei jarraiki, estaldura fintzeko asmoarekin terminoen identifikaziorako irizpideak mugatu ditugu. Irizpide berri horiekin, *-tion* edo *-able* bezalako atzizkiak dituzten terminoek, baldintza gehiago bete beharko dituzte NeoTermen bitartez euskaratuak izateko.

Horretarako, orain artean erabilitako aurrizki zein atzizkien lexikoien bertsio murriztu berriak sortu ditugu.

Atzizkien kasuan, hitz orokorretan (osasun-zientzien domeinurako espezifikoak ez diren hitzetan) erabiltzen diren atzizkiak baztertu ditugu (*"-tion"* edo *"-able"* moduko atzizkiak). Horretarako, Wiktionary-ren ingelesezko atzizkien hiztegia kontsultatu dugu (Wiktionary, 2014), eta bertan agertzen diren atzizkien esanahia aztertuta, definizio orokorra dutenak baztertu ditugu. Aukeraketa horretan, atzizki neoklasikoak ez direnak ere kendu ditugu (*-hood*, adibidez). Kontziente gara eskuz egindako prozedura horrek, erroreak sor ditzakeela, baina modu horretan, gehien erabiltzen diren atzizkiak detektatu ditugu.

Prozesu honetan, atzizkien bazterketaren inguruko zenbait erabaki hartu behar izan dugu. Adibidez, *-on* atzizkiak, hiru adiera ditu biologiarekin zein kimikarekin erlazioa dutenak, baina atzizkia bera, beste atzizki orokorren bukaera ere izan daiteke, *-tion* edo *-isation* atzizkiena, alegia. Bi atzizki horiek lexikoietatik baztertu ditugunez, eta atzizkien artean *-tion* atzizkia ohikoena denez, *-on* atzizkia ere baztertzea erabaki dugu.

Aurrizkiekin aldiz, ezin izan dugu prozesu bera erabili, eta karaktere kopuruaren arabera baztertu ditugu zenbait aurrizki (3 karaktere edo gutxiagokoak). Izan ere, gure irizpideen arabera aurrizkiak terminoaren edozein posiziotan ager daitezke, eta bi edo hiru karaktereko segida batek ez du zertan aurrizkia izan. Horrela, *an-*, *col-* edo *cyt-* bezalako aurrizkiak baztertu ditugu.

Arrazoi horretaz gain, eraginkortasun arrazoiak ere erabili ahalko genituzke, 1.703 aurrizki errepasatu beharko baikenituzke eskuz, aurretik aztertutako 630 atzizkiez gain.

Bazterketa prozesuaren ondorioz, 241 aurrizki eta 71 atzizki kendu ditugu lexikoietatik, eta horrela 1.462 aurrizkidun eta 559 atzizkidun lexikoi murriztuak osatu ditugu.

Hurrengo zerrendan, urratsez-urrats azalduko ditugu azken hurbilpen honetarako definitu ditugun irizpideak. Lehenengo irizpidearen bitartez terminoaren zatiak ezin baditugu identifikatu, bigarrenarekin saiatuko gara, eta

honekin ere ezin izanez gero, hirugarrenarekin.

1. Terminoaren afixu guztiak lexikoi hedatuetan agertzen diren afixuekin identifikatzen dira (8. lerroa 5.7 irudian). Irizpide hau aurreko bi hurbilpenetan ere erabilitakoa izan da (5.2.2 eta 5.2.3).

2. Gutxienez, terminoaren atzizkia atzizkien lexikoi murriztuan agertzen da (9. lerroa 5.7 irudian).

3. Gutxienez, terminoaren atzizkia atzizkien lexikoi hedatuan agertzen da eta gutxienez aurrizki bat dauka aurrizkien lexikoi murriztuan (10. lerroa 5.7 irudian).

Irizpide horiekin transduktorea definitzeko Foman idatzitako kodea ikus dezakegu 5.7 irudian.

```
1  ...
2  read lexc aurrizkiMugatua.lex
3  define AURRMUGATUA
4  define AURRMUG AURRMUGATUA.u ;
5  read lexc atzizkiMugatua.lex
6  define ATZMUGATUA
7  define ATZMUG ATZMUGATUA.u ;
8  define IDEN1 [[[AURR 0:%+] (o 0:+)]* ATZ] ;
9  define IDEN2 [(?+ 0:#+) [AURR 0:+]]*(?+ 0:#+) ATZMUG;
10 define IDEN3 [(?+ 0:#+) [AURRMUG 0:+]]+(?+ 0:#+) ATZ;
11 regex IDEN1 .P. IDEN2 .P. IDEN3;
```

5.7 irudia – Azken hurbilpenaren afixuen identifikaziorako erregelak.

NeoTermen hiru hurbilpenak azalduta, jarraian baliabide lexikalen parekatzearen emaitzak eta NeoTermen emaitzak aztertzeko diseinatu dugun ebaluazioa azalduko dugu.

5.3 Ebaluazioaren diseinua

Kapitulu honetan azaldutako algoritmoaren lehenengo bi urratsak ebaluatzeko, bi ebaluazio mota egin ditugu. Lehenengoak, ebaluazio automatikoak, tekniken garapenean lagundu digu, lanaren estalduraren eta doitasunaren estimazioa ematen digulako. Bigarrena, adituek egindako ebaluazioa, doitasuna neurtzeko baliagarria izan zaigu.

5.3.1 Ebaluazio automatikoa

Ebaluazio automatikoan SNOMED CTren nahasmenduen (*Disorder*), aurkikuntzen (*Finding*), gorputz-egituren (*Body structure*) eta prozeduren (*Procedure*) hierarkien euskaratzeari buruzko estaldura datuak emango ditugu, modu automatikoan erauzi ditugunak.

Alde batetik, urrats bakoitzaren ekarpena ebaluatuko dugu, lortutako ordain kopurua eta parekatzeak adieraziz. Ordain kopuruarekin euskaraz sortutako terminoak kontatuko ditugu, eta parekatze kopuruarekin, ingelesezko zein espainierazko zenbat terminoren parekatzea lortu dugun adieraziko dugu. Horretaz gain, baliabide lexikalen kasuan, hiztegi bakoitzak egindako ekarpena neurtuko dugu indibidualki, eta jatorri-hizkuntzaren araberako datuak ere jasoko ditugu. Bukatzeko, token kopuruaren araberako emaitzak emango ditugu, baita hierarkia bakoitzerako zenbat kontzeptu euskaratzea lortu dugun ere. Datu horiek guztiak 5.4 atalean aztertuko ditugu sakonki.

NeoTerm sistemaren hurbilpenak ebaluatzeko, urre-patroi gisa hiztegietatik erauzitako ingelesa-euskara pare zuzenak erabili ditugu. Urre-patroia garatzeko eta estaldura zehaztu ahal izateko, pare bakoitzari etiketa bat esleitu diogu terminoa neoklasikoa den ala ez adierazteko. Izan ere, NeoTerm sistema termino neoklasikoak euskaratzeko diseinatua izan da, eta gainerako terminoak ez lituzke euskaratu behar, *dengue* edo *shock* bezalalakoak, adibidez. Eskuzko etiketatze hori, ebaluaziorako urre-patroian bakarrik egin dugu, NeoTerm sistemaren garapenean eskuzko lan handia egin behar izan dugulako, eta baliabideak optimizatu behar izan ditugulako.

Ebaluazioari dagokionean, 2.245 termino erabili dira, horietatik 848 nahasmenduak dira, 375 aurkikuntzak, 774 gorputz-egiturak eta 248 prozedurak.

5.3.2 Adituen ebaluazioa

Adituen ebaluazioan ere, SNOMED CTren lau hierarkia nagusiak erabili ditugu: nahasmenduak, aurkikuntzak, gorputz-egiturak eta prozedurak. Denera 370 kontzeptu eta horiek deskribatzeko erabiltzen diren terminoak aukeratu ditugu. Kopuru hori ez dugu edozein modutan aukeratu, bereziki kalkulatu dugu lagina esanguratsua izan dadin. Horretarako, Franklin eta Agresti (2007) liburuko *How Do We Choose the Sample Size for a Study?* ("Nola aukeratzen dugu azterketa baterako laginaren tamaina?") atalean azaldutako populazioaren proportzioa balioetsiz laginaren tamaina kalkulatzeko formula erabili dugu (5.1 formula).

$$n = \frac{\hat{p}(1-\hat{p})z^2}{m^2} \tag{5.1}$$

Horrela, n, zorizko laginaren tamaina, p populazioaren proportzioaren eta m errore-marjinaren araberakoa izango da. z puntuazioa konfiantza mailan dago oinarrituta, adibidez guk % 95eko konfiantza maila ezarri dugu eta hortaz z = 1,96 izango da eta m = 0,04, banaketa normalari jarraitzen badiogu. Populazioaren proportzioa kalkulatzeko, ebaluazio automatikoan jasotako doitasunaren balioa erabili dugu. Horrela, $\hat{p}$-ren balioa 0,81 da 5.4 atalean ikusiko dugun bezala. Balio horiek kontuan izanda, 5.1 formularen arabera, lagina 370 kontzeptutakoa izatea erabaki dugu.

Lagina zoriz aukeratu dugu, euskarazko ordaina jaso duten termino sinple guztien artean (lau hierarkietakoak, beraien arteko proportzio natura-la mantenduta). Hala ere, laginak bete beharreko minimo batzuk zehaztu ditugu, aurretik euskarazko ordainak lortu ditugularik: gutxienez 200 kontzeptuk NeoTerm sistemak emandako ordainen bat izatea, eta gutxienez 100 kontzeptuk baliabide lexikalen ordainen bat izatea. Hau da, 370 kontzeptu landuko ditugu eta horiek deskribatzeko erabilitako terminoak ebaluatuko ditugu, termino horietako ordainak ditugunean.

Ebaluazioan, bi hizkuntzalarik eta bi medikuk parte hartu dute. Lagina, alde batetik hizkuntzalariek ebaluatu dute, eta ostean, lagin berdina medikuek. Horrela, 170 kontzeptu hartu ditugu zoriz ebaluatzaileen arteko adostasuna kalkulatu ahal izateko, eta gainerako 200 kontzeptuak, erdibana banatu ditugu. Horrela, ebaluatzaile bakoitzak euskarazko ordain bat edo hainbat dituzten 270 kontzeptu ebaluatu ditu.

Ebaluatzaileen lana errazteko, interfaze bat prestatu dugu. Interfazean, kontzeptu mailan esanguratsua izan daitekeen informazio guztia erakusten dugu, ebaluatzaileek erabakiak modu erosoan har ditzaten.

Acidosis (disorder) kontzeptuaren ebaluazio-orria 5.8 irudian erakusten dugu. Bertan, kontzeptuaren identifikadorea, SNOMED CTren nabigatzaile ofizialarekin estekatu dugu[7], arakatzaile horretan kontzeptuaren informazio gehigarria eskura daitekeelako (kontzeptuaren egitura hierarkikoa eta hortaz bere guraso eta umeak, adibidez). Identifikadorearekin batera, kontzeptuaren *Fully Specified Name*-a (FSNa) ere agertzen da, kontzeptuaren deskribapen argi eta anbiguotasun gabea izanik, ordainen aukeraketan lagungarria izango

[7]http://browser.ihtsdotools.org/ helbidean topa daiteke nabigatzaile ofiziala (2017ko maiatzaren 9an atzitua).



5.8 irudia – Adituen ebaluaziorako inplementatutako interfazea.

delakoan. Kontzeptu mailako informazioaz gain, ingelesezko zein gaztelaniazko ordain guztiak ere erakusten ditugu, hobetsitako terminoa nabarmenduz.

Bukatzeko, euskarazko ordainak agertzen dira, banan-banan, erabilitako baliabideak adieraziz, baita jatorrizko terminoa zein den (edo zeintzuk diren) adieraziz ere. Ordain bakoitza egokia den edo ez-egokia den erabaki behar dute ebaluatzaileek, eta ez-egokia den kasuetarako, arrazoi bat zehaztu behar dute: “baliokidetza desegokia”, “ortografia akatsa”, “atzizki desegokia”, “kategoria desegokia” edota “beste bat”.

Hurrengo atalean, ebaluazio horien emaitzak aztertuko ditugu.

5.4 Emaitzak

Atal honetan aplikazioaren lehenengo urratsetan lortutako emaitzak aurkeztuko ditugu, baliabide lexikalak erabilita eta NeoTerm erabilita, alegia. Alde batetik, bi urratsen ebaluazio automatikoak erakutsiko ditugu 5.4.1 atalean, eta bestetik, adituen ebaluazioan lortutako emaitzak 5.4.2 atalean.

5.4.1 Ebaluazio automatikoaren emaitzak

Jarraian, automatikoki lortu ditugun emaitzak erakutsiko ditugu. Lehenik eta behin, NeoTerm sistemaren hurbilpen ezberdinen ebaluazioak emango ditugu, sistemaren eboluzioa ikusi ahal izateko. Ostean, SNOMED CTren euskaratzearen estaldurari dagozkion datuak emango ditugu, lau hierarkietarako zenbat kontzeptu eta termino euskaratzeko gai izan garen agerian utziz eta ordainak lortzeko erabilitako baliabide emankorrena zein izan den aztertzeko. Baliabide lexikalen erabilerari buruzko datuak, beraz, estaldurraren datuekin batera emango ditugu, hiztegien doitasuna modu automatikoan neurtzea ezinezkoa zaigulako.

NeoTermen emaitza automatikoak

NeoTerm sistemaren hiru hurbilpenen emaitza automatikoak 5.10 taulan erakusten ditugu. Taulan, egiazko positibo (**E**giazko **P**ositibo), faltsu negatibo (**F**altsu **N**egatibo), faltsu positibo (**F**altsu **P**ositibo) eta egiazko negatibo (**E**giazko **N**egatibo) kopuruak ematen ditugu, doitasuna eta estaldura kalkulatzeko erabili ditugunak. Horretaz gain, F-neurria ere kalkulatu dugu, 5.2 formula erabilita. Kalkulu guztiak termino mailan egin ditugu.

$$F = 2 * \frac{doitasuna * estaldura}{doitasuna + estaldura} \tag{5.2}$$

- Egiazko positiboa (EP): Termino neoklasikoa da, eta sortutako ordaina zuzena da. Zuzena den zehazteko, ordainetako bakarra urre-patroian agertzea nahikoa da.

- Faltsu negatiboa (FN): Termino neoklasikoa da, baina NeoTermek ez du ordainik sortu.

- Faltsu positiboa (FP): Ez da termino neoklasikoa, baina NeoTermek ordaina sortu du, edo terminoa neoklasikoa da, baina ordaina ez da zuzena.
- Egiazko negatiboa (EN): Ez da termino neoklasikoa, eta NeoTermek ez du ordainik sortu.

		EP	FN	FP	EN	Den.	Doi.	Est.	F
Nahasmendu	**Oinarri-lerroa**	289	451	31	77	848	**0,903**	0,391	0,545
	Transliterazioa	615	67	108	58	848	0,851	0,902	**0,875**
	Irizpideak	577	104	102	65	848	0,850	0,847	0,849
Aurkikuntza	**Oinarri-lerroa**	79	171	9	116	375	**0,898**	0,316	0,467
	Transliterazioa	213	29	41	92	375	0,839	0,880	**0,859**
	Irizpideak	178	63	32	102	375	0,848	0,739	0,789
Gorputz-egitura	**Oinarri-lerroa**	121	425	23	205	774	**0,840**	0,222	0,351
	Transliterazioa	322	174	100	178	774	0,763	0,649	**0,702**
	Irizpideak	284	212	91	187	774	0,757	0,573	0,652
Prozedura	**Oinarri-lerroa**	98	77	9	64	248	**0,916**	0,560	0,695
	Transliterazioa	144	16	49	39	248	0,746	0,900	**0,816**
	Irizpideak	140	20	46	42	248	0,753	0,875	0,809
Denera	**Oinarri-lerroa**	587	1.124	72	462	2.245	**0,891**	0,343	0,495
	Transliterazioa	1.295	286	297	367	2.245	0,813	0,819	**0,816**
	Irizpideak	1.179	399	271	396	2.245	0,813	0,747	0,779

5.10 taula – NeoTermen hiru hurbilpenen ebaluazio automatikoa.

Oinarri-lerro sistema da doitasun altuena daukan sistema hierarkia guztietarako, eta nahasmenduen kasuan 0,90 baino altuagoa izatera heltzen da.

Transliterazio moduluaren integrazioarekin, doitasuna 0,08 jaitsi da orokorrean, baina estalduraren kasuan 0,47 irabazi dugu, F-neurrian 0,32ko hobekuntza eraginez. NeoTermen hurbilpen horrekin, oso emaitza onak jaso ditugu, eta tamalez, identifikazioa fintzeko irizpideekin ez dugu gorako joera hori mantendu. Ebaluazio automatikoan erabilitako laginak ez du hobekuntza adierazi, baina baliteke beste lagin batekin edo eskuzko ebaluazioaren ondorioz hobekuntza ikustea, ezarritako irizpideek zentzuzkoak ematen baitute. Hala ere, eskuartean ditugun datuek ez dute hobekuntzarik erakutsi.

Hierarkia batetik bestera, aldeak nabari dira azkeneko hurbilpenari dagokionean: doitasuna pixka bat igotzen da zenbaitetan, eta beste batzuetan jaitsi. Dena dela, orokorrean, aldea arbuiagarria da, eta guztien baturan ez da doitasunean alderik nabaritu. Estaldurari dagokionean, aldiz, emaitzak okertu dira. Estaldura fintzeko irizpideekin, faltsu positiboak gutxitzea zen helburua, eta helburua lortu den arren (26 gutxiago daude), egiazko positiboak nabarmen jaitsi dira (116 gutxiago) eta horrela, estaldura 0,07 jaitsi da.

Emaitza horiek kontuan izanik, identifikazioa fintzeko irizpideek ez diote onura nabarmenik ekarri NeoTerm sistemari. Ondorioz, transliterazio moduluaren hurbilpena da SNOMED CTren ordainak sortzeko erabiliko duguna.

Gogoan hartu behar dugu, ebaluazio honek ez duela kontuan hartu sistemen gainsorkuntza. Beti ere, sortutako ordainen artean zuzena agertzen bada, zuzentzat hartu da sortutakoa. Dena dela, gainsorkuntza oso txikia da hiru hurbilpenetan, eta batazbestean, jatorri termino bakoitzarentzat 1,05 euskal ordain sortzen dira, gainsorkuntza eza izatetik (1etik) oso hurbil.

Ondorengo lerroetan, NeoTerm sistemak egin dituen errore batzuk erakusten ditugu, guri interesgarriak iruditu zaizkigun pare bat fenomeno islatzen dituztenak.

- Zenbakietan nabari ez bada ere, ebaluazio automatikoan erabili dugun urre-patroian hutsuneak aurkitu ditugu. Izan ere, zenbait kasutan ingeles-euskara termino-ordain pareetan, euskarazko ordaina ez dagokio termino neoklasikoari, beste sinonimo bati baizik. Adibidez, *stenocardia* nahasmendurako, hiztegietatik lortzen dugun ordaina "bularreko angina" da, baina horrek ez du esan nahi NeoTermek sortzen duen "estenokardia" okerra denik.

- Horretaz gain, hainbat kasu identifikatu ditugu salbuespen kontsidera daitezkeenak ingeleseko terminoari erreparatzen badiogu. Hau da, Euskal Herriaren hegoaldean, euskararen bizilaguna espainiera da, eta domeinu askotan bezala, medikuntzan ere, termino espezializatuak espainieratik mailegatu dira, eta ez ingelesetik. Horren adibidea da fenilzetonuria terminoaren kasua, ingelesez *phenylketonuria* deritzo, eta hiru afixuk osatzen dute: *phenyl+keton+uria*. Aldaera *keton* afixuan dago. Afixu honen ahoskeran, ingelesez */k/* bada ere, espainieraz, *ceton* afixua erabiltzen da, */z/* fonema duena. Horrela, euskarara ekartzean, afixuaren euskarazko bertsioa "zeton" izan beharko litzateke. Kasu honetan, aurrizki hori ez da gure lexikoian agertzen, eta transliterazio modulua aplikatzean, fenilketonuria euskarazko ordain okerra sortzen dugu.

Azken hurbilpenaren hobekuntza faltari dagokionean, ez dugu ageriko arrazoirik aurkitu ebaluazio testean. Baliteke, adituek egindako ebaluazioan emaitza ezberdinak lortzea, eta hobekuntzarik aurkitzea. Hala ere, ebaluazio honetan, transliterazio modulua bakarrik integratuta duen sistema da emaitza onenak ematen dituena.

SNOMED CTren euskaratze-kopuruak eta estaldura

SNOMED CTren euskaratze-estaldura neurtzeari ekingo diogu jarraian. Baliabide lexikalen ekarpena erakusten dugu 5.11 taulan, jatorri-hizkuntz gisa erabili ditugun ingelesarena eta espainierarena, hain zuzen ere. Zutabeen goiburuei erreparatzen badiegu, "Ord." zutabeetan euskaraz lortutako ordain kopurua adierazten dugu, "Eus." zutabeetan euskaratu ditugun termino kopurua eta "Est" zutabeetan euskaratutako terminoen estaldura.

	Ingelesa			**Espainiera**			**Denera**		
	Ord.	Eus.	Est.	Ord.	Eus.	Est.	Ord.	Eus.	Est.
Nahasmenduak	6.975	5.750	0,050	4.760	3.606	0,040	7.762	9.356	0,045
Aurkikuntzak	2.343	1.635	0,031	2.531	1.340	0,028	3.587	2.975	0,029
Gorputz-egiturak	6.599	4.667	0,054	6.061	3.593	0,064	8.552	8.260	0,058
Prozedurak	1.007	981	0,013	985	590	0,080	1.425	1.571	0,100

5.11 taula – Baliabide lexikalen banakako ekarpena ordain kopuruari dagokionez.

Nahasmenduen hierarkian ingelesaren ekarpena nabarmenagoa da, baita gorputz-egituren hierarkian ere, baina gainerako bi hierarkietan ekarpen antzekoa egiten dute. Kontuan izanda baliabide lexikal berdinak erabili ditugula bi hizkuntzetarako, azpimarratzekoa da ordain kopuruan lortutako ekarpena bi hizkuntzen aldetik. Izan ere, denera lortu ditugun euskarazko ordainak bi hizkuntzen ekarpena gehituaz, hizkuntza bakoitzaren ekarpena baino dezente handiago da.

Hierarkietako ordain kopuruei eta euskaratutako termino kopuruei dagozkion emaitza orokorrak 5.12 taulan ematen ditugu, erabilitako baliabideen arabera sailkatuta. Bertan, baliabide bakoitzarekin lortutako ordainak aurkezteaz gain, ordainak zenbat terminoren bidez lortu ditugun ere erakusten dugu. Horrela, "Ord." zutabeekin ordain kopurua adierazten dugu, eta "Eus." zutabeekin zenbat jatorri-termino euskaratu ditugun.

Ikus dezakegunez, SNOMED CTren eta GNS10ren arteko mapaketa ere gehitu dugu taula horretan, gure sistemaren estalduraren orokortasuna jaso dezagun. Horrela, mapaketa, baliabide lexikalak eta NeoTerm sistemaren estaldura ikus dezagu, eta baita teknika horiekin lortutako estaldura orokorra ere.

NeoTermen ekarpenak mugatua ematen badu ere, kontuan izan termino sinpleak euskaratzeko balio duela bakarrik, eta SNOMED CTn termino

	GNS10 mapaketa		**Baliabide lexikalak**		**NeoTerm**		**Denera**	
	Ord.	Eus.	Ord.	Eus.	Ord.	Eus.	Ord.	Eus.
Nahasmenduak	11.060	-	7.593	9.356	1.951	1.868	20.375	11.290
Aurkikuntzak	2.555	-	3.529	2.975	717	622	6.694	3.619
Gorputz-egiturak	0	-	8.420	8.260	726	676	9.089	8.977
Prozedurak	0	-	1.320	1.337	1.308	1.266	2.561	2.613

5.12 taula – SNOMED CTren euskaratutako termino zein ordainen kopuruak.

sinpleen agerpenekin alderatuz, ekarpena ez da batere mugatua 5.14 taulan ikusiko dugun bezala.

Mapaketa oso emankorra da nahasmenduak euskaratzeko garaian, 11.060 kontzepturen ordainak lortu baitira. Kontuan izan, mapaketa hori kontzeptu mailakoa dela, eta kontzeptu bati euskarazko ordain bakar bat esleitzen zaio.

Baliabide lexikalak izan dira orokorrean ekarpen handiena egin dutenak, bai euskaratutako termino kopuruari dagokionean, bai eta lortutako ordainei dagokionean. Kontuan izan behar da, kasu horretan ingelesezko zein espainierazko terminoen ordainak lortu ditugula.

	Nahasmenduak		**Aurkikuntzak**		**Gorputz--egiturak**		**Prozedurak**	
	Ord.	Bak.	Ord.	Bak.	Ord.	Bak.	Ord.	Bak.
ZT Hiztegia	975	269	401	98	1.754	437	294	106
Euskalterm	5.259	3.945	1.654	1.207	3.932	2.357	729	559
Anatomia	13	12	5	4	3.571	3.120	3	2
Erizaintza	487	103	480	179	1.236	271	235	89
GNS10	2.512	1.730	403	278	425	179	9	9
AdminSan	12	6	12	6	11	6	70	28
Elhuyar	142	136	1.280	1.253	312	296	309	303

5.13 taula – Hiztegien banakako ekarpena ordain kopuruari dagokionez.

Baliabide lexikalen ekarpena zehatzago aztertzeko 5.13 taula ikus dezakegu. Bertan, ordainen jatorriaren banakapena erakusten dugu, hiztegi bakoitzak zenbat ordain eman dituen (“Ord.” zutabeak) eta berak bakarrik horietako zenbat eman dituen erakusten dugu (hizkuntza kontuan izan gabe, “Bak.” zutabeetan). Aipatu nahi dugu, jatorrizko termino baterako ordain

bakarra lortu arren, hori baliabide lexikal ugarietatik errepikatuta lor dezakegula. Adibidez, *eye* terminoarentzat begi ordaina hainbat hiztegietatik lortuko dugu. Horrela, aurreko 5.12 taulako baliabide lexikalen emaitzak ez dira 5.13 taularen batura. Taulak, terminoen "espezializazio maila" edo "ezagutza mailaren" erreferentzia eman ahal digu. Adibidez, begi hitza arrunta izanagatik hainbat iturritatik jasotzen dugu, baina endosteo[8] bezalako termino espezializatua Anatomiako Atlasean baino ez dugu aurkitu.

Adibidez, ZT Hiztegia emankorra dela ematen badu ere, ikus dezakegunez, eskaintzen dituen ordain gehienak gainerako hiztegietan ere agertzen dira. Aldiz, Giza Anatomiako Atlasak, proposatzen dituen ordainak bakarrak dira orokorrean. Honek adierazten digu, Giza Anatomiako Atlasak egiten duen ekarpena oso baliagarria zaigula ordain berriak lortzeko garaian, bereziki, zentzuzkoa den moduan, gorputz-egituren hierarkian.

Estalduraren beste ikuspegi bat ikus dezakegu 5.14 taulan. Bertan, jatorrizko ingelesezko terminoen token kopuruaren arabera ematen ditugu zenbakiak. Horrela, hierarkia bakoitzean, zenbat terminoren ordainak lortu diren ("Eusk." lerroak) erakusten dugu, token kopuruaren arabera. Gainera, denera hierarkia horretan zenbat termino dauden ingelesezko bertsioan ("Den." lerroak) eta euskaratutakoen estaldura ("Estal." lerroak) ematen ditugu. Taulak erakusten digunez, token bakarreko termino gehienak euskaratu baditugu ere (nahasmenduen % 84,5a, aurkikuntzen % 74,7a, gorputz-egituren % 73,6a eta prozeduren %85,5a), oso termino konplexu gutxi euskaratzeko gai izan gara.

Estaldurari dagozkion emaitza orokorrekin bukatzeko, zenbat kontzepturen ordainak lortu ditugun zenbatu dugu. Baliabide lexikalak eta NeoTerm erabilita automatikoki euskaratutako kontzeptuen estaldura erakusten dugu 5.15 taulan. Ikus dezakegunez, bai nahasmenduetan eta bai gorputz-egituretan euskaratutako kontzeptuen portzentajea altua da (% 17tik gorakoa), orain arte garatutako sistemen murriztapena kontuan hartzen badugu. Prozeduren hierarkiari dagokionean, euskaratutako kontzeptuen portzentajea oso baxua da. 5.14 taula gogora ekartzen badugu, gogoratu behar dugu termino sinpleen ia % 90a itzultzeko gai izan garen arren, prozeduren hierarkian termino sinpleen populazioa oso txikia da, eta horrela uler daiteke osotasunean lortutako estaldura baxua.

Hala ere, ezin dugu ahaztu, nahasmenduen hierarkian GNS10 eta SNOMED CTren artean egindako mapaketak egin duen ekarpena (11.000 kon-

[8]https://en.wikipedia.org/wiki/Endosteum (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

		token1	2token	3token	4token	≥5token	Denera
Nahas-menduak	**Eusk.**	3.265	2.280	1.252	433	454	7.684
	Den.	3.865	21.003	25.038	20.757	44.167	114.830
	Estal.	0,845	0,109	0,050	0,021	0,010	0,067
Aurki-kuntzak	**Eusk.**	1.449	529	142	60	99	2.279
	Den.	1.940	9.737	11.906	11.317	24.640	59.540
	Estal.	0,747	0,054	0,012	0,005	0,004	0,038
Gorputz--egiturak	**Eusk.**	1.907	2.167	1.024	239	47	5.384
	Den.	2.592	10.863	12.599	10.635	22.695	59.384
	Estal.	0,736	0,200	0,081	0,023	0,002	0,091
Proze-durak	**Eusk.**	1.698	227	48	35	15	2.023
	Den.	1.985	9.892	15.399	17.082	42.746	87.104
	Estal.	0,855	0,023	0,003	0,002	0,001	0,023

5.14 taula – Jatorrizko ingelesezko terminoen token kopuruaren araberako emaitzak terminoak kontuan izanik.

	Nahasmenduak	Aurkikuntzak	Gorputz--egiturak	Prozedurak
Euskaratuak	15.163	4.079	5.432	1.799
Denera	68.815	37.888	30.871	55.128
Estaldura	0,220	0,108	0,176	0,033

5.15 taula – Emaitza orokorrak, GNS10ekin mapaketa, baliabide lexikalak eta NeoTerm erabilita, kontzeptuak kontuan izanik.

tzeptutik gora), eta Giza Anatomiako Atlasak gorputz-egituretan egin duena (3.000 ordain berri baino gehiago).

Zenbaki horiek ahaztu gabe, hurrengo atalean adituek egindako ebaluazioaren emaitzak aztertuko ditugu, estaldurari dagozkion datuak doitasunarekin osatzeko.

5.4.2 Adituen ebaluazioaren emaitzak

Atal honetan, adituen ebaluazioaren emaitzak erakutsiko ditugu. Ebaluazioaren diseinuan aipatu dugun bezala (5.3 atala), ebaluatzaile bakoitzari 270 kontzeptuz osatutako lagina eman diegu, denera 370 kontzeptuko lagina ebaluatu ahal izateko adostasun neurriak ere kontuan hartuz. Hala ere, hizkuntzalarien arteko ebaluazioan, laginketan arazo bat gertatu da, eta emandako lagina berdina izan da. Horrela, ebaluatzaile bakoitzari 50 kontzeptu

gehigarri eman behar izan dizkiegu laginaren osotasuna ebaluatu ahal izateko. Hortaz, hizkuntzalarien kasuan 269 kontzeptu dituzte komunean eta medikuek 170 6.2 irudian erakusten dugun moduan. Guztien arteko adostasuna neurtzeko lagina ere 170 kontzeptuetakoa da.



5.9 irudia – Adituei banatutako laginaren tamaina.

Ebaluatzaileen arteko adostasun neurriekin hasiko dugu emaitzen atal hau. Adostasun hori neurtzeko neurri asko daude, baina ohikoena kappa (κ) neurria da. Bi ebaluatzaile diren kasuetan Cohenen *kappa* (Cohen, 1960) erabiltzen da, eta bi baino gehiago direnean Fleissena (Gwet, 2014, Artstein eta Poesio, 2008). Izan ere, adostasunen portzentajeak ez du auzakotasuna kontuan hartzen eta hori bera da *kappa*k egiten duena. Horrela, adostasunak kontuan izateaz gain, ebaluatzaile bakoitzak zoriz ebaluatuko balu, ados egoteko proportzioa ere kontuan hartzen du neurri horrek.

Kappa balioaren interpretazioa konplexua den arren, zabaldutako tarteen interpretazio bat dago (Landis eta Koch, 1977), non 0-0,2 balioen artekoa arina den, 0,2-0,4 artekoa dezentekoa, 0,4-0,6 artekoa neurrizkoa, 0,6-0,8 artekoa sendoa eta 0,8-1,0 balioen artekoa ia perfektua.

Kappa neurriak termino mailako adostasunarekin atera ditugu. Kontzeptuen *kappa* ateratzeko arazoak ditugu, kontzeptu bakoitzean hainbat ebaluaziok parte hartzen dutelako, eta batetik bestera kopurua oso aldakorra delako. Kasu batzuetan ordain bakarrak osatzen du kontzeptua, eta hortaz, ebaluazio bakarrean adostasuna behar dugu. Beste kasu batzuetan aldiz, ordain gehiago daude, eta ondorioz, ebaluazio gehiagotan ados egon behar dute ebaluatzaileek. Hori guztia kontuan hartuta, ezin dugu kontzeptu ba-

tean orokorrean, zoriz zenbatetan ados egongo diren kalkulatu, aldakorra baita kopurua.

Aditu talde bakoitzaren barneko *kappa* neurria kalkulatu dugu 5.16 taulan, ebaluatzaile guztien adostasunarekin batera. Bi ebaluatzaileren adostasuna neurtzeko Cohenen *kappa* kalkulatu dugu, eta ebaluatzaile guztiena kalkulatzeko Fleissena. Bertan ikus dezakegunez, ebaluatzaile guztien arteko *kappa* balioa 0,56koa da, hizkuntzalarien artekoa 0,64koa eta medikuen artekoa 0,67; 11 eta 12 puntu altuagoa hurrenez hurren. Horrela, guztien arteko adostasuna neurrizkoa bada ere, aditu talde bakoitzaren adostasuna sendoa da.

	Hizkuntzalariak		**Medikuak**		**Denak**	
	Kontz.	**Termino**	**Kontz.**	**Termino**	**Kontz.**	**Termino**
Denera	269	566	170	346	170	346
Berdin	195	487	124	305	95	237
Ezberdin	74	79	46	41	75	109
Adostasuna	% 72,49	% 86,04	% 72,94	% 88,15	% 55,88	% 68,50
Kappa		0,64		0,67		0,56

5.16 taula – Ebaluatzaileen arteko adostasuna.

Lortutako kappa balio guztiak, Workshop of Machine Translation (WMT) kanpainetan egin izan diren balioen gainetik daude (Bojar *et al.*, 2014). Kappa neurriaren esanahia lausoa da, eta kontuz ibili behar gara honen interpretazioa egiterakoan. Are gehiago, ataza ezberdinetako emaitzak konparatzen ditugunean, sistema ezberdinak, ebaluazio multzo ezberdinak eta ebaluazio-metodoak ezberdinak dituztelako. Hala ere, gure kappa balioak ikerketa honetarako onargarriak dira Landis eta Koch-en (1977) irizpideak jarraituz.

Bi aditu taldeen artean aldea nabaria denez, emaitza orokorrak emateaz gain, aditu taldeen arabera ere emango ditugu. Horrela, 5.17 taulan, ordainen ebaluazioa erakusten dugu, sorkuntza metodoaren arabera sailkatuta. Hau da, SNOMED CTren eta GNS10 arteko mapaketaren bidez lortutako terminoen, baliabide lexikalen bidez lortutako ordainen eta NeoTerm sistemak sortutako ordainen ebaluazioa erakusten dugu.

Emaitzak kalkulatzeko, ebaluazio komunetan bozketa bidez egin dugu kontaketa. Egoki bozkatu dutenak zenbatu ditugu, eta ez-egoki bozkatutakoak, eta bozka gehien jaso dituen aukera da irabazlea. Desadostasun garbia dagoen kasuetan (batek egoki eta besteak ez-egoki) ezin izan dugunez eraba-

kirik, “berdinketa” lerroan zenbatu ditugu eta ez ditugu doitasuna kalkulatzeko erabili. Termino ez-komunen kasuan, ebaluatzaile bakarrak emandako iritzia izan dugu kontuan. Emaitza orokorren kasuan, termino guztiek izan dute ebaluatzaile bat baino gehiago, eta termino bakoitzaren ebaluazioan bi, hiru edo lau ebaluatzailek parte hartu dute. Kasu horretan ere, metodo berdina erabili dugu terminoaren ebaluazioa aukeratzeko. Ezin dugu ahaztu hizkuntzalariek termino gehiago ebaluatu dituztela, eta hortaz, emaitza orokorretan haien eragina nabarmenagoa dela.

	GNS10 mapaketa			**Baliabide lexikalak**			**NeoTerm**		
	Hizk	**Med**	**Den**	**Hizk**	**Med**	**Den**	**Hizk**	**Med**	**Den**
Denera	60	60	60	406	406	406	400	400	400
Egoki	12	35	18	237	299	265	324	319	324
	(% 20)	(% 58)	(% 30)	(% 58)	(% 74)	(% 65)	(% 81)	(% 80)	(% 81)
Ez-egoki	35	19	25	119	86	95	55	66	56
	(% 58)	(% 32)	(% 42)	(% 29)	(% 21)	(% 23)	(% 14)	(% 17)	(% 14)
Berdinketa	13	6	17	50	21	46	21	15	20
	(% 22)	(% 10)	(% 28)	(% 12)	(% 5)	(% 11)	(% 5)	(% 3)	(% 5)
Doitasuna	0,26	0,65	0,42	0,67	0,78	0,74	0,85	0,83	0,85

5.17 taula – Ordainen ebaluazioa, sorkuntza metodoaren arabera sailkatuta.

Taulak erakusten dizkigun emaitzak ikusita, termino neoklasikoetarako garatutako NeoTerm sistemak ematen ditu emaitzarik onenak, aditu talde guztien arabera (0,85eko doitasuna orokorrean eta hizkuntzalarien arabera eta 0,83koa medikuen arabera). SNOMED CTren eta GNS10en arteko mapaketak izan du doitasun baxuena, eta aldi berean desadostasun handiena. Hizkuntzalariek 0,26ko doitasuna eman dioten bitartean, medikuek 0,65ekoa eman diote. Uste dugu, GNS10aren izaerak baldintzatu duela desadostasun nabari hori. Izan ere, aipatu bezala GNS10 sailkapen bat da, eta horrela adierazten dira bertako kontzeptuak ere. Adibidez, “konjuntibitisa, zehaztugabea” deskribapenaren bidez adierazten da konjuntibitis kontzeptua. Gure hipotesiaren arabera, medikuak sailkapen honekin lan egiten ohituta daudenez, arrotza ez egiteaz gain, kontzeptua bera adierazteko deskribapena balkeotzat hartu dute. Gure hipotesiari jarraiki, hizkuntzalariek, alde linguistikoari begiratuta, ez dute termino egokitzat jo. Gainera, badirudi medikuek ez diotela garrantziarik eman terminoen bukaerako “-a” mugatuaren deklinabideari eta egokitzat hartu dituzte mugatuan agertzen diren termi-

noak. Hizkuntzalariek aldiz, terminoak forma mugagabean adierazi behar direla kontuan hartu dute, eta ez-egokitzat hartu dituzte.

Baliabide lexikalen kasuan, ez genuen espero doitasuna NeoTermena baino baxuagoa izatea. Emaitzak hobeto ulertzeko 5.18 taula sortu dugu, baliabide lexikal bakoitzaren emaitzak erakusteko.

		Egoki	**Ez-egoki**	**Berdinketa**	**Denera**	**Doitasuna**
ZT Hiztegia	Hizk	128	4	10	142	0,97
	Med	127	8	7	142	0,94
	Den	135	2	5	142	0,99
Euskalterm	Hizk	96	8	13	117	0,92
	Med	96	16	5	117	0,86
	Den	98	12	7	117	0,89
Anatomia	Hizk	28	17	1	46	0,62
	Med	30	15	1	46	0,67
	Den	29	15	2	46	0,66
Erizaintza	Hizk	92	3	14	109	0,97
	Med	100	7	2	109	0,93
	Den	103	6	0	109	0,94
GNS10	Hizk	18	20	7	45	0,47
	Med	42	1	2	45	0,98
	Den	23	6	16	45	0,79
Elhuyar	Hizk	29	66	13	108	0,31
	Med	57	44	7	108	0,56
	Den	37	53	18	108	0,41

5.18 taula – Baliabide lexikalen emaitzak.

Doitasunari erreparatzen badiogu, ZT Hiztegiak, Euskaltermek eta Erizaintzako Hiztegiak lortutako emaitzak azpimarragarriak dira, 0,9tik gorako doitasuna izan baitute oro har. Giza Anatomiako Atlasak lortutako emaitzak harritu gaitu nabarmen, doitasun altuagoa espero baikenuen. Dena dela, Giza Anatomiako Atlasaren lagina gehienena baino txikiagoa izateak eragina izan dezake. GNS10aren kasua ere nabarmentzekoa da, izan ere, mapaketarekin gertatzen den bezala, hizkuntzalariek oso doitasun baxua eman dioten bitartean, medikuek doitasun altuena eman diote. Kasu horretan ere, lagina Giza Anatomiako Atlasaren antzekoa da tamainan. Elhuyar Hiztegi orokorraren kasuan, aurreikusi genuen bezala, doitasun baxuagoa dauka gainerako hiztegi espezializatuek baino. Dena dela, ezin dugu ahaztu ez dugula sinonimoak lortzeko erabili, eta hortaz, egiten duen ekarpena, sinbolikoa bada ere,

euskaratzean lagungarri izan daiteke. ZT Hiztegiaren kasuan, doitasunaren datuak aztertzen baditugu, denen arteko emaitza aztertzean (0,99), adituek beraien arteko doitasuna (0,97 hizkuntzalariek eta 0,94 medikuek) baina altuagoa dela ikus dezakegu. Kontuan izan, bozketa bidezko emaitzak erakutsi ditugula, eta kasu horietan, bozketaren ondorioz termino gehiago egokitzat hartu ditugu, talde baten barruan berdin berdinduak egon zitezkeen terminoak bestean egokitzat jo direlako.

Jarraian, topatutako fenomeno interesgarrien analisia egingo dugu:

- GNS10aren sortze data dela-eta (1996), gaur egungo Euskaltzaindiaren arauren bat betetzen ez duela ohartu gara, 5.10. adibidean ikus dezakegunez. Horrek arazo bat sortzen digu ordainen sendotasunean. Arazoari konponbidea eman diogu -ejia atzizkidun terminoetan ordezkapen automatikoak eginez.

Ingelesezko terminoa: *Hemiplegia*
GNS10: hemiplejia
ZT Hiztegia eta Erizaintzako Hiztegia: hemiplegia

5.10 irudia – Arau ortografikoak betetzen ez dituen GNS10aren adibide bat.

- GNS10arekin jarraituz, termino bat deskribatzeko ohikoak ez diren egiturak aurkitu ditugu (ikus 5.11. adibidea). Egitura horrek ez ditu termino izateko irizpideak betetzen, tartean "," bat txertatzen duelako, besteak beste. Adibideari jarraiki, horren ordain onargarriagoa "kanpoaldeko goiko ezpain" litzateke.

Ingelesezko terminoa: *External upper lip*
GNS10: goiko ezpaina, kanpoaldea

5.11 irudia – Terminoen egitura ohikoa betetzen ez duen GNS10aren adibide bat.

- Amaitzeko, aurretik aipatu dugun mugatasunaren arazoa identifikatu dugu GNS10aren kasuan bereziki. Bertako termino gehienak forma

mugatuan agertzen dira, eta hori ez da termino baten forma egokia. Aurretik aipatu bezala, arazo horri aurre egiteko, beste hiztegiek sinonimoak eman dituzten kasuetan, bertan terminoa mugatasunaren markarik gabe agertzen bada, GNS10eko ordainean zuzendu egin dugu. Gainerako kasuetan, ezin izan dugu erabaki, medikuntzako atzizki askotan aurkitu baitugu "-a" itsatsia ("-algia", "-kardia", "-zefalia",...).

5.5 Laburpena eta ondorioak

Kapitulu honetan, bereziki termino sinpleen sorkuntzan egindako ekarpena azaldu dugu. Alde batetik, gaur egun eskura ditugun baliabide lexikal espezializatu eta eleanitzak integratu ditugu EuSnomed aplikazioan. Erabilitako baliabideen artean, SNOMED CTren euskaratzean emaitza esanguratsuenak lortu dituztenak ZT Hiztegia (0,99ko doitasuna), Euskalterm terminologia bankua (0,89ko doitasuna) eta Erizaintzako Hiztegia (0,94ko doitasuna) izan dira emaitzen ataleko adituen ebaluazioaren arabera (5.18 taula). Giza Anatomiako Atlasak doitasunari dagokionean ez bada horren nabarmena izan, gorputz-egituren euskaratzean izan duen ekarpena nabarmentzekoa izan da (3.120 ordain berri 5.13 taulan).

Bestetik, termino neoklasikoak euskaratzeko sistema bat sortu dugu, NeoTerm, eta honen hiru hurbilpen garatu ditugu. Lehenengo hurbilpena, oinarri-lerro sistema da, afixu neoklasikoen konposaketan oinarritzen dena. Hurbilpen honek doitasun altua izan arren (0,891), estaldura ez da horren ona (0,343), eta horrela, bigarren hurbilpenean, estaldura hobetzea izan da lehentasuna.

Estaldura hobetzeari begira, bigarren hurbilpenean transliterazio modulu bat integratu dugu, afixuen hiztegiak zabaltzearekin batera. Doitasunean emaitza kaskarragoak lortu baditugu ere (8 puntu gutxiago), estaldura asko igo da (48 puntu), eta horrela, estaldura eta doitasuna orekatzea lortu dugu, 0,81eko F-neurria lortuz.

Azkeneko hurbilpenean, termino neoklasikoen identifikazioa findu nahi izan dugu, termino neoklasikoak ez diren terminoak NeoTermek baztertu ditzan, eta horrela erroreak ez sortzeko. Horretarako, identifikaziorako algoritmoa findu dugu, adituek proposaturiko irizpideak kontuan izanik. Hurbilpen honekin aldiz, ez dugu emaitzak hobetzea lortu, eta bigarren hurbilpenarekin alderatuta, doitasuna bere horretan geratu bada ere, estaldurak 7 puntu behera egin du.

Horrela, EuSnomeden NeoTermen bigarren hurbilpena integratu dugu, transliterazio moduluan oinarritzen dena, alegia.

Emaitzetan ikusi ahal izan dugun bezala (5.14 taulan), termino sinpleen euskaratzean portzentaje altuak lortu baditugu ere (% 75 gora lau hierarkietan), termino konplexuen kasuan estaldurak ematen dizkigun zenbakiak oso baxuak dira.

Hori guztia kontuan izanik, hurrengo kapituluan termino konplexuen euskaratzeari helduko diogu, eta horretarako garatutako sistemak azalduko ditugu, bata termino habiaratuetan oinarrituta, eta bestea itzultzaile automatiko baten domeinurako egokitzapena eginda.

6

Termino konplexuak: termino habiaratuak eta itzultzaile automatiko baten egokitzapena

- **Google** enpresaren Google Translate dohaineko itzulpen-zerbitzua aski ezaguna da mundu osoan zehar. 2001 urtean argitaratu zutenetik 2005-2006 urte ingurura arte, Google Translate Systran deituriko erregeletan oinarritutako sisteman oinarritzen zen. Hasiera horietan, ingelesaren eta beste zortzi hizkuntzen arteko itzulpenak egiten zituen. 2005 urtetik aurrera, sistema estatistikoak erabiltzen hasi ziren, gerora hizkuntza guztietara zabaltzeko eta urte bereko *NIST DARPA TIDES Machine Translation Evaluation* izeneko txapelketan lehenengo postua eskuratu zuten arabiera-ingelesa eta txinera-ingelesa sistema estatistikoekin[11]. Estatistikan oinarritutako itzulpen-sistemek Europar Batasunaren eta Nazio Batuen dokumentazio paraleloa erabiltzen dute eta baita webetik erauzitako datu paraleloak ere.

  2010etik aurrera, euskararako *alpha* bertsioa argitaratu zuten, eta gaur egunean 90 hizkuntzetarako eskaintzen dituzte itzulpen-sistemak. Goo-

[10] http://qtleap.eu (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

[11] NISTetik jasota http://www.itl.nist.gov/iad/mig//tests/mt/2005/doc/mt05eval _official_results_release_20050801_v3.html (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

gle Translate tresnak, corpus paralelo txikia duten hizkuntza pareetarako, ingelesa *pibote* hizkuntza gisa erabiltzen du itzulpenak egiteko. Hau da, jatorri-hizkuntzatik, aurrena ingelesera itzultzen du, eta ostean ingelesetik helburu-hizkuntzara.

Oso zehaztasun gutxi ezagutzen dira Google Translate sistemaren inguruan, eta garatzaileek azkeneko berriak eta egitura orokorrari buruzko informazio minimoa baino ez dute argitaratzen. Horrela, sistema dohainekoa izan arren, kodea ez dago eskura egokitzapenak egin ahal izateko.

- **Lucy** sistema Eusko Jaurlaritzaren proiektu bati esker gaztelania-euskara eta beranduago ingelesa-euskara pareetarako garatu zen. Oso zaila da itzultzaile komertzial honi buruzko informazioa lortzea. Komertziala den heinean, ez dute sistemaren zehaztasunik eman inongo ikerketa kongresutan edo aldizkaritan. Hala baina, sarean aurkitutako aurkezpen baten diapositibetan (Gieselmann, 2008) eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) web-orrian lortutako informazioari[12] esker, sistemaren datu orokor batzuk jakin ditzakegu: i) erregeletan oinarritzen den sistema hau, analisi morfologiko zein sintaktikoan oinarritzen da; ii) transferentzia lexikala eta egiturazkoa egiteaz gain, testuinguruaren transferentzia ere egiten du; eta iii) sorkuntza morfologikoaz gain, helburu-hizkuntzaren araberako prozesuak ere egiten ditu.

- **EuSMT** IXA taldean garatutako sistema estatistikoa da. Mosesen oinarrituta, bi hurbilpen garatu dira ingelesa-euskara hizkuntza parerako. Lehenengo hurbilpena, oinarri-lerroa deiturikoa (**EuSMTo**), Mosesen bidez sortutako hitz-segidetan oinarritutako IAE sistema estandarra da. Entrenamenduan erabilitako corpus-paraleloaren % 85a Elhuyarren itzulpen-memorietatik erauzia izan da eta gainerako % 15a webetik automatikoki erauzia izan da PaCo2 (San Vicente eta Manterola, 2012) tresna erabiliz.

  Bigarren hurbilpenean, segmentazioa gehitu zaio sistemari (**EuSMTs**). IAE sistemek hizkuntza antzekoen artean funtzionatzen dute hobeto, hau da, ezaugarri gramatikal antzekoak dituztenen artean. Kasu honetan, ingelesa hizkuntza nagusiki analitikoa da, morfema bakoitzerako

[12] http://www.habe.euskadi.eus/s23-4728/es/contenidos/noticia/tzulpenautomatikoa_mintegia16/es_def/index.shtml (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

hitz bat duelarik eta euskara aldiz, eranskaria da, morfemak elkartuz hitzak sortzen dituelarik. Bi hizkuntzen arteko loturan laguntzeko segmentazioa erabiltzen da (Al-Haj eta Lavie, 2012; Naradowsky eta Toutanova, 2011). Segmentazioaren bidez, hizkuntza eranskarien hitzak morfemetan banatzen dira, eta horrela hizkuntza analitikoarekin parekatzea errazten da.

- **SMatxinT** sistema EuSMTren bi hurbilpenak eta Matxin hibridatuz IXA taldean sortutako sistema da, España Bonet *et al.* (2011) eta Labaka *et al.* (2014) jarraituz. Egileek azaltzen duten bezala, orokorrean EOIA sistemak berrantolaketa sintaktikoan hobeak dira eta COIA sistemek lexikoaren aukeraketa hobea egiten dute. Oinarri horrekin sortu zuten SMatxinT sistema hibridoa (6.9 irudia).



6.9 irudia – SMatxinTren arkitektura orokorra non EOIA moduluak grises nabarmenduak agertzen diren. Irudia España Bonet *et al.* (2011) artikulutik jaso dugu.

Amaitzeko, ingelesa-euskara hizkuntza parerako azaldu ditugun sistemen laburpena erakusten dugu 6.9 taulan.

6.2.2 MatxinMed: sistemaren egokitzapena

Azken urteetan itzultzaile automatikoak domeinu zehatzera egokitzeko joera zabaldu da, frogatu baita domeinura mugatzean, domeinu horretako itzulpenen kalitatea hobetzen dela. Erregeletan oinarritutako sistemak domeinu zehatzetara egokitzeko, hiztegiak eta gramatikak egokitu beharko liratekeen

	EOIA	COIA
Matxin	✓	
TectoMT	✓	(✓)
Google		✓
Lucy	✓	
EuSMT		✓
SMatxinT	✓	✓

6.9 taula – Ingelesa-euskara hizkuntza parerako sistemen laburpena, non EOIAk Erregeletan Oinarritzen diren Itzultzaile Automatikoak diren eta COIAk Corpusetan Oinarritzen diren Itzultzaile Automatikoak diren.

arren, horretarako eskuzko lan handia egin behar denez, ohikoa da egokitzapena hiztegiak zabaltzera mugatzea (Weijnitz *et al.*, 2004). IAEak aldiz, domeinu zehatzetara egokitzeko, domeinu horretako corpus-paraleloak behar dira.

Matxin aukeratu dugu osasun-zientzien domeinura egokitzeko sistema moduan, ingelesa-euskara parerako ditugun baliabideak kontuan izanik, erregeletan oinarritutako sistema bat baita gure ustez bideragarriena. Euskararako osasun-arloko corpus-paraleloen urritasunak Itzultzaile Automatiko Estatistiko bat egokitzea oraingoz oso zaila egiten du. Gainera, Matxin IXA taldean bertan garatua izanik, egokitzapenean lagundu ahal gaitun ikerlari-taldea hurbil dugu. Horretaz gain, hiztegia modu errazean zabal daiteke, eta inbertsio txikiarekin, sistema domeinura egokitu dezakegu.

Atal honetan beraz, Matxin itzultzaile automatikoaren osasun-zientzien domeinurako egokitzapena, MatxinMed, azalduko dugu.

Gogora ekarri behar dugu, EuSnomeden laugarren urratsa dugula hau, eta aurreko urratsetan garatu ditugun teknikek kale egiten dutenean erabiliko dugula MatxinMed. Kontuan izanik Itzultzaile Automatikoak esaldiak itzultzeko diseinatuta daudela, terminoen euskaratzean ez ditugu kalitate altuko emaitzak espero, baina jatorrizko terminoak euskaratu gabe uztea baino irtenbide hobea iruditzen zaigu. Horrela, SNOMED CTren euskarazko bertsioaz arduratuko diren adituei erraztasunak eman nahi dizkiegu, euskarazko proposamenetatik abiatuko baitira terminoak aukeratzerako garaian, eta ez hutsetik.

Hurrengo lerroetan, Matxini egindako egokitzapenak azalduko ditugu, MatxinMed sortzeko egindako aldaketak, hain zuzen ere. Egokitzapen ho-

riek, Matxinen transferentzia lexilakaren moduluan egin ditugu. Lehenik eta behin, Matxinen domeinua aukeratzeko funtzionalitatea eta hiztegiaren zabaltzea azalduko dugu. Bigarrenik, NeoTerm sistemaren integrazioaren berri emango dugu. Jarraian, ordainen arteko ordena zehazteko erabilitako hizkuntza-eredua aurkeztuko dugu. Azkenik, termino konplexuak ezagutzeko erregelen berri emango dugu.

Domeinuen aukeraketarako funtzioa eta hiztegiaren zabaltzea

Aurreko atalean azaldu bezala, Matxin Erregeletan Oinarritutako Itzultzaile Automatikoa da. Lexikoa aukeratzeko baliabide nagusia hiztegia da, Matxinek formatu zehatz batean gordeta duena. Hiztegi horrek, transferentzia lexikoa egiteko beharrezko informazio guztia jasotzen du, hitzen itzulpenak eta hitzaren kategoria gramatikala, besteak beste.

Matxinek hiztegia XMLz gordetzen du, eta hiztegi horren sarrera batzuen informazioa erauzi dugu 6.10 taulan. Taulako bigarren lerroan, toki-izen bat dago, *croatia*, eta horrekin batera euskarazko ordaina (Kroazia) zenbatgarren adiera den eta kategoria gramatikala ("NP_IZE_LIB", "IZE" etiketak izena adierazten du, eta "LIB" etiketak leku-izen berezia dela). Hirugarren lerroan *croatian* adjektiboa eta bere informazioa agertzen da ("NP_ADJ_IZO" etiketarekin, "ADJ" etiketak adjektiboa adierazten du, eta "IZO" etiketak izenondoa dela) eta seigarrenean "cross" izen arrunta ("NP_IZE_ARR", "ARR" etiketak izen arrunta dela adierazten du).

Ingelesa	**Euskara**	**Adiera**	**Kategoria**	**Domeinua**
colon	bi_puntu	1	NN_IZE_ARR	
croatia	Kroazia	1	NN_IZE_LIB	
croatian	kroaziar	1	NN_ADJ_IZO	
cross	gurutze	1	NN_IZE_ARR	
crown	koroa	1	NN_IZE_ARR	Med

6.10 taula – Matxinen hiztegiaren sarrera batzuen informazioa.

Hiztegi hori aberasteko orduan eta osasun-zientzietako terminoak sartzerakoan, modu errazean bereiz daitezen, hiztegi-sarrerei ezaugarri berri bat gehitu diegu domeinua adierazten duena, XMLean `dom` etiketaren bitartez. Ezaugarri horretan "Med" etiketa erabili dugu MatxinMed sortzeko. Adibidean ikusten dugunez (6.10 taula), zazpigarren lerroan *crown* izen arrunta,

domeinu orokorrekoa izateaz gain, osasun-zientzien domeinukoa ere denez (hagineko koroa, adibidez), domeinuko etiketa gehitu diogu.

Matxinen hiztegiko sarrerak ataletan edo *section*-etan multzokatuta daude. Guk SNOMED CTren euskaratze-algoritmoari esker euskaratu ditugun ordainak gehitu ditugu hiztegira. Horretarako, automatikoki dagoeneko hiztegiratutako sarrerak errepasatu ditugu, eta sarrera aurkitzekotan domeinuari dagokion etiketa gehitu diogu. Bestelakoetan, hiztegian atal (`section`) berri bat gehitu diogu hiztegiari, kasu honetan *medicine* deiturikoa, eta bertan parekatze berriak gehitu ditugu. Hurrengo adibidean (6.11 taula), *medicine* ataleko sarrera batzuk ikus ditzakegu, denak osasun-zientzien domeinukoak.

Ingelesa	**Euskara**	**Adiera**	**Kategoria**	**Domeinua**
colon	kolon	2	NN_IZE_ARR	Med
noradrenaline	noradrenalina	1	NN_IZE_ARR	Med
noradrenaline	norepinefrina	2	NN_IZE_ARR	Med
steatopygia	esteatopigia	1	NN_IZE_ARR	Med
sacculotomy	sakulotomia	1	NN_IZE_ARR	Med
cholangiohepatitis	kolangiohepatitis	1	NN_IZE_ARR	Med

6.11 taula – Matxinen hiztegi espezializatuaren sarrera batzuen informazioa.

Aipatu dugun moduan, hiztegia elikatuz Matxini domeinu zehatz batera egokitzeko aukera gehitu diogu. Hori horrela izanik, `sense` eta `dom` ezaugarriek berebiziko garrantzia hartzen dute diseinu berrian, bien edukiari begiratuta egiten baita hitzen edo terminoen aukeraketa.

Matxinek, hitz baten ordaina aukeratzeko, hiztegi-sarreraren `sense` ezaugarriari begiratzen dio eta balio baxuena duen parekatzea aukeratzen du ordaina lortzeko. Aukeraketa konplexuagoak ere baimentzen ditu Matxinek, testuinguruaren arabera ordain baten alde egiteko. Arau zehatzak definitu behar dira, ordea, horretarako.

Hori horrela izanik, funtzionalitate berria definitu dugu, domeinua zehaztuta, Matxinek domeinu horretako ordainak hobetsi ditzan. Aukera eman diogu nahi adina domeinu zehazteko, eta haien artean hierarkia bat sortzeko. Horretarako erabiltzaileak hierarkien arteko ordena konfiguratu beharko du. Hitzaren ordaina bilatzean, lehen domeinuan ordainik ez balego, bigarren domeinukoak bilatzen ditu, gero hirugarrenekoak, etab. Domeinuaren barruan ordain bat baino gehiago egonez gero, horien artean `sense` balio txikiena duena aukeratzen du.

Adibidez, demagun pediatriaren inguruko testu bat euskaratu nahi dugula. Kasu horretan, pediatria izango da lehenengo domeinua edo domeinu nagusia, eta medikuntza bigarren mailakoa. Horrela, aurrena pediatriako parekatzeak bilatzen ditu MatxinMedek, ez aurkitzekotan medikuntzakoak, eta azken unean parekatze guztiak izango lituzke kontuan. Nahi beste domeinu zehaztu ahalko ditugu, eta MatxinMedek lehenengotik hasita, denak aztertuko ditu ordaina aurkitu arte.

Hiztegiari erreparatzen badiogu (6.10 eta 6.11 taulak), *colon* terminoaren bi adierak ikus ditzakegu. Hiztegiaren atal orokorrean (6.10 taula), "bi puntu" gisa euskaratzen den bitartean, medikuntzaren domeinuan (6.11 taula) kolon da. Transferentzia lexikalean egindako egokitzapen honi esker, 6.12 taulako adibidean ikus dezakegun bezala, MatxinMed *"He has colon cancer"* bezalako esaldiak ondo itzultzeko gai da, transferentzia lexikala egiterakoan parekatze hobea aukeratzeko baliabideak dituelako.

Jatorrizko esaldia	*He has colon cancer.*
Matxinen itzulpena	Hark **bi puntu** minbizia dauka.
MatxinMeden itzulpena	Hark **kolon** minbizia dauka.

6.12 taula – Matxin eta MatxinMeden itzulpenen adibidea.

NeoTerm integratzeko modulua

Transferentzia lexikalari, domeinua aukeratzeko funtzionalitateaz gain, medikuntzaren domeinuan erabiltzeko transliterazioan oinarritutako modulua gehitu diogu. Modulu horren bitartez, aurreko kapituluan (5.2.1 atalean) azaldutako NeoTerm sistema Matxinen integratu dugu. Izan ere, MatxinMeden hiztegian SNOMED CTren eduki terminologikoa da gehitu duguna, baina egon litezke termino batzuk SNOMED CTn agertzen ez direnak. Horietarako, NeoTerm bidez euskarazko ordaina lortzen dugu. Azken finean, sortutako baliabideak berrerabiltzeko hautua egin dugu modulu hori integratzean.

Matxinek, hitz baten ordaina hiztegian aurkitzen ez duenean, jatorrizko hitza bere horretan uzten du, eta kasuan kasu, deklinabidea gehitzen dio. Hurrengo adibidean (6.13 taulan) ikus dezakegu Matxinek *cholangiohepatitis* terminoa ez duenez hiztegian aurkitu, bere horretan uzten duela, eta singular mugatuaren deklinabidea gehitzen diola (cholangiohepatitisa). Aldiz, hizte-

gian aurkitzen duen kasuetan, adibidean MatxinMeden hiztegian aurkitzen denez, terminoaren ordaina erabiltzen du (kolangiohepatitisa).

Jatorrizko esaldia	*He has cholangiohepatitis.*
Matxinen itzulpena	Hark **cholangiohepatitis**a dauka.
MatxinMeden itzulpena	Hark **kolangiohepatitis**a dauka.
Jatorrizko esaldia	*He has cholangio**hypo**hepatitis.*
MatxinMeden itzulpena	Hark **cholangiohypohepatitis**a dauka.
MatxinMed NeoTermekin	Hark **kolangiohipohepatitis**a dauka.

6.13 taula – NeoTermen integrazioaren adibidea.

Adibide horretan, ez bada NeoTermen beharrik ikusi ere, Matxinen funtzionamendua erakusteko balio izan digu hitz ezezagunen aurrean. Hori kontuan izanik, NeoTerm integratzearekin, ezagutzen ez ditugun termino neoklasikoak ere euskaratzen ditugu.

Adibidez, aurreko terminoari, *hypo* afixua gehitzen badiogu, *cholangiohypohepatitis* terminoa sortuz (existitu ez arren eta zentzurik ez izan arren, adibide gisa erakutsi nahi dugu), MatxinMedek NeoTerm gabe, Matxinen itzulpen berdina emango liguke, eta NeoTermen integrazioari esker, euskarazko itxura duen itzulpena sortzen du, 6.13 taularen bigarren zatian ikus dezakegun bezala.

Hizkuntza-Eredua

Ikusi dugun moduan, hainbat ingeleseko terminok euskarazko ordain bat baino gehiago dituzte (4. eta 5. lerroak 6.11 taulan, non adibidez *noradrenaline* bi modutan adierazten den euskaraz, noradrenalina eta norepinefrina). Matxinen oraingo inplementazioak, ordainen gaineko desanbiguaziorako tresnak nahikoa garatu gabe ditu, eta hortaz definitzen dugun ordenak berebiziko garrantzia dauka, lehenengo ordaina izango baita uneko bertsioak erabiliko duena. Hala ere, lehenengo ordaina bakarrik erabiliko bada ere, interesgarria iruditu zaigu ordain guztiak hiztegian gehitzea, etorkizunean desanbiguatzeko aukera garatuz gero, hiztegia osatuta izango dugulako.

SNOMED CTren ordainen arteko ordena zehazteko (`sense` etiketaren bidez adierazten dena), hizkuntza-eredu bat osatu dugu. Aurrekarien atalean ikusi dugun moduan (6.2.1 atala), hizkuntza-ereduak Estatistiketan Oinarritutako Itzultzaileetan erabiltzen diren eredu probabilistikoak dira, helburu-

-hizkuntzarako sortzen direnak. Eredu horiek testu-kate bat helburu-hizkuntzako baliozko esaldia izateko probabilitatea adierazten dute, eta helburu nagusia itzulpena helburu-hizkuntzaren ahalik eta antzekoena dela bermatzea da.

Hizkuntza-eredu bat sortzeko, helburu-hizkuntzaren corpus bat beharrezkoa da. Gure kasuan, euskarazko corpusa behar dugu eta gainera, osasun-zientzien domeinukoa. Domeinuko corpusa osatzeko, honako iturriak erabili ditugu:

- Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) osasun-zientzietako liburuak: UEUk euskarazko liburugintza akademikoan lan handia egin du azken hamarkadetan. Osasun-zientzien domeinuan 15 liburu argitaratu dituzte eta bertatik 300.000 token inguru erauzi ditugu.

- Euskal Herriko Unibertsitatearen medikuntzako ikasleen apunteak: medikuntza fakultateko euskal adarreko ikasleek euren apunteak biltegi batean bildu dituzte euskarazko materiala elkartuz. Bertako apunteak jaso ditugu, eta testua automatikoki erauzi dugu. 1.200.000 token inguru bildu ditugu horrela.

- Elhuyar Fundazioaren itzulpen-memoriak: Elhuyarrek urteetako esperientzia dauka liburuen eta oro har testuen euskaratzean. Prozesu horretan sortutako itzulpen-memoria horietatik azpicorpus paralelo bat erauzi dugu osasun-zientzien domeinukoa ia 1.000.000 token dituena.

- Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearen (OEE) osasun biltzarren txostenak: OEE osasun-arloan euskara sustatu eta bultzatu nahi duen elkartea da. Elkarte honek urtero osasun biltzarra antolatzen du osasun-arloko gai ezberdinak jorratuz eta biltzar horiei esker idatzizko material asko sortu dute euskaraz. Biltzar horietako 1996-2014 urte tarterako txostenak jaso ditugu. Hala ere, urte batzuetako materiala erauzteko arazoak izan ditugu formatu kontuak direla medio. Denera 15 urtetako jardunaldietako testua gehitu diogu corpusari, 400.000 tokenetik gora lortuz.

- Osakidetzaren zabalkunderako txostenak: Euskal Autonomia Erkidegoaren osasun-zerbitzuak zabalkunderako prestatutako 41 txostenetatik 600.000 tokenetatik gora gehitu dizkiogu corpusari. Txosten horiek

> alor ezberdinetakoak dira, erizaintza, etika sanitarioa, kudeaketa sanitarioa, lan-osasuna, lehen mailako arreta edo osasun mentalari buruzkoak.

Horrela 3.500.000 token baino gehiagoko corpusa osatu dugu. Kontuan izan, corpusa automatikoki sortu dugula eta zenbait kasutan .pdf zein .docx formatua duten fitxategietatik erauzi behar izan dugula testua. Hori horrela izanik, baliteke formatu akatsen bat aurkitzea corpusean. Horretaz gain, medikuntzako ikasleen apunteen kasuan bereziki, beste hizkuntzetako testu zati gutxi batzuk aurkitu ditugu, ingelesez zein espainieraz, eta baita euskarazko ortografia akats batzuk ere. Izan ere, ikasleen apunteak dira, ez dira argitaratutako testu zainduak, eta izaera horretako testuen ezaugarriak dituzte. Corpusaren tamaina handia izanik, aurkitu ditzakegun akatsen eragina txikitzen da eta horrela, gure interesekoa den hizkuntza-eredua sortzeko baliagarria zaigu.

Kontuan hartu behar dugu erabili dugun corpusaren izaera. Osasun-zientzien domeinukoa izan arren, dokumentu akademikoak dira gehienak (liburuak eta ikasgaietako apunteak). SNOMED CTren izaera aldiz, ezberdina da, terminologia klinikoa baita nagusi, baina alor zehatz horretan dugun hutsunea betetzeko baliagarria izango zaigu, alor klinikoko corpusa sortzen den bitartean.

Hizkuntza-eredua sortzeko, corpusa aurreprozesatu behar izan dugu. Alde batetik lerro hutsak kendu ditugu eta letra xehetara pasa dugu. Bestetik, corpusa tokenizatu dugu. Ereduaren entrenamendurako Moses sistemaren eredu sortzailea erabili dugu, Mosesek hizkuntza-ereduak prestatzeko modulu bat baitauka, guk erabili duguna.

Bi hizkuntza-eredu entrenatu ditugu, hirugrametan eta bosgrametan oinarritutakoak. Bi ereduen emaitzak azaletik aztertu ditugu eta emaitzek ez dute nabarmentzeko aldaketarik erakutsi. Bosgramak erabiltzea erabaki dugu azkenean, emaitzetan ageriko eraginik izango ez badu ere. Hurrengo taulan (6.14 taula) hirugrametan zein bosgrametan oinarritutako hizkuntza-ereduen emaitzen arteko konparazioa ikus dezakegu. Kontuan izan behar dugu, gure kasuan ordainen arteko aukeraketa egiteko erabiliko dugula, eta ondorioz, hizkuntza-ereduak esleitzen dien probabilitateen artean (eskala logaritmikoan) altuena daukan ordaina aukeratuko dugula (kasu honetan, "ezkerreko besoaren haustura" eta "ezkerreko besoaren haustura irekiaren infekzio" terminoen alde egingo genuke, zenbakiak negatiboak baitira). Ikus dezakegunez, bi ereduek oso zenbaki antzekoak ematen dituzte, eta gure ataza

zehatzari dagokionez, konparatzen ari garen ordainen arteko probabilitateen aldeak arbuiagarriak dira (1,19767 eta 1,181446). Horrela, esan bezala, bosgramak erabiltzeko hautua egin dugu egitura konplexuagoetan lagungarriak izan daitezkeelakoan.

	Hirugramak	**Bosgramak**
ezkerreko besoaren haustura	-12,771531	-12,795929
ezkerreko besoko haustura	-13,969201	-13,977375
Aldea	1,19767	1,181446
ezkerreko besoaren haustura irekiaren infekzio	-23,259136	-23,283657
ezkerreko besoko haustura irekiaren infekzio	-24,456806	-24,465101
Aldea	1,19767	1,181446

6.14 taula – Hirugramak eta bosgramak konparatzen.

Domeinuko corpusaz gain, euskarazko corpus orokorra ere erabili dugu. Azken hori Elhuyar Fundazioaren itzulpen-memorietako euskarazko esaldiekin osatuta dago nagusiki, eta publikoki eskuragarri dauden Eusko Jaurlaritzaren[13] eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren[14] itzulpen-memoriekin osatuta dago. Itzulpen-memoria horiei, Elhuyar Fundazioak webetik erauzitako corpus paraleloaren euskarazko esaldiak (San Vicente eta Manterola, 2012) gehitu zaizkio, baita Euskal Herriko Unibertsitateak euskaratutako hainbat liburu ere, besteak beste. Horrekin guztiarekin, corpus orokorrak 100.000.000 token baino gehiago ditu. Corpus honi esker, osasun-zientzien corpuseko gabeziak estali nahi ditugu, 100 milioi tokenetan euskararen ezaugarri gehienak agertuko direlakoan.

Hizkuntza-ereduak bi corpusekin entrenatu ditugu (bosgrametan oinarrituta) eta sortutako ereduak interpolatu egin ditugu. Interpolazioak corpusak biltzeko aukera emateaz gain, *tuning*-corpusa deritzon erreferentziazko corpus batekin optimizatzeko aukera ematen du. Gure kasuan, osasun-zientzien corpusa eta euskarazko corpus orokorra elkartu ditugu, eta SNOMED CTren ordain batzuekin osatutako corpusarekin optimizatu dugu.

Izan ere, *tuning* egiteko, erreferentziazko corpus txiki bat erabili ohi da. Esan dugun bezala, teknika horren helburua, entrenatutako eredua optimizatzea da, sortutako probabilitateei pisuak esleituz, itzulpenak *tuning*-corpuseko esaldiei ahalik eta gehien hurbil daitezen. Gure kasuan, SNOMED

[13] http://www.ivap.euskadi.eus/ivapeko-itzulpen-zerbitzu-ofizialeko-itzulpen-memoriak/r61-vedorok/eu/ (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

[14] http://www.gipuzkoa.eus/imemoriak/ (2017ko maiatzaren 9an atzitua).

CTren terminoak sortu nahi ditugunez, baliabide lexikalekin euskaratutako terminoetatik, ordain bakarra dutenak aukeratu ditugu *tuning*-corpus moduan. Izan ere, termino horiek ordain bakarra izatean, ez dago anbiguotasunik, eta baliabide lexikaletatik erauzi ditugunez, proposatutako ordainak linguistikoki zuzenak izateko bermeak dituztela aurreikusi dugu. Corpus horrek 23.852 euskarazko termino eta 34.583 token ditu.



6.10 irudia – Hizkuntza eredua SNOMED CTren terminologiari doitzeko interpolazioa.

Interpolazioa irudikatu dugu 6.10 irudian. Ikus dezakegunez, osasun-zientzien corpuserako eta corpus orokorrerako hizkuntza-ereduak sortzen ditugu, eta horien probabilitateak (p1 eta p2) jasotzen ditu interpolazioa egiten duen programak. Interpolazioan, ereduen probabilitateei pisuak ematen zaizkie (λ), *tuning* corpuseko testuari modu optimoan egokitzeko, hain zuzen ere.

Termino konplexuen integrazioa

Matxinek Hitz Anitzeko Unitate Lexikalak (HAULak) ezagutzeko modulu berezi bat dauka. Bertan, HAULen identifikaziorako beharrezko informazioa jasotzen da erregelen bitartez. Osasun-alorreko HAULen identifikaziorako definitutako erregelen adibideak erakusten ditugu 6.11 irudian.

Erregela horien osaketa modu automatikoan egin dugu, horretarako Matxinek daukan aplikazio baten bitartez. Aplikazio horrek HAULen zerrenda jasotzen du, eta horien analisi linguistikoa Stanforden CoreNLP tresnaren bidez eginez, erregelak osatzen ditu. Analisi linguistikotik kategoria gramatikalak erabiltzen ditu, eta horrela HAULaren azkeneko hitza deklinatuta ager daitekeen edo ez ondorioztatzen du.

Adibidez, *no known allergies* terminoaren kasuan, azken hitza (*allergies*) pluralean dagoen izen bat da. Orokorrean, termino baten izendatzean barruko hitzak espreski pluralean agertzen badira, forma horretan agertzea beharrezkoa izan ohi da. Hori horrela izanik, HAUL hori ezagutu ahal izateko, forma guztiak bere horretan agertu behar dira. *Alfentanil allergy* terminoarekin aldiz, azken hitza izen singularra izanik, pluralean zein singularrean ager daitekeela iritzi dio Matxinek, eta horrela, azken hitzaren lema bilatuko du forma beharrean. Adibide horietan oinarrituz automatikoki sortu dizkiegun erregelak 6.11 irudian ikus ditzakegu.

```
1 {pattern: (/alfentanil/ [ lemma:"allergy" ]),
      result: Concat("alfentanil_allergy", "|", $0[1].tag)}
2 {pattern: (/no/ /known/ /allergies/),
      result: Concat("no_known_allergies", "|", $0[1].tag)}
```

6.11 irudia – Matxinen HAULen ezagutzarako automatikoki sortutako erregelak.

Sortutako erregela horiekin, Matxin HAUL berriak identifikatzeko gai da, gure kasuan osasun-alorreko termino konplexuak identifikatzeko, eta 6.15 taulan erakusten dugun adibidean bezala, HAULen identifikazio zuzenari esker, termino konplexuak dituzten esaldiak hobeto itzultzeko aukera dugu.

Jatorrizko esaldia	*He has Osler syndrome.*
Matxinen itzulpena	Hark **sindrome Osler** dauka.
MatxinMeden itzulpena	Hark **Osler-en sindromea** dauka.

6.15 taula – Matxin eta MatxinMeden itzulpenen adibidea.

Tesi-lan honetarako egokitu dugun Matxini MatxinMed deitzen badiogu ere, egokitzapena orokorra izan da, eta horrela Matxin edozein domeinutara egokitzeko aukera eman diogu. Hau da, Matxin berak hainbat domeinu izan ditzake integratuta, eta parametro bidez zein domeinu erabili nahi dugun erabaki ahalko dugu, sistema berdina erabiliz. Hala ere, lan honen ulermenean laguntzeko, osasun-zientzietarako egokitutako Matxini MatxinMed deituko diogu.

Hurrengo atalean, MatxinMeden eta KabiTermen ebaluazioaren diseinua azalduko dugu, osasun-zientzietako euskal komunitateari esker egin dugun Medbaluatoia kanpaina, hain zuzen ere.

6.3 Ebaluazioaren diseinua

Azkeneko bi urratsak ebaluatzeko, metodologia ezberdina erabili dugu. Aurreko kapituluan termino sinpleen adituen ebaluaziorako, 4 ebaluatzailek hartu zuten parte: bi hizkuntzalarik eta bi medikuk. Laginari dagokionean, 370 kontzeptu eta 766 termino ebaluatu zituzten, adituei eskuzko lan handia eskatuz.

Kapitulu honetako sistemak ebaluatzeko aldiz, osasun-zientzien euskal komunitatea inplikatzen duen ebaluazioari heldu diogu: Ebaluatoiaren (Aranberri *et al.*, 2016a) moldaera bat egin dugu, eta Medbaluatoia deritzon kanpaina diseinatu eta martxan jarri dugu. Ebaluatoia, 2015ean IXA taldeak Itzultzaile Automatikoak sailkatzeko erabili zuen euskal hiztunen komunitatea inplikatuz, eta oso emaitza interesgarriak jaso zituen.

Itzultzaile Automatikoen ebaluazioan ohikoena neurri automatikoak ateratzea bada ere, BLEU (Papineni *et al.*, 2002) izanik zabalduena, pertsonen ebaluazioa ekidinezina da sortzen dugun tresna pertsonek erabiltzea nahi baldin badugu. Hori horrela izanik, ikerketa gehienetan ebaluatzaile talde txiki batek parte hartzen du, nagusiki ikerketa taldeko bertako ikerlariek, oso lagin txikia ebaluatuz. Kontuan izan beahr dugu, BLEU neurtzeko urre-patroi lagina beharrezkoa da ebaluatu ahal izateko, eta gure kasuan ez dugu erreferentziazko termino-ordain pareen lagin nahikorik. Gainera, gure kasuan terminoentzat automatikoki sortutako ordainak direla ebaluatu nahi ditugunak, eta BLEU bezalako metrikek esaldiak ebaluatzeko diseinatu dira.

Ebaluatoiak aldiz, komunitatean oinarritutako ebaluazioa proposatzen du. Izan ere, euskaldunok komunitate kontzientziatu eta dinamikoa osatzen dugu, eta inbertsio handiegirik egin gabe, metodo azkarra da konfiantza

maila nahikoa duten ebaluazioak jasotzeko. Jakina den bezala, hizkuntza gutxituen komunitateek, haien hizkuntzek biziraun dezaten lagungarriak izan daitezkeen ekitaldietan zintzoki parte-hartzeko prestutasun osoa erakusten dute.

Esan bezala, Ebaluatoiak Itzultzaile Automatikoak bere horretan ebaluatzeaz haratago, horien sailkapena egitea du helburu. Bost sistema ebaluatu zituzten 2015eko kanpainan, guztiak ingelesa-euskara hizkuntza parerako (Aranberri, 2016): EuSMT oinarri-lerroa, EuSMT segmentazioarekin, Matxin ENEUS, SMatxinT sistema hibridoa eta Google Translate. Esaldiak izan ziren ebaluatzen ziren unitateak.

Alegria *et al.* (2013)-en ikasketei esker, Ebaluatoian diseinatutako ataza ahalik eta sinpleena da. Horretarako, bikotekako konparaketaren metodoa erabili zuten esaldi hautagaiak ebaluatzeko. Parte-hartzaileei jatorrizko esaldia eta bi itzulpen automatiko erakusten zaizkie, eta beraien eginbehar bakarra bi itzulpenen arteko onena aukeratzea da. Metodo horrek, esfortzu kognitibo txikiagoa eskatzen du beste metodo batzuk baino, ebaluatzaileen arteko adostasun handiagoa lortuz. Agerian geratu zen hori, ebaluatzaileen arteko adostasuna, 0,49 eta 0,53 arteko *kappa* neurriak lortu baitzituen Ebaluatoiak. Aurretik WMT (Workshop on Statistical Machine Translation) edizioetan egindako ebaluazio antzekoetan 0,075 eta 0,324 arteko *kappa* neurriak lortu ziren (Bojar *et al.*, 2014).

Guk Ebaluatoian garatutako metodologia erabili dugu terminoen ordain hautagaiak sailkatzeko. Horrela, esaldiak beharrean, parte-hartzaileek termino konplexuak (2 eta 8 token artekoak) ebaluatuko dituzte. Ebaluatoian ebaluatu beharreko esaldiak, esaldi konplexuak ziren gehienetan, eta horrela, gure ataza errazagoa izango dela aurreikusten dugu. Gainera, parte-hartzaileak alorrean adituak direla kontuan hartzen badugu, zailtasuna jaitsiko da Ebaluatoiarekin alderatuz.

Aurreko guztia kontuan hartuta, atazari eginkizun berri bat gehitzea erabaki dugu Medbaluatoian: ordain hautagaien artean zuzena(k) aukeratzeko aukera ere ematea. Horrela, automatikoki sortutako ordainen zuzentasuna ere neurtu ahalko dugu.

Horretaz gain, parte-hartzaileen profila osatzeko eremuak ere egokitu ditugu. Izan ere, Ebaluatoiak edozein adin, ikasketa-maila edo jakintza-alorreko jendearen parte-hartzea bilatzen zuen bitartean, gure kasuan osasun-zientzien alorrak baino ez ditugu aurreikusten, eta ikasketa mailari dagokionean, unibertsitate-graduko ikasle, espezialitateko ikasle zein ikasketak bukatutakoak izango dira parte-hartzaileak.

Medbaluatoia KabiTerm eta MatxinMed ebaluatzeko erabili dugu, hortaz bi ebaluaziorako multzo lortu ditugu. Alde batetik, KabiTerm ebaluatzeko, hiru sistema konparatu ditugu: Google Translate oinarri-lerroko sistema gisa, KabiTerm sistema eta MatxinMed-1 (KabiTermekin sortutako terminorik gabeko MatxinMeden bertsioa). Multzo honi KabiTermen multzoa deituko diogu.

Bestetik, MatxinMed bera ebaluatuko dugu. Horretarako, oinarri-lerroko sistema berdina erabiliko dugu, Google Translate, eta MatxinMeden bi aldaera erabiliko ditugu. Lehenengoa, MatxinMed-1, KabiTermen ebaluazioan erabiliko dugun berdina, eta bigarrengoari, MatxinMed-2, KabiTerm sistemak sortutako ordainak ere integratu dizkiogu. Multzo horri MatxinMeden multzoa deritzogu. Kontuan izan, MatxinMed-1 eta MatxinMed-2ren artean, MatxinMed-2k hiztegi zabalagoa duela termino konplexuei dagokionean. Horrela, termino motzetan aldea aurreikusten ez badugu ere, termino luzeetan aldea egon daiteke. Adibidez, MatxinMed-1ek *entire deep pectoral muscle* terminoa "sakoneko pektorala osoa" moduan euskaratzen duen bitartean, MatxinMed-2k "bularreko muskulu sakon osoa" euskaratzen du, *deep pectoral muscle* dagoeneko hiztegiratuta duelako.

Hurrengo taulan (6.16 taula), bi ebaluazioetan parte hartuko duten sistemak erakusten ditugu.

	KabiTerm	**Google**	**MatxinMed-1**	**MatxinMed-2**
KabiTermen multzoa	✓	✓	✓	
MatxinMeden multzoa		✓	✓	✓

6.16 taula – Medbaluatoiaren bidez ebaluatutako sistemak.

Kapitulu honetako ebaluazioetan, aurreko ebaluazioetan bezala, nahasmenduen, aurkikuntzen, gorputz-egituren eta prozeduren hierarkiak izan ditugu aztergai. Token kopuruei dagokienean, 2 eta 8 token artean dituzten terminoekin ibili gara, lehenago ikusi dugun bezala (3 kapituluan) 8 token arteko terminoak lagin osoaren % 92a baino gehiago baitira, eta hortaz, laginketa esanguratsua lortu dugu. Izan ere, geroz eta token kopurua handiagoa, orduan eta termino konplexuagoak dira, eta horien azterketa, sorkuntza automatikoa zein ebaluazioa asko zailtzen dira.

Ebaluatoian erabilitako laginaren tamaina bera erabiliko dugu Medbaluatoiaren kanpainarako: 500 jatorri-termino. Kontuan izanda gure kasuan bi ebaluazio egingo ditugula, ebaluazio bakoitzerako 500 termino aukera-

tu ditugu SNOMED CTren termino konplexuetatik, eta multzo horiek token kopuruaren eta hierarkiaren arabera estratifikatu ditugu (Ripley, 2009). Hau da, 6.17 taulan ikusten dugun bezala, SNOMED CTren lagin guztiaren token kopuruen eta hierarkien proportzioak kontuan hartuta jaso ditugu ingelesezko bertsiotik terminoak. Horretarako lau hierarkien arteko proportzioak kalkulatu ditugu, eta ostean hierarkia horien barnean token kopuruen proportzioak.

	Nahasmenduak		**Aurkikuntzak**		**Gorputz-egiturak**		**Prozedurak**	
	Prop.	**Kop.**	**Prop.**	**Kop.**	**Prop.**	**Kop.**	**Prop.**	**Kop.**
2 token	0,20	42	0,18	18	0,20	12	0,13	11
3 token	0,24	43	0,23	16	0,23	31	0,20	19
4 token	0,20	38	0,21	24	0,19	25	0,22	27
5 token	0,16	35	0,18	11	0,16	11	0,19	24
6 token	0,10	23	0,11	7	0,11	13	0,13	12
7 token	0,07	16	0,06	8	0,07	8	0,09	11
8 token	0,04	4	0,03	6	0,03	0	0,05	7
Denera	0,37	201	0,17	90	0,19	98	0,28	111

6.17 taula – Ebaluazio multzoetako kopuruak eta proportzioak.

Ebaluazioen kopuruak erabakita, SNOMED CTtik ingelesezko jatorri--terminoak erauzi ditugu. KabiTermen ebaluazio multzorako, zoriz aukeratu ditugu 500 termino konplexu, beti ere, KabiTerm jatorri-terminoen ordainak sortzeko gai bada. MatxinMeden multzoa sortzeko aldiz, Kabitermek itzuli ezin dituen jatorri terminoetatik 500 jaso ditugu. Izan ere, MatxinMed soilik KabiTermek euskaratzen ez dituen terminoak euskaratzeko erabiliko dugu, eta horrela egin dugu ebaluaziorako lagina lortzeko ere.

KabiTermen multzorako, terminoen gainsorkuntza kontrolatzeko beharra izan dugu. Izan ere, gainerako sistemek ordain bakarra ematen duten bitartean, KabiTermek hainbat ordain emateko joera dauka, eta sistemak ez leudeke baldintza berdinetan lehiatzen. Lehia orekatzeko, gure osasun-zientzien euskarazko hizkuntza-eredua erabili dugu. KabiTermek proposaturiko ordain guztien artean, hizkuntza-ereduan probabilitate altuenarekin agertzen den ordaina aukeratu dugu. Tamalez, horrek ez du ziurtatzen ordain onena izango denik, baina metodo automatikoen artean ezagutzen dugun metodo fidagarriena da.

Denera 1.000 termino ebaluatu ditugu, eta termino bakoitzarekin hiru sistema-bikote (hiru sistema). Horrela, 3.000 ebaluazio behar izan ditugu. Subjektibotasunari aurre egiteko, ebaluazio bakoitza 5 erabiltzailek egitea

erabaki dugu. Horrela, denera 15.000 ebaluazio behar izan ditugu Medbaluatoia kanpaina bukatzeko. Gainera, erabiltzailearen arreta neurtzeko, kontrolerako ebaluazioak gehitu ditugu. Kontrolerako ebaluazio horiek, eskuz emandako ordain zuzenez, eta oso nabariak diren ordain okerrez osatuta daude. Kontrolerako ebaluazioetatik herena gaizki eginez gero, parte-hartzailea kanporatu egiten da.

Kontrolerako ebaluazioak beharrezkoak dira, erantzunen fidagarritasuna ziurtatu ahal izateko, bereziki komunitate zabalekin lan egiten badugu. Ahal den neurrian, erantzun gaiztoak edo hizkuntza gaitasun nahikoa ez duten parte-hartzaileak identifikatu beharko genituzke, beraien erantzunak alboratzeko. Ebaluatoian bezala, ebaluazioa egiten duten bitartean kontrolerako ebaluazioak gaizki egiten dituzten parte-hartzaileak kanporatzeko erabakia hartu dugu: bost ebaluazioetatik bat, kontrol-ebaluazioa izango da, eta horietatik herena gaizki eginez gero, parte-hartzailea kanporatua izango da.

Kontuan izanik parte-hartzaile batek gehienez 1.000 ebaluazio egingo dituela, eta bost ebaluaziotik bat kontrolekoa izango dela esan dugunez, 250 kontrolerako termino-ordain beharko ditugu. Kontrolerako terminoak medikuek sortutako laginetik hartu ditugu. Hau da, KabiTerm sistema garatzeko adituei eskatutako termino eta euren ordainen zerrendatik. Hautagaiak sortzeko, batetik medikuek proposaturiko ordain zuzenak erabili ditugu, eta bestetik Matxin itzultzaile orokorrak emandako ordainak eskuz okertuta, antonimoak, ezeztapenak eta testuingurutik kanpoko hitzak erabili ditugu (ikus adibideak 6.18 taulan).

Jatorri-terminoa	*burn of vagina and uterus*
Ordain hobea	bagina eta umetokiko erredura
Ordain okerragoa	erre ezazu utero baginako eta
Jatorri-terminoa	*excision of fimbrial cyst*
Ordain hobea	finbriako kistearen erauzketa
Ordain okerragoa	fimbrial cysteko hanka

6.18 taula – Kontrolerako termino-ordainen bi adibide.

Medbaluatoiaren zabalkunderako Medikuntzako Fakultateko euskara taldeen gela guztietik pasa ginen kanpainaren hasierako egunean. Horretaz gain, mezu elektroniko bat zabaldu genuen, profesionalen artean parte-hartzea sustatzeko. Zabalkundean gakoak izan dira Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea eta EHUko Euskara Errektoreordetza.

Interfazea hurrengo irudian (6.12) ikus dezakegu. Bertan, ingelesezko terminoa eta euskarazko bi ordainak agertzeaz gain, ordainen artean onena aukerako formularioa agertzen da. Gainera ordain bakoitzaren ondoan, ordaina bera zuzen gisa aukeratzeko laukitxoa ere eskaintzen da. Ebaluaziotik kanpo, denera egindako ebaluazio kopurua ere erakusten zaie parte-hartzaileei, eta lehia sustatzeko parte-hartzaile aktiboenen *ranking*a ere, 6.12 irudiko bi aldeetan ikus daitekeen bezala.



6.12 irudia – Medbaluatoiaren ebaluazio baten interfazea.

Hurrengo atalean, Medbaluatoia kanpainaren emaitzak erakutsiko ditugu, ebaluatzaileen arteko adostasun neurriak eta sistemen arteko konparaketak azalduz.

6.4 Emaitzak

Atal honetan Medbaluatoiaren kanpainan lortutako emaitzak aurkeztuko ditugu eta bukaeran, SNOMED CTren estaldurari lotutako emaitzak ere emango ditugu.

6.4.1 Medbaluatoiaren emaitzak

Medbaluatoiaren kanpaina oso arrakastatsua izan dela azpimarratu beharrean gaude. 2016ko urriaren 10an abiatu genuen, eta hiru astetarako aurreikusitako lana aste bakarrean bukatu zuten parte-hartzaileek. Denera 217 parte-hartzaile izan ditugu kanpainan, eta euretako 13 baztertuak izan dira kontrol-ebaluazioetan kale eginagatik.

Parte-hartzaileen profila

Hurrengo taulan, 6.19 taula, parte-hartzearen inguruko laburpena erakusten dugu. Ikus daitekeenez, kanporatutako 13 horiei, ebaluaziorik egin ez duten beste 13 gehitu behar dizkiogu parte-hartzaile ez baliagarriak zenbatzeko garaian. Horrela, denera 191 baliozko parte-hartzaile izan ditugu. Horien mediana 24 ebaluaziokoa izan da, eta batezbestean 100,25 ebaluazio egin dituzte.

	Parte-hartzaile kopurua	**%**
Parte-hartzaileak denera	217	
Kanporatuak	13	5,99
Ebaluaziorik gabe	13	5,99
Parte-hartzaile baliozkoak	191	88,02
	Ebaluazio kopurua	
Parte-hartzaile baliozkoen mediana	24	
Parte-hartzaile baliozkoen batezbestekoa	100,25	

6.19 taula – Medbaluatoiko parte-hartzearen laburpena.

Adin-tarteari dagokionean (6.20 taula), parte-hartzailearen profila nagusiki gaztea dela esan dezakegu. 19-25 adin-tartea da jendetsuena, parte-hartzaileen % 40 baino gehiago adin-tarte horretakoa izanik. Ez da harritzekoa, eta ikasketa mailari dagokion taularekin bat dator (6.21 taula), bertan ikasketa maila ezberdinetan dauden parte-hartzaileak % 55a baino altuagoa baita (1. eta 6. maila arteko portzentajeak gehituta). Adin-tarte horretaz gain, 26-45 adin-tartean portzentajea handia bildu da, % 40 inguru, eta horiek ikasketak bukatuta dutenekin bat egiten dute (% 41,94).

Medbaluatoiaren oinarria teknologia izateak, parte-hartzaileen profila asko mugatu duela esan dezakegu, adin-tarte zehatz bateko jendearentzat erakargarriagoa eginez.

Adin-tartea	Parte-hartzaile kopurua	%
<18	13	5,99
19-25	94	43,32
26-35	35	16,13
36-45	52	23,96
46-55	19	8,76
56-65	4	1,84
>65	0	0,00

6.20 taula – Medbaluatoiko parte-hartzaileen adin-tarteak.

Ikasketa maila	Parte-hartzaile kopurua	%
1. maila	33	15,21
2. maila	11	5,07
3. maila	6	2,77
4. maila	18	8,30
5. maila	19	8,76
6. maila	10	4,61
Erresidentzia	15	6,91
Ikasketak bukatuta	91	41,94
Bestelakoak	14	6,45

6.21 taula – Medbaluatoiko parte-hartzaileen ikasketa mailak.

Esan bezala, Medbaluatoian automatikoki sortutako osasun-zeintzietako terminologia ebaluatu nahi izan dugu. Hori horrela izanik, parte-hartzaileak zein osasun-zientzietako alorretan lan egiten edo ikasten duten jakin nahi izan dugu. Emaitzak 6.22 taulan ikus ditzakegu. Nagusiki medikuak eta medikuntzako ikasleak izan dira parte-hartzaileak (% 61,75), baina erizainen eta erizaintzako ikasleen parte-hartzea ere nabarmentzekoa izan da % 21,20a izanik.

Hizkuntzen ezagutzaren inguruan, Medbaluatoiaren atazan euskara zein ingelesa jakitea beharrezkoa zen parte-hartzaileentzat. Hala ere, beraien lana berrikuspena izanik, ez dugun gutxieneko hizkuntza gaitasunik eskatu. Hurrengo tauletan ikus dezakegunez (6.23 eta 6.24 taulak), euskarazko maila

Alorra	Parte-hartzaile kopurua	%
Erizaintza	46	21,20
Medikuntza	134	61,75
Farmazia	6	2,77
Fisioterapia	17	7,83
Bestelakoak	14	6,45

6.22 taula – Medbaluatoiko parte-hartzaileen alorrak.

altuena nagusi izan den bitartean (parte-hartzaileen % 93,09 C1-C2 mailarekin), ingelesezko maila erdi-mailakoa izan da nagusi (% 48,85a B1-B2 mailarekin), nahiz eta goi-mailako (% 30,87) eta behe-mailako (% 20,28) asko ere egon.

Euskara maila	Parte-hartzaile kopurua	%
A1-A2	2	0,92
B1-B2	13	5,99
C1-C2	202	93,09

6.23 taula – Medbaluatoiko parte-hartzaileen euskara mailak.

Ingelesa maila	Parte-hartzaile kopurua	%
A1-A2	44	20,28
B1-B2	106	48,85
C1-C2	67	30,87

6.24 taula – Medbaluatoiko parte-hartzaileen ingeles mailak.

Parte-hartzaileen arteko adostasuna

Jarraian, parte-hartzaileen arteko adostasuna kalkulatu dugu. Horretarako, ohikoena *kappa* (κ) neurria kalkulatzea da. Aurreko kapituluan azpimarratu genuen moduan bi ebaluatzaileen arteko adostasuna neurtzeko Cohenen κ

(Cohen, 1960) erabiltzen da, eta bi baino gehiago direnetan Fleissena (Gwet, 2014, Artstein eta Poesio, 2008). Kontuan izan, bai Cohenen zein Fleissen *kappa* neurriak kalkulatzeko garaian, ebaluatzaile berdinek lagin berdina ebaluatzen dutela ulertzen dela.

Gure kasuan, 200 ebaluatzailetik gora ditugu (baliozkoak 191), eta bakoitzak ebaluatzen duen lagina ezberdina da, bai kopuruz zein ebaluazioz. Hori kontuan izanik, eta nahiz eta *kappa* neurriek mugak dituzten, beste ebaluazio batzuetan neurtutakoarekin konparatzeko helburuarekin atera dugu Cohenen *kappa*. Aurreko itzulpen automatikoaren WMT kanpainetan Cohenen *kappa* (Bojar *et al.*, 2014) neurriak atera dituzte, baita Ebaluatoiaren kanpainan ere (Aranberri *et al.*, 2016a).

Sistema-parea	***Kappa***
Google - KabiTerm	0,36
Google - MatxinMed-1	0,37
KabiTerm - MatxinMed-1	0,37
Google - MatxinMed-2	0,30
Google - MatxinMed-1	0,30
MatxinMed2 - MatxinMed-1	0,48

6.25 taula – Sistema pare bakoitzak lortutako adostasuna (*kappa*).

Kappa neurrien taulan ikus daitekeenez, 6.25 taulan, lortutako *kappa* balioak 0,30 eta 0,48 artean kokatuta daude. Aurreko kapituluan aipatzen genuen interpretazioaren harira (Landis eta Koch, 1977), non 0-0,2 artekoa adostasun arina den, 0,2-0,4 dezentekoa, 0,4-0,6 moderatua, 0,6-0,8 sendoa eta 0,8-1,0 ia perfektua, gure balioak dezentekoak direla ondorioztatu dezakegu.

Lortutako *kappa* balio guztiak, itzulpen automatikoaren WMT kanpainetan lortu izan diren balioen barruan daude (Bojar *et al.*, 2014), langa gorenetik gertu. Emaitzak ez dira aurrikusitakoak bezain onak izan (Ebaluatoiaren 0,49 eta 0,53 arteko *kappa* kontuan izanik), eta baliteke gehitu dugun eskakizun berriak (zuzenak diren aukeratzeko funtzionalitatea) horretan eragin zuzena izatea. Hala ere, lortutako adostasuna balio onargarrien artean dagoela uste dugu.

Ebaluazio kopuruak

Medbaluatoian zehar, parte-hartzaileei jatorrizko terminoa, eta bi euskarazko ordain erakutsi dizkiegu, eta bien arteko onena aukeratu behar izan dute, horrela, ebaluazio bat eginez. Ez dugu onena aukeratzeko irizpiderik eman, bakoitzaren irizpideen arabera onena iruditzen zaiena jaso nahi izan dugulako.

Jatorrizko termino bakoitzerako eta sistema pare bakoitzeko bost ebaluazio jaso nahi izan ditugu. Hala ere, web-aplikazioaren konfigurazioa dela-eta, batzuetarako 7 ebaluazio ere lortu ditugu. Ebaluazio gehigarri horiek ez dira akastunak eta erabiltzea erabaki dugu. Hurrengo taulan (6.26 taula), sistema bakoitzerako lortutako ebaluazio kopuruak erakusten ditugu[15]. Gogoratu behar da 2.500 ebaluazio behar genituela sistema-pare bakoitza ebaluatu ahal izateko (500 termino, eta 5na ebaluatzaile). Taulan ikus dezakegunez hortik gorako kopuruak lortu ditugu, baina aldakortasun txikiarekin (2.523 eta 2.540 artean). Hortaz, lortutako emaitzak konparagarriak dira.

	Google - KabiTerm	**Google - MatxinMed-1**	**KabiTerm - MatxinMed-1**
KabiTermen multzoa	2.529	2.523	2.527
	Google - MatxinMed-2	**Google - MatxinMed-1**	**MatxinMed-2 - MatxinMed-1**
MatxinMeden multzoa	2.540	2.535	2.535

6.26 taula – Sistema-pare bakoitzak denera lortutako ebaluazioak.

Emaitzak

Ebaluazioetatik sistema onena aukeratzeko honako estrategia jarraitu dugu: bi sistemen arteko bozka diferentzia bi baino handiagoa bada, zalantzarik gabeko irabazlea da (taulan "X.sistema++" moduan kodetu dugu, non X-k sistema adierazten duen). Sistemen arteko diferentzia 1 edo 2 bada, sistema irabazlea dela ere deritzogu (taulan "X.sistema+" bezala kodetu dugu). Bi sistemek bozka kopuru berdina lortzen badute, orduan berdintza dagoela deritzogu. Adibidez, termino baten ebaluazioan, Google-ek bozka bat jaso badu eta KabiTermek 4, bien arteko ezberdintasuna 3 denez KabiTermen alde, "2.sistema++"-n bozka bat gehituko da.

[15]Kontaketetan ez ditugu kontrolerako ebaluazioak kontuan izan, noski.

	Google - KabiTerm	**Google - MatxinMed-1**	**KabiTerm - MatxinMed-1**
1.sistema++	6,8 (34)	13,2 (66)	**46,4(232)**
1.sistema+	3,2 (16)	9,2 (46)	14,4 (72)
berdin	3,2 (16)	7,8 (39)	5,6 (28)
2.sistema+	13,4 (67)	15,2 (76)	12,4 (62)
2.sistema++	**73,2(366)**	**54,4(272)**	21,0(105)

6.27 taula – Medbaluatoia kanpainaren sistemen ebaluazioaren emaitzak (KabiTermen multzoa).

	Google - MatxinMed-2	**Google - MatxinMed-1**	**MatxinMed-2 - MatxinMed-1**
1.sistema++	19,4 (97)	21,6(108)	6,6 (33)
1.sistema+	12,0 (60)	16,4 (82)	13,0 (65)
berdin	7,0 (35)	8,8 (44)	**62,4(312)**
2.sistema+	22,0(110)	19,4 (97)	14,6 (73)
2.sistema++	**39,8(199)**	**34,0(170)**	3,6 (18)

6.28 taula – Medbaluatoia kanpainaren sistemen ebaluazioaren emaitzak (MatxinMeden multzoa).

Emaitzetan ikus dezakegunez, KabiTermen multzoan (6.27 taula), KabiTerm sistema izan da emaitza onenak lortu dituena alde handiarekin. Bereziki handia izan da Google-en itzultzailearekin alderatuz, % 86,6 kasutan izan baita hobea (% 73,2 gehi % 13,4). MatxinMed-1ekin egindako konparazioan aldea txikiagoa bada ere, nabarmenki jaso ditu emaitza hobeak (% 46,4 kasutan nabarmen irabazi du, eta MatxinMed-1ek aldiz % 21,0 kasutan).

MatxinMeden multzoari dagokionean (6.28 taula), emaitzak horren nabarmenak ez badira ere, MatxinMeden bi bertsioek Google Translatek baino emaitza hobeak lortu dituzte. Izan ere, irabazten duten portzentajeak gehituta, % 61,8 kasutan MatxinMed-2k irabazi du (% 22,0 gehi % 39,8), eta Google-ek aldiz % 31,4 kasutan (% 19,4 gehi % 12,0). Dena dela, MatxinMeden bi bertsioak konparatzen ditugunean, emaitzek ez dute sistema baten edo beste baten alde egiten. Izan ere, kasuen % 62,4tan sistemek kalitate berdina erakutsi dute, % 19,6tan MatxinMed-2k emaitza hobeak (portzentajeak gehituta) eta % 18,2tan MatxinMed-1ek hobeak. Ezin dugu ahaztu, bi sistemen aldea KabiTermek sortutako terminoetan datzala. Horrela, MatxinMed-2k

KabiTermek euskaratutako termino habiaratuak aurkitzen dituenean bakarrik sortuko ditu ordain ezberdinak, eta esku artean izan dugun laginean kasu gutxitan gertatu da hori. Hala ere, ezin dugu kasu horietarako zein sistema den hobea ondorioztatu, emaitza oso antzekoak lortu baitituzte bi sistemek. Azpimarratzekoa da, KabiTermen multzoan agertzen diren terminoen egitura mugatua dela, eta egitura horretan MatxinMedek emaitza hobeak lortzen dituela Google-ekin alderatuz.

Termino zuzena aukeratzeko funtzionalitate berriak ez du arrakastarik izan. Uste dugu, ordain "ona" eta ordain "hobea" kontzeptuen arteko bereizketa ez dela garbi geratu, parte-hartzaile batzuekin kontrastatu ostean "hobetzat" hartzen zuten hori "zuzena" markatzen baitzuten, nahiz eta ez izan erabat zuzena. Hortaz, emaitza esanguratsuak ez direnez, ez ditugu erakutsiko.

6.4.2 KabiTermen estaldura SNOMED CTn

Jarraian, SNOMED CTren euskaratzen lortu ditugun estalduraren inguruko datuak emango ditugu. Hau da, ingelesezko nahasmenduen, aurkikuntzen, gorputz-egituren eta prozeduren hierarkietako terminoen zein proportzio euskaratu dugun KabiTermi esker. Kontuan izan, MatxinMedi esker, SNOMED CT bere osotasunean euskaratzen dugula, eta beraz, MatxinMeden inguruko estaldura datuak ez dira esanguratsuak; KabiTermen emaitzak bai, aldiz. Horregatik, 6.29 taulan KabiTermen estalduraren inguruko datuak ematen ditugu, SNOMED CTren zenbat termino eskaratzeko gai izan den eta zenbat ordain sortu dituen adieraziz.

	Nahasmendu	**Aurkikuntza**	**Gorputz--egitura**	**Prozedura**
Terminoak denera	114.830	52.857	59.384	87.104
Euskaratuak	26.136	4.054	12.497	10.651
Terminoen %	% 22,76	% 7,67	% 21,04	% 12,23
Ordainak	102.724	15.868	43.913	34.232

6.29 taula – KabiTermen SNOMED CTren euskaratze-estaldura.

Ikusten dugunez, bereziki azpimagarria da nahasmenduen hierarkian egindako ekarpena, 26.136 termino euskaratzeko gai izan baita (114.830 terminotatik). Horrek termino guztien % 22,76 termino euskaratu dituela esan nahi

